Gizarteratzeko IV. Euskal Plan hau abiatzen da gizarteratze eta gizarte-bazterketako egoeren definizio multikausal eta multidimentsional horretatik, eta bai eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak esaten duenetik ere. Lege horrek 81. artikuluan honako hau esaten du, aurrerago azaltzen den moduan: «Gizarteratzeko Euskal Planak era koordinatu eta globalean jasoko ditu administrazio eskudunen jarduera orientatu behar duten esku hartzeko eta jarduteko ildo eta jarraibideak, baztertuta daudenak gizarteratzea lor dadin».

Bide batez, Gizarteratzeko IV. Euskal Plan honetan jasotzen diren neurrien eta jarduketaren xedea hau da, oro har:

- Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen gizarteratzea sustatzea, lehen azaldu dugun eran haien eguneroko bizimoduan lanerako, hezkuntzarako, prestakuntzarako, osasunerako, etxebizitza duinerako eta gizarte-babeserako eskubiak, eta baita gizartean parte hartzeko eta gizarte- eta familia-harreman osoak edukitzea ezindu dezaketen zioetan eragina izan dezaketen jarduketaren bidez.
- Bazterketa-egoerekin uztartuta egon ohi diren arrisku-faktoreen eragina murriztuko duten jarduketak garatzea, bai norbanakoen mailan eta bai egitura-mailan, eta hein horretan bazterketa- edota ahultasun-arriskuko egoerak ez daitezela bihurtu – epe labur, ertain edo luzera – gizarte-bazterketako egoera.

2.2. Erreferentziako esparru juridikoa, eskumen-eremua eta jarduera-alorren mugaketa

2.2.1. Erreferentziako esparru juridikoa

Gizarte-bazterketaren ikuspegi zabal eta tridimentsionaletik, esan liteke administrazio publikoaren jarduera mugatzen duten arau gehienak uztartuta daudela, nola edo hala, gizarte-bazterketako eta gizarteratzeko prozesuekin. Hala ere, bazterketa-egoeren eta haien buruzko politiken ikuspuntu mugatuagotik abiatuta, zehatzago ipin liteke arreta bi legetan, hain zuzen gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko eta konponbidean jartzeko berrazko xedea dutenetan eta, gainera, pobrezia eta gizarte-bazterketa prebenitzeko hainbat zerbitzu eta diru-laguntza eskubide subjektibo moduan aintzatesten dituztenetan:

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzekoa; partzialki aldatu zuen gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko legea aldatzen duen Legeak (azaroaren 24ko 4/2011).
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, EAEko gizarte zerbitzuei buruzkoa; eta 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Halaber, aintzakotzat hartu behar litzateke Etxebizitzaren Legea (ekainaren 18ko 3/2015), bazterketa- eta gizarteratze-egoeretan duen eragin zuzena dela eta, aurreko legetan

² Gizarte-bazterketaren intentsitatea honelakoa izan daiteke: arina (deserrotze hasierakoa edo arina. Senitatekoekin edo laguntza-sarearekin harreman hauskorak dituzten pertsonak), apala (deserrotze-fase aurreratua. Oinarritzko lotura sozialak hautsi dituzten pertsonak), edo larria (ez du gizartean parte hartzen. Harreman sozial eta afektiboaren eskasia edo absentsia).

aurreikusten diren prestazio ekonomiko batzuekin duen loturagatik, baita etxebizitza-eskubidea eskubide subjektiboa dela aitortzen duelako ere.

Elkarrekin, hiru lege horiek aintzatesten dute, kasu bakoitzean ezartzen diren berariazko baldintzak betez gero euskal herritarrek eskubidea dutela:

- Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barneratuta dauden diru-sarrerak bermatzeko prestazio eta gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideak izateko³.
- unibertsaltasuneko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak arautzen eta antolatzen dituen gizarte-zerbitzuen prestazio eta zerbitzuak jasotzeko;
- etxebizitza duin eta egokia izateko Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Hiru lege horiez gain, gogoan izan behar dira gizarteratzeko eta gizarte-bazterketako prozesuekin lotura estua duten hainbat arau aldatzeko edota onesteko asmoak, Eusko Jaur-laritzak aurkeztu zuen legegintza-egutegian zetozenak. Horien artean aipagarria da Euskal Enplegu Sistemaren Lege-proiektua. Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu Politikaren helburuak eta printzipio gidariak zehaztea du helburu nagusizat arau horrek, eta honako hauek dira haren xede nagusiak: enplegu-maila eta enpleguaren egonkortasuna eta kalitateareagotzea; enplegarritasuna eta pertsonen laneratzeari hobetzea; eta enplegu-politika aktiboak planifikatu eta garatzeko egiturak eta tresnak arautzea.

Lege horren onarpenaz gain, aipatu beharrezkoa da halaber Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2017ko maiatzean proposamen multzo bat aurkeztu zuela, gaur egun Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duten neurriak aldatzeko. Proposamen horren xedea da Euskadin 80ko hamarkadako krisiaren ondoren abiarazi zen eredia mantendu eta hobetzea, hark duen legitimotasun soziala eta jasangarritasun ekonomikoa bermatuz datozen urteetarako. Testuinguru horretan, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko 18/2008 Legea erreformatzeko lanari ekin zaio orain eta horrek, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren antolamenduan egin daitezkeen aldaketekin batera, moldakuntzak erakar ditzake bestelako prestazio batzuetan edota gizarte-bazterketaren kontrako euskal politiken erakunde arteko koordinazioan.

Azkenik, Plan honen erreferentziatzeko esparru juridikoaren osagaitzat hartu behar dira halaber EAEko gainerako herritarren eskubideak –osasuna, hezkuntza eta abarri buruzkoak– arautzeko ezarrita dauden erregulazioak, gizarteratzeko eta gizarte-bazterketako prozesuekin zuzeneko zerikusia dutenean.

2.2.2. Eskumen-eremua eta jarduera-alorren mugaketa

Nolanahi ere, Planaren jarduera-alorrek mugatzeari eta haren eskumen-eremuari dagokienez, gogoan izan behar dira diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Legeak (abenduaren 23ko 18/2008) zer xedapen jasotzen dituen Gizarteratzeko Euskal Planaren edukien inguruan eta, era orokorragoan Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren eraketaren inguruan. Gogoeta hori beharrezkoa da kontuan hartzen badugu –Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren ebaluazioan azaltzen denez– Planaren defizit nabarietako baten arrazoia zela ez zela behar adina hausnartu gizarteratze poli-

³Eskubide horietarako sarbidea, gainera, eskubide bikoitzaren printzipioa aintzat hartuz planteatzen da, eta hori dela-eta, bi eskubide aitortzen zaizkie pertsonari: bizitzaren oinarriko beharrei aurre egiteko behar beste baliabide ekonomiko eskuratzeko eskubidea, baita gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalizatuak izateko eskubidea ere.

tiken «perimetroa»ri buruz, hau da, Plan harekin erdietsi nahi ziren politika publikoei buruz⁴.

Xedeari dagokionez, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planari buruzko 18/2008 Legearen artikulua zera agintzen du: «era koordinatuaz eta globalaz jasoko ditu administrazio eskudunen jarduera orientatzeko esku-hartzeko eta jarduteko jarraibideak, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzea lor dadin». Egiteko erari dagokionez, Legeak esaten du Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak egingo duela planaren proposamena, eta Eusko Jaurlaritzak onartuko duela; aurrez Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak nahitaezko txostena egin ondoren, eta, onartu eta gero, Jaurlaritzak horren gaineko jakinarazpena egin beharko diola Eusko Legebiltzarrari.

Legeak esaten du halaber Gizarteratzeko Euskal Planak honako ezaugarri hauek izango dituela: a) gizarteratzeko eta laneratzeko beharrezko diagnostikoan eta haien eboluzioaren pronostikoan oinarrituko da; b) helburuak, ardatz estrategikoak eta horietako bakoitzeko ekintzak definituko ditu, garatzeko eta lortzeko epeak ezarriko ditu eta horretarako erakunde edo organo eskudunak zein diren zehaztuko; c) plana bera modu sistematiko eta jarraituan ebaluatzeko mekanismoak ezarriko ditu. Azkenik, bi kontsiderazio gehitzen dizkio Legeak Planaren edukari: a) Planarekin batera, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, eta han zehaztuko da zein aurreikuspen ekonomiko aldatu beharko diren urtero, helburuen ebaluazio sistematikoaren eta planaren aplikazioaren segimenduaren arabera; eta b) euskal administrazio publikoek Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko beste plan batzuen arteko koherentzia eta sinergiak bultzatuko dituzte, batez ere plan horren eta gizarte-zerbitzuetako eta enplegu-, hezkuntza-, etxebizitza-, osasun- eta arreta soziosanitarioko planen artekoak.

Gizarteratze-politiken «perimetroari» dagokionez, aipatutako Legeak arautzen du Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemak oinarritzko bi osagai izango dituela:

- Prestazio ekonomikoak, eta horien artean DSBE, EPOa eta gizarte-larrialdietako laguntzak, hau da, gizarte-bazterketa egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz apartekoei, aurre egiteko ahalbide nahikorik ez duten pertsonentzako laguntzak.
- Gizarteratzera eta laneratzera berariaz bideratutako baliabideak, eta hauen artean espresuki aipatzen dira:
 - o Gizarteratze aktiboko hitzarmena, gizarteratzeko nahiz laneratzeko beharrezko ekintzen multzoa antolatzeke oinarritzko tresna izango dena, eta laneratzeko prestakuntzara eta gaikuntzara bideratuko dena bereziki.
 - o Esku hartzeko neurri bereziak: gizarte-babeseko hainbat alorretako programa, zerbitzu edo zentroak izan daitezke, bereziki, gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek auto-

⁴Ebaluazioan bertan aditzera ematen zen moduan, gorabehera hori bereziki funtsezkoa da gizarte-bazterketaren aurkako politiken alorrean, hain zuzen ere gizarte-babeseko sistemako beste politika batzuetan ez bezala –Hezkuntzakoetan, Osasunekoetan, Gizarte-Segurantzakoetan edo, baita, Gizarte Zerbitzuetakoetan ere–, gizarteratze-sisteman ez baitago behar bezainbeste definitutako katalogo edo zerbitzu-zorro bat. 12/2008 Legearen helburua hau da: «Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema indarrean jartzea, sistema autonomo gisa, osotasun koherente eta integratu bat duela. Hainbat kudeaketa-formula egon daitezke; gaur egun gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen barruan daude, baina aurrerantzean, egoki iritzi gero, beste jardueraren eremu batzuetan sar litezke, osorik edo zati batean»; hala ere, egia da oraingo ezin dela esan gizarteratzeko prestazio edo zerbitzuen berariazko zorro autonomo bat badela, baizik eta badirela, gehienera ere, diru-sarrerak bermatzeko hainbat prestazio eta lanbidean sartzeko eta sustraitzea helburutzat duen egitasmo-multzo nahasi bat. Horregatik, planifikazio-lanketa bati ekin nahi zaion bakoitzean, zehaztu egin behar izaten da zein elementu, politika, programa edo beharrezkoak heldu nahi zaien.

moki antolatutakoak, eta, konbinatuta, gizarteratzeko eta laneratzeko hitzarmenean aplikatu daitezkeenak⁵.

Gainera, Legearen 75. artikulua esaten du «Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta daudenak gizarteratzeko eta laneratzeko, beharrezkoa da, batetik, programak, zerbitzuak edo zentroak ezartzea enpleguaren esparruan, laneratzeko jarduerak antolatu ahal izateko gizarteratze aktiboko hitzarmenen esparruan eta, bestetik, programak, zerbitzuak edo zentroak ezartzea gizarte-babesaren beste esparru batzuetan, bereziki, gizarte-zerbitzuetan, osasun-zerbitzuetan, hezkuntza-sisteman eta etxebizitza-zerbitzuetan».

Eta zehazkiago, 77. artikulua zera arautzen du: «euskal administrazio publikoek, prestakuntza eta enplegu-arloetan dituzten eskumenen esparruan, laneratzeko laguntzeko neurriak arbitratu beharko dituzte pertsona edo talde jakin batzuentzat, hain zuzen ere, haien ezaugarriak direla-eta lan-merkatuan berdintasunez sartzetik ez dutenentzat edo sartzeko zailtasunak dituztenentzat. Neurri horien artean hauek egon daitezke: lanerako prestakuntza, laneko bitartekotza, lan-merkatuan sartzeko laguntza eta babesa, enplegu lagundua, laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza, baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta daudenentzako enplegu-zentro bereziak irekitzeko laguntza, lan-merkatu arruntean baztertuta dauden pertsonen kontratazioa bultzatzea, kontratu publikoetan klausula sozial batzuk sartzeko, baztertuta edo lan-merkatuan sartzeko bidean daudenak kontratatzen dituzten erakundeei lehentasuna ematen dietenak; familia eta lana uztartzeko politiken esparruko laguntza-neurriak, lan-merkatuan sartzen laguntzeko finantziatze-tresnak sustatzea».

Azkenik, Lege horren 78. artikulua esaten du «gizarteratzea gizarte-babeseko sistemek eta politika publikoek partekatzen duten helburua izanik, helburu hori lortzera zuzendutako neurriak antolatu beharko dira, haien oinarritzko eremu guztietan, batez ere hezkuntza-, gizarte-, osasun- eta etxebizitza-politika publikoko zerbitzuetan».

Laburbilduz, GAEParen eraginpean geratu behar luketen politika publikoen mugaketari dagokionez, esan liteke 18/2008 Legearen interpretazio murriztaile batek zilegituko lukeela dimentsio-aniztasun mugatua lukeen Gizarteratze Aktiboko Euskal Plan bat egitea, alegia, prestazio ekonomikoak eta laneratzeko baliabideak ardatz lituzkeena, gizarteratze aktiboko hitzarmenen bitartez egikarituta, eta bazterketa-egoeran daudenentzat soilik liratekeelarik. Legeak elementu horietan ezartzen duen enfasiak eta gizarteratzearen gainerako osagaiei eskaintzen dien gainazaleko trataerak zilegituko luke horrelako jarraibide bat.

Hala eta guztiz ere, aldi berean, Legearen formulazioak berak arrazoitzen du Planaren orientabide multidimentsionala, hain zuzen ere: a) hezkuntza, gizarte-zerbitzu, osasun eta etxebizitzako politika publikoetan eskatzen diren jarduketak Plan horretan egon litezke edo egon beharko lukete; b) azpimarratzen da euskal administrazio publikoek Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko beste plan batzuen arteko koherentzia eta sinergiak bultzatu beharra; eta c) aitortzen da gizarteratzea helburu partekatua dela gizarte-babeseko sistema eta politika publikoen artean.

⁵Legearen 65. artikulua honela definitzen ditu gizarteratzeko hitzarmenak: egitaraua ezartzen duten agiriak, izan ere, horietan parte hartzen duten aldeek zein ekintza espezifiko –gizartekoak zein lan-arlokoak– egin beharko litzatekeen ezartzen dute, titularrak eta bizikidetzak-unitateko gainerako kideek baztertuta geratzeko arriskua edo bazterketa prebenitzeko, eta haien gizarteratzea eta laneratzeko errazteko.

Aurrerago adierazten den moduan, Gizarteratzeko IV. Euskal Planak bigarren ikuspegi horren aldeko hautua egiten du, arrazoi hauengatik: a) lehen azaldu den kontzeptu-esparrua; b) Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legean bertan esaten dena; eta c) mintzakide izan diren agenteek planteatutako aukera, haietako gehienek adierazi baitute Gizarteratze Plan integrala, multidimentsionala eta erakunde artekoa egin behar zela.

2.3. Beste estrategia, plan eta araudiekiko koherentzia

18/2008 Legeak agintzen du, edonola ere, euskal administrazio publikoek Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakundeen eta sailen arteko beste plan batzuen arteko koherentzia eta sinergiak bultzatu beharko dituztela; batez ere gizarte-zerbitzu, enplegu, hezkuntza, etxebizitza, osasun zein gizarte- eta osasun-arretaren arloko planekin. Ikuspuntu horretatik –eta beste estrategia, plan eta araudiekin ahalik eta koherentzia estuena bermatze aldera– beharrezkoa da identifikatzea zein diren lehendik abiarazita dauden planetatik gizarteratzeko eta gizarte-bazterketako egoeretan zeintzuk diren eragin garbia dutenak, eta haien baitan, nolako jarduerak aurreikusten diren, eta zein diren berehalakoan garrantuko diren gorabehera hauekin zerikusia izan dezaketen planak. Horrela lor baitaiteke:

- alde batetik, Gizarteratze Aktiboko IV. Planaren baitan biltzea beste plan batzuetan jada jasota dauden jarduketak GAEPen helburuak erdietsi ahal izateko garrantzitsuak direla iritziz gero.
- bestetik, ahalik koherentzia handiena bermatzea gizarteratze eta gizarte-bazterketako egoerekin zerikusia duten politiketan administrazio publikoetatik landu daitezkeen beste estrategia, plan eta araudiekin.

Gizarteratze eta gizarte-bazterketako egoerekin zerikusi zuzena duten Eusko Jaurlaritzaren planak eta estrategiak eta, bide batez, Gizarteratze Planaren barneratuta geratu behar dutenak ondorengo hauek dira⁶:

- **Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020 (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).** Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020 egitasmoak maila operatibora eramaten ditu EEE-Enpleguaren Euskal Estrategia 2020an zehazten diren jarraibideak, Eusko Jaurlaritzaren baitan enplegua sustatzearekin zerikusia duten zerbitzuak eta programak kudeatzen dituzten sailen lan-tresna izan dadin, betiere enplegua adiera zabalean hartuz, hau da, lanarekin, hezkuntzarekin eta ekonomia-aren sustapenarekin zerikusia duten dimentsioak ere bilduz. Planaren abiapuntua lan-merkatuko eta enplegu-politiken funtzionamenduko hainbat ahuleziaren identifikazioa da⁷, eta bederatzi helburu estrategiko ezartzen dira:
 - o Enplegua bultzatzea, behartsuenen eta gazteen egoeran atentzio berezia ipiniz.
 - o Laneratzea sustatzea Udal eta Eskualde mailako Planen bidez.

⁶ Egin den diagnosi-txostenak plan eta estrategia horien edukiaren azterketa zehatzagoa jasotzen du.

⁷ Alde horretatik, hainbat gorabehera zerrendatzen dira, esaterako: a) aktibitate-tasa baxua; b) behin-behinekotasun handia eta enplegu finkoaren eta behin-behineko enpleguaren arteko bikoiztasun altua; c) nahi gabeko partzialtasuna; d) gazteen langabezia handia; e) iraupen luzeko eta oso luzeko langabeziaren kronifikazioa; f) desgaitasuna duten pertsonen egoera; g) laneratze laguntza-zerbitzu pertsonalizatuetan eta enpresekiko harreman eta zerbitzuetan defizita duen Euskal Enplegu Zerbitzua; h) defizita etengabeko ikaskuntzan, bai kantitatez eta bai kalitatez.

- Enplegurako prestakuntza areagotzea, bai langabe daudenentzat eta baita landunentzat ere, aintzakotzat hartuz Ezagutzaren Ekonomian prestakuntza dela enplegurako bermerik onena.
 - Ekintzailtza modu integralean ahalbidetzea, gure gizarterako hark duen garrantzi estrategikoa agerian ipiniz.
 - Turismoaren garapen jasangarriak, tokiko merkataritzaren kontsolidazioak eta lehen sektorearen eguneratzeak, baita ekonomia sozialaren garapenak ere, enplegua sortzeko duten gaitasuna aprobetxatzea.
 - Etxebizitza eta ekipamendu publikoen zaharbertzearekin lotutako «Renove» programen aktibatzea suspertzea, enplegu-sorrera intentsiboa erakartzen duten jarduerak direla kontuan hartuz.
 - Enpresa-munduarekin lotuago egongo den hezkuntza-sisteman sakontzen jarraitzea, bai lanbide-gaitasunak lortzeko eta baita hezkuntza-alditik lanbidera igarotzea errazteko.
 - Enpleguaren kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren neurriak eta baldintzak zaindu eta sortzea, euskal langileek egonkortasuna, segurtasuna eta ibilbide profesional motibatzaileak eta atseginak garatzeko aukerak izan ditzaten, baita langileek kudeaketan, irabazietan eta jabetzan parte hartzeko aukera ere izan dezaten.
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, enpleguaren euskal politikako tresna operatibo nagusia den heinean, egiten duen balio-ekarpena hobetzea, pertsonen eta enpresei zerbitzu integratuagoak eskainiz, «ibilbidea» kontzeptua nabarmenduz bereziki.
- **Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).** EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2016 / 2019) egitasmoak bi eratako xedapenak ditu: alde batetik, berriaz Plan Estrategikoari dagozkionak, eta bestetik, Gizarte Zerbitzuen Maparen hedapenari buruzkoak. Plan Estrategikoari dagozkionez, bost ardatz ditu, eta 32 helburu estrategikotan banatzen dira. Gizarte Zerbitzuen Mapari dagokionez, Plan estrategikoak zehazten du bazterkia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arretara bideratutako Zerbitzu Sozialen Katalogo zerbitzu-mota edo zentro bakoitzerako bai haren lurralde-hedapenerako egokitzat jotzen den lurralde-esparrua⁸, hurbiltasun-mailaren arabera, bai 2017an erdietsi behar lukeen gutxieneko biztanle-estaldura, baita erreferentetzat hartu behar liratekeen adin-tarteak ere.
- **Osasun Plana 2013-2020 (Osasun Saila).** 2013an egin eta 2020ra arte indarrean den Osasun Planak –Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020– jasotzen du bere printzipioen artean, gizarte-determinatzaileek eta desberdintasun sozioekonomikoek, osasunarekin zerikusia duten hainbat gaitan (morbilitatean, hilkortasunean, eta abarretan) determinatzaile sozialek eta desberdintasunek duten garrantzia identifikatuzetik abiatuz, ekitatearen irizpidea, hau da, sozialki, ekonomikoki, demo-

⁸ Hori dela eta, esan behar da hiru lurralde historikoetan eratu direla jada Planak aurreikusten dituen oinarriko zonaldeak, eremuak, eskualdeak eta sektoreak.

grafikoki edo geografikoki zehaztutako biztanle-taldeen artean gaixotasuneko eta osasuneko alde sistematiko eta saihegarririk ez egotea⁹.

- **Adikzioen VII. Plana (Osasun Saila).** Adikzioen VII. Planaren helburu nagusia da ahal den heinean murriztea, ekitatearen ikuspegitik, substantzia mendekotasun-sortzaileen kontsumoa eta jokabide-adikzioak eta, ondorioz, pertsonen eta haien familien, zein komunitatearen eta, oro har, biztanleriaren osasunean dituzten efektuak. Horretarako, bost jarduketa-ardatzetan egituratzen da Plana; horietatik hiru, hezkuntza eta prebentzioari, eskaintza murriztu eta kontrolatzeari eta laguntza zein gizarteratzeari buruzkoak dira, eta beste bi zeharkakoagoak, alor horretako koordinazio instituzionalarekin eta ezagutzaren garapen eta kudeaketarekin erlazioatuta baitaude.
- Hein horretan, 1. ardatzaren (Prebentzioa eta Osasun ona bultzatzea) helburuak dira osasun ona bultzatzea eta inguru, jarrera eta bizimodu osasungarriak sustatzea eta, aldi berean, babes-faktoreak indartzea, adikzioen eragina eta prebalentzia murriztea eta adikziora garamatzaten arrisku-faktoreak eta -jokabideak minimizatzea. Bestalde, 3. ardatzaren (Osasun laguntza eta laguntza soziosanitarioa eta gizarteratzea), helburuak dira adikzioetatik eta arazoak sortzen dituzten jokabide eta kontsumoetatik sortutako arriskuak eta kalteak murriztea, Euskadiko osasun- eta zerbitzu-sarearen bitartez, eta adikzioen fenomenoak eragiten dituen laguntza beharrei erantzun jarraitua, koordinatua eta eraginkorra ematea.
- **Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitu eta murrizteko euskal estrategia (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).** Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitu eta murrizteko euskal estrategia Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak sustatzen du eta muturreko bizitegi-bazterketa pairatzen duten pertsonak artatzeko eredia aldatzea du helburutzat, etxerik gabeko pertsonak artatzeko eredu tradizionalak dituen ahulguneak identifikatzetik abiatuz. Estrategiak ehun bat jarraibide proposatzen ditu muturreko bizitegi-bazterketako egoerak prebenitu eta konponbidean jartzeko ildoan, eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek – batez ere etxebizitza, gizarteratzea eta gizarte-zerbitzuekin zerikusia dutenak – hartu dute parte egitasmoan, udal ugarirekin eta hiru Foru Aldundiekin batera.
- **Familia eta Haurtzaroan Inbertitzeko Euskal Ituna eta Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).** Familian eta Haurtzaroan Inbertitzeko Euskal Estrategia abiarazteko Erakunde arteko Ituna egiturazkoak diren bi egitateri erantzuna emango dieten politikak gauzatzeko pakete egituratu bat eratu beharrean oinarritzen da: alde batetik, jaiotze-tasa baxuei eta, batez ere, pertsonen familia-egitasmo bati ekin eta nahi besteko seme-alaba kopurua izateko zailtasunak ezartzen dituzten eragozpenen iraunkortasunari aurre egiteko; eta bestetik, seme-alabak dituzten familiek dituzten zailtasun ekonomiko areagotuei, eta horren ondorio nabarmenetako bat den haur-pobreziaren hazkunderari, eta pobrezia belaunaldiz belaunaldi transmititzearen kateari aurre egiteko.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana (Emakunde).** Gizarteratzeko IV. Euskal Plan hau egiterakoan informazio eta herritarren partaidetza-fasean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak

⁹Osasunean ekitatea lortzeko, osasun-potentziala osotasunean garatzeko aukera bera izan behar dute pertsona guztiek, edozein direla pertsona horietako bakoitzaren ezaugarri sozialak (maila soziala, generoa, bizitokia, lan-mota, diru-sarrerak, ikasketa-maila, egoera administratiboa edo jatorrizko herrialdea).

baditu gizarteratze-politiken esparruan interes berezia duten bi ardatz: emakumeak ahalduntzeari laguntza ematea eta ekonomiak eta gizarte-antolamendua aldatzea, eskubideak bermatu ahal izateko. Ardatz horien harira, hiru jarduketa-ildo aurreikusten dira Plan honen ikuspegitik elementu erabakigarriak ukitzen dituztenak: a) baliabideak hobetzea, emakume guztien egoerek, esperientziek eta beharrek eragina izan dezaten haiek eraldatzeko, batez ere desberdintasunik handienak dituzten baliabideen kasuan; b) enplegu gehiago eta hobeak sortzea; eta c) pobrezia-aren feminizazioa murriztea.

- **Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen sustapen-estrategia (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).** Euskadiko Hirugarren Sektorearen sustapen-estrategia ere eginbidean dago eta, besteak beste, honako helburu hauek ditu: a) Euskadiko sektore publikoaren eta gizarte-sektorearen arteko lankidetzaren sendotzea; b) EHGSko erakundeetan erkidego-eredua sendotzea, haien nortasunaren eta ekarpenaren ezaugarri funtsezkoetako izan dadin, eta arreta are hurbilago, integralago, jarraikorrago, pertsonalatuago eta parte-hartzaileagorantz urratsak egitea gizarte-ekintzaren alorrean; eta c) gizarte-ehundura sakontzea, elkarre txiki eta ertainei arreta berezia eskainiz. Estrategiaren abiapuntua gizarte-ekintzaren alorrean ardura publikoko zerbitzuen hornidurarako eredu mistoaren onarpena da, eta Plan honetan aintzat hartzen diren alorretan kokatutako ekinbide zehatzak planteatzen dira –esate baterako, etxebizitza-programa sozialak sustatzea, eta gizarteratzeko etxebizitza-sare bat sortzea, edo kirol- eta kultura-jardueren bidez integratzeko eta gizarteratzeko programa pilotuak diseinatu eta martxan jartzeko asmoa–, eta azpiegitura sozialak sustatzeko plan bat lantzea ere bai.

Aipatutako plan horiekin batera, gogora ekar ditzakegu halaber XI. Legegintzaldirako Gobernuaren planen egutegian datozen ondorengo plan estrategiko eta sail-mailako hauek, gehientsuenak eginbidean daudenak une honetan.

- Immigrazioko Euskal Estrategia (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).
- Boluntarioratzeko Euskal Estrategia 2017 – 2020 (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).
- Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza-arretarako II. Plana, eskola-eredu inklusibo eta kultura artekoaren barruan, 2016-2020 (Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).
- IV. Gazte Plana (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).
- Bizitza Osoko Ikaskuntza Plana (Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).
- Etxebizitza Plan Zuzendaria 2018–2020 (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila)
- Plan Estrategiko Soziosanitarioa 2016–2020 (Osasun Saila).

Azkenik, esapidearen adiera hertsian planifikazio-dokumentua ez bada ere, aipatu beharrezkoa da hala ere XI. Legegintzaldirako Gobernu-programa, Euskadi 2020. Programa horrek helburu zehatz bat jasotzen du Plan honetan jasotako gaiei dagokienez, baita hainbat jarduketa eta konpromiso ere. Bide batez, gobernu-programak jasotzen duen integratze- eta berdintasunerako agendak proposatzen du «arreta berezia jartzea inklusioa sustatzen duten politika publikoen garapenean, baita kalitatezko gizarte zerbitzu iris-

garriak bermatzea ere». Printzipio horietatik abiatu, Euskadin pobrezia % 20 murrizteko erronka ipintzen dio bere buruari gobernu-programak. Gobernu-programak jasotzen dituen konpromiso eta ekimenen artean azpimarra ditzakegu, besteak beste, ondorengo konpromiso hauek:

- diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatzea;
- gizarte-prestazioen eta politiken kudeaketa osoa aldarrikatzea;
- gizarte-larrialdiko laguntzak bermatzea;
- gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatzea;
- Lanbide berritu eta modernizatzea;
- gazteen laneratzea sustatzea;
- gizarte-ekonomiaren aldeko apustua egitea;
- energia-pobretasunari aurre egitea;
- gizarte-itun bat egitea immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka;
- Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatzea;
- eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egitea, bikaintasunerantz aurrera egiteko;
- oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren handiagoa lortzea gure ikastetxeetan;
- berdintasuna bermatzea hezkuntza-sisteman sartzean;
- emakumeen aurkako indarkeria erauzteak;
- gizarte-erantzukizuna zaintzea kontratazio publikoan.

2.4. Nazioarteko beste estrategia eta planekiko koherentzia

a) Gizarteratze Planak Europako araudiarekin duen lotura.

Bestalde, Plan hau Europako Batzordeak eta EBko gainerako erakundeek egin dituzten gomendioen ildoan kokatzen da zuzen-zuzenean, baita gizarte-inbertsioaren paradigmari eta Eskubide Sozialen Europako Zutarriari dagokienez ere.

Gizarte-inbertsioaren paradigma da gaur egun Ongizate Estatuak pairatzen dituen zailtasunei Europako erakundeek ematen dioten erantzun ofiziala. Ikuspegi horrek elkartu nahi ditu garapen ekonomikoa, babes soziala eta desberdintasunen murrizketa, batez ere epe luzera, emakumeari lan-merkatuan sarbidea emanez, giza kapitalean inbertituz eta pertsona ez aktiboak lanerako aktibatuz. Haren bereizgarri nagusia da enfasia konpontzera

bideratutako politiketatik prestakuntza helburu dutenetara aldatzen duela –behin baino gehiagotan esan eta berresan da gizarte-inbertsioak bizitzako arriskuei aurre egiteko gai izan daitezen «lagundu» egiten dituela pertsonak, ondorioak «konpontze» hutsean geratu ordez¹⁰–, aintzat hartuz familia, hezkuntza eta genero-berdintasuneko politikak, eta enpleguko politika aktiboak, funtsezko osagaiak direla garapen sozialerako ez ezik garapen ekonomikorako. Ikuspuntu horretatik abiatuta, joera horrek arreta ipintzen du haurtzaroan inbertitzea ahalbidetzen duten zerbitzuetan, nola edo hala aukera- eta abiapuntu-berdintasuneko baldintzak sor daitezen, seme-alabak dituzten familiei laguntzak ematen eta emakumeek enplegu ordaindian sarbidea izan dezaten errazten. Esparru horretan, Europako Batzordeak gomendatzen die Batasuneko kide diren Estatuak, besteak beste:

- islatu dezatela hobeto gizarte-inbertsioa baliabideen esleipenean eta gizarte-politikaren arkitektura orokorrean. Horrek esan nahi du arreta gehiago eskaini behar zaiela haien politiketan zenbait gairi, esaterako, zaintzari (haurtzaroarenari), hezkuntzari eta prestakuntzari, lan-merkatuko politika aktiboari, etxebizitzaren babesari, zaharberritzeari eta osasun zerbitzuei;
- has daitezela berehala gauzatzen bere osotasunean Batzordeak gizarteratze aktiboak egin ziren Gomendioa (2008) haren hiru zutarrak elkartuz: errenta-laguntza egokia, lan-merkatu inklusiboak eta zerbitzuetarako sarbideak;
- eratu ditzatela gizarte-zerbitzu eraginkorrak, kalitate handikoak, eskuragarriak eta EBko araudiarekin bat datozenak eduki ahal izatea bermatuko duten esparru juridikoak;
- ezaba ditzatela gizon eta emakumeen arteko soldata-desberdintasunak, eta emakumeen eta lan-merkatuan ordezkaritza eskasegia duten beste langile batzuen parte-hartzeari ezarritako eragozpenak erauz ditzatela;
- etxe-gabeziaren aurka borroka egin dezatela prebentzioan oinarritutako estrategia integralekin, etxebizitzara begira eta etxegabetzei buruzko araudiak eta praktikak berrikustera bideratutako ikuspegiekin, etxe-gabeziari aurre egiteko jarraibideen ondorio funtsezkoenak aintzat hartuz;
- has daitezela gauzatzen «Haurtzaroan inbertitu: desabantailen soka eten» Gomendioa era integratuan, diruz eta gauzak ematen diren prestazioak elkartuz lehen haurtzaroko hezkuntzarako sarbidearekin eta kalitatezko osasun- eta gizarte-zerbitzuekin;
- jorra ditzatela desberdintasunak haurtzaroan, eskola-segregazioa ezabatuz eta behar berezietako hezkuntzaren erabilera okerrak desagerraraziz;
- eman diezaietela ikusgarritasun gehiago lehen haurtzaroko hezkuntzari eta zaintzari, haurren zaintzari buruz eta EBk lehen haurtzaroko hezkuntzari eta zaintzari buruz dituen helburuen inguruan Bartzelonan adostutako helburuak betetze aldera;
- aintzat har ditzatela pertsona behartsuenen behar ezberdinak, batez ere eskualde pobre eta isolatuetan bizi direnenak.

¹⁰ Brusela, 20.2.2013 COM(2013) 83 amaiera.

Gizarteratzeko IV. Euskal Plana ere eskubide sozialen Europako zutarran oinarritzen da. *Eskubide sozialen Europako zutarrari buruzko erakunde arteko adierazpen-proposamenak*¹¹ dioenez, eskubide sozialen Europako zutarraren helburua da gidalerroa izatea emaitza eraginkorrak lortzeko gizarte-mailan eta enplegu-mailan, egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko eta biztanleen oinarritzko beharrak ase ahal izateko eta, aldi berean, gizarte-eskubideen erregulazio eta aplikazio hobea bermatu ahal izateko. Dokumentuak dioenez, «eskubide sozialen Europako zutarraren helburuak betetzea Batasunak, Estatu kideek eta mintzakide sozialek partekatzen duten konpromisoa eta ardura da. Eskubide sozialen Europako zutarran jasotzen diren printzipioak eta eskubideak aplikatu beharrekoak dira bai Batasun mailan eta baita Batasuneko kide diren Estaturen barruan, bakoitzak bere eskumenen esparruan eta subsidiariorotasun-printzipioaren arabera». Eskubide sozialen Europako zutarrari osatzen duten elementuetako asko daude Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren oinarrian.

- **Hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza**
Pertsona orok du hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboak eta kalitatezkoak izateko eskubidea, hartara gizartean osoro parte hartzea zilegituko dioten gaitasunak landu eta lortzeko eta lan-merkatuan trantsizioak arrakastaz kudeatu ahal izateko.
- **Genero-berdintasuna**
 - a) Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna bermatu eta sustatu egin behar da esparru guztietan, baita lan-merkatuan parte hartzekoan ere, eta lan- eta enplegu-baldintzetan eta ibilbide profesionaleko aurrerabidean.
 - b) Emakumeek eta gizonek ordainsari berdinak jasotzeko eskubidea dute bario berdineko lanarengatik.
- **Aukera-berdintasuna**
Bere generoaren, arraza- edo etnia-jatorriaren, erlijioaren edo sinesmenen, desgaitasunen, adinaren edo sexu-joeraren gaineratik, pertsona orok eskubidea du tratu- eta aukera-berdintasuna izateko enpleguari, gizarte-babesari, hezkuntzari eta jendeak erabiltzeko dauden ondasun eta zerbitzuak eskuratzeari dagokienez. Behar baino ordezkari txikiagoa duten gizataldeen aukera-berdintasuna sustatu egin behar da.
- **Enplegurako laguntza aktiboa**
 - a) Pertsona orok du laguntza pertsonalizatua eta egokia jasotzeko eskubidea, enplegua lortzeko edo bere kontura lan egin ahal izateko dituen aukerak hobetzeko. Enplegua bilatzeko, prestakuntzarako eta birziklapenerako laguntza jasotzeko eskubidea barneratzen da hor. Pertsona orok du eskubidea gizarte-babesaren transferentzia lortzeko eta bere lanbide-trantsizioetan prestakuntza jasotzeko.
 - b) Gazteek eskubidea dute hezkuntza jarraitua jasotzeko, eta apendiz moduan prestakuntza, praktika-aldia eta langabe geratu edo ikasketak amaitu ondorengo lau hilabeteetan kalitate oneko enplegu-eskaintza bat edukitzeko.
 - c) Langabeek eskubidea dute laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia jasotzeko. Iraupen luzeko langabeek eskubidea dute banakako ebaluazio zehatza lortzeko hemezortzi hilabete langabe daramatzatenean gehienez ere.

¹¹ Brusela, 26.4.2017 COM(2017) 251 amaiera.

- **Enplegu seguru eta moldagarria**
 - a) Edozein delarik lan-harremanaren mota eta iraupena, langileek eskubidea dute tratu gizalegezkoa eta ekitatezkoa jasotzeko lan-baldintzei eta babes sozialari eta prestakuntzari dagokienez. Sustatu beharko da mugarik gabeko iraupena duten enplegu-motetarako trantsizioa egin ahal izatea.
 - b) Legeariak eta hitzarmen kolektiboek agintzen dutenaren arabera, beharrezko malgutasuna ziurtatu beharko da enpresaburuak azkar molda daitezzen testuinguru ekonomikoaren aldaketatar.
 - c) Lan-molde berritzaileak sustatu beharko dira kalitatezko lan-baldintzak bermatu ahal izateko. Enpresa-espirtua eta norik beretzat lan egitea sustatu beharko dira eta mugikortasun profesionala erraztu beharko da.
 - d) Lan-baldintza eskasak zilegitzen dituzten lan-harremanak ekidin beharko dira, batez ere debekatuz kontratu atipikoen abusuzko erabilpenak. Probaldiek zentzuzko iraupena izan behar dute.

- **Soldatak**
 - a) Langileek eskubidea dute bizi-maila duina ahalbidetuko dieten soldata justuak jasotzeko.
 - b) Bermatu beharko da gutxieneko soldata egokia, langilearen eta haren familiaren beharrak asetzen zilegituko duena, baldintza ekonomiko eta sozialen arabera, eta aldi berean enplegurako sarbidea eta lana bilatzeko pizgarriak babestuko dituena. Landunen pobrezia ekidin beharko da.
 - c) Soldata guztiak modu gardenean eta aurreikus daitekeen eran finkatu beharko dira, nazio mailako praktiken arabera eta mintzakide sozialen autonomia errespetatuz.

- **Haurren laguntza eta babesa**
 - a) Hurrek eskubidea dute haur-hezkuntza eta -laguntza eroso eta kalitate onekoaz gozatzeko.
 - b) Hurrek eskubidea dute pobreziatik babestuta egoteko. Ingurumen behar-suetatik datozen hurrek eskubidea dute aukera-berdintasuna sustatzeko berariazko neurriak jasotzeko.

- **Langabezia-prestazioak**

Langabetuek eskubidea dute enplegu-zerbitzu publikoetatik aktibatze laguntza egokiak jasotzeko, lan-merkatuan (berriro) murgildu ahal izateko, eta zentzuzko iraupena izango duten desenplegu-prestazio egokiak jasotzeko, norberak egindako ekarpenen eta nazio mailan horiek emateko erabiltzen diren irizpideen arabera. Prestazio horiek ez diote sustagarririk kendu behar berriro lanera azkar itzultzeari.

- **Gutxieneko errenta**

Behar adinako ahalbiderik ez duen pertsona orok eskubidea du bizitzako aldi guztietan bizimodu duina bermatzeko adinakoak izango diren gutxieneko errentaren prestazioak jasotzeko, eta baita gaitzeko ondasun eta zerbitzuak eskuratu ahal izateko ere. Lan egin dezaketen pertsonen kasuan, gutxieneko errentaren prestazioak uztartu egin behar dira lan-merkatura (berriro) sartzeko pizgarriekin.

- **Pentsioak eta zahartzaroko prestazioak**
 - a) Besteren kontura eta norik bere kontura lan egiten duten langileek eskubidea dute erretiro-pentsio bat jasotzeko norberak egindako ekarpenen mai-

lako eta errenta egokia bermatuko duena. Emakumeek eta gizonek aukera berberak eduki behar dituzte pentsio-eskubideak lortzeko.

- b) Zahartzaroan dagoen pertsona orok eskubidea du bizimodu duina bermatuko dioten baliabideak edukitzeko.

- **Osasuna**

Pertsona orok eskubidea du osasun-laguntza eskuragarri eta kalitate onekoa izateko, prebentziora zein sendaketara bideratuta.

- **Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea**

Desgaitasuna duten pertsonak eskubidea dute bizimodu duina edukitzen lagunduko dien errenta-laguntza bat jasotzeko, lan-merkatuan eta gizartean parte hartzea zilegituko dieten zerbitzuak edukitzeko, eta beren beharretara egokitutako lan-ingurunea izateko.

- **Etixerik gabeko pertsonentzako etxebizitzak eta laguntza**

- a) Beharrezko dauden pertsonen etxebizitza sozialak edo kalitate oneko etxebizitza-laguntzak eskaini beharko zaizkie.
- b) Pertsona ahulek bortxazko etxegabetzeen aurrean laguntza eta babes egokia jasotzeko eskubidea dute.
- c) Etixerik gabeko pertsonen etxebizitza eskaini beharko zaie bizitegi bat eta zerbitzu egoiak haien gizarteratzea sustatu ahal izateko.

- b) 2030 Agenda eta Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017/20

GJH-Garapen Jasangarriko Helburuak mundu mailako deialdi bat dira pobrezia eta desberdintasuna erazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiak bakean eta oparotasunean bizi ahal izatea bermatzeko. 2015eko irailaren 25ean onartu zituzten munduko liderrek, Nazio Batuen Erakundearen baitan, garapen jasangarriko agenda berriaren osagaie-tako bat bezala, 2030ean lortu behar liratekeen helburu zehatzak proposatuz. 17 helburu horien barnean sartzen dira alor sozialak, laboralak, finantzarioak, ekonomikoak, klimatikoak, eta merkatuetara eta produkzio-aktiboetara iritsi ahal izatekoak. Alor horien artean ikus liteke gizarteratzea, edo haren gabezia.

Kontuan izanik 2017/2021 aldirako Gizarteratzeko IV. Euskal Plan honek deritzola ikuspuntu transbertsaleko gaia izan behar duela gizarteratzeak, arreta handiagoa ipiniz gizatalde ahuletan, hau da, haurrengan, emakumeengan, etorkinengan, adinekoengan eta desgaitasunak dituzten pertsonengan, 2030 Agendaren ildoan kokatzen da erabat.

Agendaren ardatz nagusietako bat da onartzea pertsonak daudela (edo egon behar luketela) garapen jasangarriaren (globala eta berneratzailearen) erdigunean. GJHren kezken baitan norbanakoa kokatetik ondorioztatzen da garapen jasangarria eskubide bat dela pertsona orok lortu eta erabili ahalko lukeena herrialde bakoitzak duen errealitatearen, gaitasunen eta garapen-mailaren testuinguruan. Beste era batera esanda, norbanakoa garapenaren erdigunean ipintzeak esan nahi du Agenda berri bat diseinatu eta abiarazteko oinarri-oinarrizko hainbat tasun aintzat hartu behar direla, esate baterako, estaldura unibertsala, oinarritzko zerbitzuen horniduraren kalitatea, politika publikoetan irizpide transbertsalak eta ekitatezkoak, hala nola dimentsio anitzeko neurketak, gardentasunez eta kontuak emateko giroz hornitutako ingurumen batean.

Xede eta helburu horietako gehienekin du zerikusia gizarteratze kontzeptuak, baina GJH bat ere ez berariaz eta zuzenean kideratzen kontzeptuarekin. Dena den, 10. GJHa, desberdintasun sozialari aurre egiteaz eta murriztu beharraz ari dena, zuzenean lotzen da gizarteratzearen arazoarekin. Haren baitako 10.2 xedean, helburua argia da horri dagokionez:

«Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien inklusio sozial ekonomiko eta politikoa indartzea eta sustatzea, edozein delarik ere beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera». Gizarteratze-helburu berariazkoa da hori, eta lorpen horrek gainera eragin zuzena eta zeharkakoa izango luke beste helburu batzuk ere lortzeko.

Labur esanda, 2030 Agendak garapeneko kontzeptu-esparru berri bat proposatzen du pertsonak erdigunean ipiniz eta jasangarritasunaren ikuspegi argiarekin. Gainera, unibertsaltasuna, berdintasuna eta giza eskubideen errespetua GJHen oinarritzko zutarrak dira, eta bereziki aipagarria da gainera gizarteratze sozial eta ekonomikoaren kontzeptua txertatu dela desberdintasunei eta pobreziaren egiturazko zergatiei aurre egiteko ardatz transbertsala izan dadin. Garapen jasangarriaren lehentasunezko alorrak izan behar lukete aukera-berdintasuna, babes-sistema unibertsalak, guztientzat aukera ekonomikoak sortzea eta, oro har, garapen inklusiboaren sustapena. Kontzeptu horiek guztiak ere 2017/2021 aldirako Gizarteratzeko IV. Euskal Plan honetan jasota daude.

3. Hastapeneko egoera

3.1. Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren ebaluazioaren emaitzak

Sarreran azaldu den moduan, Gizarteratzeko IV. Euskal Plana definitzeko abiapuntua 2012 eta 2016 artean landu den Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planari buruz egin den ebaluazioa izan da. Ebaluazio horren emaitzak hasiera batean proposatu ziren ebaluazio-galderetako bakoitzari eman zitzaizkion erantzunetatik eratorri dira.

a) *Bete al dira pobrezia eta bazterketa-egoerak murrizte aldera Planak berak ezartzen zituen helburuak?*

Planaren aplikazio-aldian izan den testuinguru sozioekonomiko makurraren ondorioz, batez ere, ezinezkoa izan da hark pobrezia-egoerak gutxitze aldera proposatzen zituen helburuak erdiestea. % 7,9an ezarria zuen helburuaren ordean, aintzat hartzen den AROPE adierazleak jasotzen dituen pobrezia- eta bazterketa-arriskuaren pean dagoen populazioaren zenbatekoa 2016an % 12,5ekoa zen –265.000 pertsona baino gehixeago– eta, beraz, argi eta garbi legoke ez dela lortu hasieran proposatutako helburua. Alderantziz, adierazle horretan jasotzen diren egoerak maila historikoki altuetan dauden oraindik ere 2016an, eta krisia aurreko balioak (2008) baino % 61 altuagoak dira. Hala eta guztiz ere, esan behar da adierazle horren gorakada handiena 2008 eta 2012 artean jazo zela eta, bidenabar, 2014 eta 2016 bitartean adierazle horrek beherantz egin duela zertxobait beheren.

Pobrezia/gabezia materialaren adierazleak ere Plana egin zenean aurreikusitakoa baino bilakaera negatiboagoa izan du. Aurreikusitako bilakaera bazen adierazlea 2016an % 4,7koa izango zela, egiatan 2016an % 8,3an kokatu da, hasiera batean aurreikusitakoaren oso gaineratik. Beste horrenbeste gertatu da Planaren inpaktua aztertzeko adierazleetako bati dagokionez: intentsitate baxuko edota lan-babesgabeziako egoeretan dagoen biztanleriaren zenbatekoa, hain zuzen.

Nolanahi ere, galdera horri erantzuteko orduan, beste bi gorabehera ere izan behar dira kontuan, gainera: alde batetik, garrantzitsua da azpimarratzea Planak aintzat hartu behar lituzkeen egoerak definitzen dituzten datuak hobetu egin direla Planaren indarraldiko azkenaldian edo, behintzat, hobera bidean ipini direla denboraldi horretan; eta bestetik, badirudela argi dagoela Planean ezarri ziren helburuak eta aurreikuspenak bete ez izana, funtsean, adierazle makroekonomikoen sorta handi batek aurreikusitakoa baino askoz bilakaera makurragoa izanaren ondorioa dela, eta hori Planaren beraren ahalmen-esparrutik kanpo geratzen dela. Izan ere, ezinezkoa bada ere zenbatzea adierazleen bilakaeraren eboluzio zehatza zein neurritan den gizarteratze-eremuan garatu diren politika publikoen ondoriozkoa eta zein neurritan den testuinguru sozioekonomiko orokorrean gauzatu diren beste politika batzuen edo egin diren beste aldaketan ondoriozkoa, begien bistakoa dirudi testuinguruko osagaririk gehienek urte horietan portaera negatiboagoa izan dutela Plana egin zen unean aurreikusten zena baino.

b) *Zer bilakaera izan dute pobrezia- eta bazterketa-egoerek –eta egoera horien sustraian dauden faktoreek– Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren indarraldian?*

Esan den moduan, aztergai diren adierazleetako askok hobera egin bazuten ere Planaren indarraldiko azken urteetan –seguruenera testuinguru sozioekonomikoak izan duen goraldia dela eta–, argi dago, lehen azaldutakoaren arabera, pobrezia- eta bazterketa-egoerek okerrera egiteko joera izan dutela Planaren indarraldian. Bilakaera hori, gainera, hurbileko testuinguru geografikoetan jazo dena baino okerragoa izan da, EAEko abiapuntua nabarmen hobea zelako, seguruenera. Nolanahi ere, alderatzen bada 2012ko egoera 2016koarekin, zera ikusten dugu:

- Pobrezia- eta desberdintasun-tasa orokorrek okerrera egin dute, edozein delarik ere haiek neurtzeko erabiltzen den adierazlea.
- Lan-merkatuari dagozkion adierazleek ere okerrera egin dute, batez ere iraupen luzeko langabeziari eta enpleguaren prekarietateari dagokionez.
- Errentarik baxuena duten gizataldeak izan dira egoeraren narriadura latzagoa pairatu dutenak.
- Alokairuko etxebizitza eskuratzeko kostuak garestitu egin dira, etxebizitza lortzeko beharra duen biztanleriaren portzentua bere horretan mantendu bada ere eta itxuraz murriztu egin da muturreko bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen zenbatekoa.

c) Zenbateko baliabideak bideratu dituzte administrazioek Planean aurreikusitako neurriak garatzera?

Gizarteratzeko politiketan egindako gastuen definizio zorrotza aintzat hartzen bada –hau da, halakotzat hartuz Gizarte Zerbitzuetako estatistikan alor horretako zerbitzuetara eta prestazioetara bideratuta agertzen dena–, euskal administrazioek 2012 eta 2015 bitartean 2.300 milioi euro bideratu zituzten guztira gizarteratzeko zerbitzu sozialetara, zenbateko horretan sartzen direlarik diru-sarrerak bermatzeko prestazioak¹². Horri gehitu beharko litzaizkioke beste 1.500 milioi, enplegu-politika aktiboetara bideratu direnak orobat. Gizarteratze-politikekin zerikusia duten baliabideen erabilpenaren inguruan azpimarratu daitezkeen alderdiak honako hauek lirateke:

- Urtea amaitzean DSBEn titularra den pertsona-kopurua % 10 handitu da urtero 2012 eta 2016 bitartean. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan dauden arreta-plazen kopurua, aldiz, murriztu egin da % 2,2, eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan lan egiten duten pertsonen kopurua % 0,5 besterik ez da hazi. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako langileen kopurua ere murriztu egin da.
- DSBera bideratutako gastua % 16 hazi da, eta GLLrako eta EPOrako gastua % 31; aldi berean, % 6 murriztu da gizarte-bazterketako alorrean arreta zuzeneko gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastua.
- Europako beste herrialdeekin alderatuta, begien bistakoa dirudi Euskadik zenbatekoa handi samarragoa gastatzen duela diru-sarrerak bermatzeko prestazioetan EBko herrialdeen batez bestekoaren aldean. Gainera, EB15ekiko aldea handitu egin da 2011 eta 2014 bitartean, eta EBko batez besteko gastuaren % 180 izatetik % 208 izatera igaro da. Alderantzikoa gertatzen da bazterketa-

¹² Kontuan hartzen bada oraindik datuak zenbatzeke dituen 2016. urtea, pentsa liteke zenbatekoa, guztira, 2.900 milioi ingurukoa izango dela azkenean.

egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzako arreta zuzeneko zerbitzuei dagokienez. Euskadiko gastua –jada 2011an Europakoa baino baxuagoa zena– murriztu egin da zertxobait bitarte horretan, Europakoa hazi egiten zen artean, eta horrela Europarekiko aldea handitu egin da eta euskal gastua gai horretan % 80koa izatetik % 73ko izatera igaro da.

d) *Administrazio publikoen, hirugarren sektorearen, enpresen edo oro har herriarren zein ekintzari egotz dakieke eragin negatiboa gizarteratze-prozesuetan?*

Egindako ebaluazioaren datuek ez dute ahalbidetzen galdera horri argi eta garbi erantzuterik. Edonola ere, galdera egin zaien pertsonetako batzuek egindako gogoetetatik azpimarra liteke gizarteratze-prozesuetan eragin negatiboa izan duten testuinguruko faktore nagusiak hiru izan direla:

- lan-merkatuaren eta lan-baldintzen narriadura –sektore guztietan eragin bertua izan ez duena, eta krisiaren aurretik ere ahultasun-egoeran bizi ziren pertsonen kasuan bereziki larria izan dena–;
- etxebizitzaren prezioaren gorakada, batez ere alokairukoarena, eta oinarritzko hornigaietako batzuen (batez ere elektrizitatearena); eta
- administrazioek gizarteratze-politiketara bideratzen dituzten baliabide ekonomikoen murrizketa edo behintzat mugaketa, Planaren gauzatze-aldi ia osoan iraun baitu aurrekontuen mugaketa-testuinguru orokorrak.

e) *Planaren hastapenean aurreikusten ziren helburuak lortu dira eta/edo zein dira lortu direnak, Planaren hasieran proposatutako helburuetatik?*

Esan daiteke –kontuan hartuz Planaren helburu kuantitatiboak ez direla objektiboki erdietsi eta galdera egin zaien pertsonak azaldu diguten iritzia ere aintzat hartuz– Planaren helburuak ez direla bete eta, ikuspuntu horretatik, GAEPak ez dituela lortu nahi ziren helburuak erdietsi. Aurrerago azalduko den eran, Planak jasotzen zituen neurrietako asko gauzatu badira ere eta pobrezia-egoerak prebenitzen eta murrizten eragin positiboa izan duten arren, III. GAEP ez da nahikoa izan gizarteratzeko politiken erakunde arteko artikulazioaren ikuspuntutik.

Galdera egin zaien pertsonen iritzia bat dator arestian egin dugun balorazio horrekin. Planaren inpaktu orokorra zenbatekoa izan den galdetu zainean –0 eta 10 arteko eskala batean, 0 litzatekeelarik oso balorazio negatiboa eta 10 oso balorazio positiboa–, erantzun duten pertsona horiek 4,29 puntuko batez besteko balorazioa eman diote Planari, nahikoaren azpitik. Gaiari buruz iritzia eman duten pertsonen erdiak ia, Plan horren inpaktuari buruz balorazio oso edo nahiko negatiboa egiten zuten.

Nolanahi ere, Planaren helburuetako bakoitzaren betetze-maila aztertzerakoan, guztizko balorazioa positiboxeagoa zen (2,7 puntukoa, 5etik). Helburuetako bakoitzaren betetze-mailari buruzko puntuaketak sailkatzen badira batez besteko puntuazioarekin alderatuz, ikusten dugu helburu horietako bi batez bestekoaren azpitik geratzen direla nabarmen; bost, batez bestekoaren paretsuan daudela; eta bi, nabarmen gorago:

- Nahikotasunetik gehien urruntzen diren helburuak dira diru-sarrerak bermatzeari eta enplegua izateari buruzkoak (2,24), eta etxebizitzarako sarbidea izateari buruzkoak (2,36).
- Puntuaziorik jasoena lortzen duten helburuak dira planifikazio estrategikorako azterlanak eta txostenak egiteari buruzkoak (2,96), eta Hirugarren Sektorea aintzat hartu eta sustatzeari buruzkoak (3,38).
- Erdibidean daude beste bost helburu estrategikoak: gizarteratzea bultzatzea Gizarte Zerbitzuen bidez aktibatuz (2,89 puntu), gizarteratzea sustatzea bizitza osoko hezkuntzaren bidez aktibatuz (2,88), gizarteratze aktiboa sustatzea osasun-zerbitzuen bidez (3,13), administrazioen arteko, sailen arteko eta sistema anitzeko koordinazioa eta lankidetzaren modu egonkorrean eratzea eta bultzatzea (2,50), eta indarrean dagoen arau-esparrua egokitzea (2,80).

Nolanahi ere, azpimarratu behar da Planaren lehen helburua –eta kualitatiboki garrantzitsua zena: gizarteratze eraginkorra sustatzea pertsonarik ahulenak enpleguaren bidez aktibatuz, pobrezia eta gizarte-bazterketa murrizteko, errenta-maila duina eta enplegagarriak diren pertsonen enplegu txukuna izatea ziurtatuz– dela, hain zuzen ere, puntuaziorik eskasena jaso duena eta galdera egin zaien pertsonengandik baloraziorik negatiboa izan duena.

f) Planaren zein neurrik izan dute inpakturik handiena pobrezia- eta bazterketa-egoerak prebenitu edo murrizterakoan?

Ebaluazio-txostenak agerian ipintzen du Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren inpaktuebaluazioa egiteak duen zailtasuna: prebenitu edo murriztu nahi ziren egoeretako batzuk zenbateraino aldatu diren aztertzea zilegi bada ere, ezinezkoa gertatzen da ebatzea identifikatzen diren aldaketa horiek ote diren 'Planari esker', 'Plana egin arren' edo 'Planarekin zerikusirik gabe'. Hainbat faktorek eragiten dute zailtasun hori:

- alde batetik, gizarte-politiken eremuan esku hartzeko edozein planek berezkoa duen zailtasunagatik, haren eraginak isolatzen eta zehazten zailak direlako maizenik, baldin eta ez badira lantzen ebaluazio-metodologia enpirikoak Planak jasotzen dituen berriazko jarduketei begira zehazki egindakoak.
- Planaren beraren diseinuak, jarraipen- eta datu-bilketako sistema bat ez duenez, ezinezko egiten du, bestalde, Planaren emaitzak eta gauzatzen diren neurrien inpaktua zehaztu ahal izatea.

Nolanahi ere, garrantzitsua da azpimarratzea Planaren jarduketetako batzuk burutu direla eta, gainera, eraginkortasun handikoak izan direla. Kasurik aipagarriena izango litzateke diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarena, DSBEk, GLLk eta EPOk osatzen dutena eta, ezbairik gabe, GAEPren jardun nagusietako bat dena, bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki. Horretan, egin diren ebaluazio eta analisisetatik funtsezko bi ideia ondorioztatzen dira:

- alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak pobrezia murrizteko duen gaitasuna, aztertutako edozein urtetan % 35 eta % 40 bitartean zenbaitesten baita pobrezia murrizteko. Hori dela eta, DSBEren eraginkortasunari buruz egin diren azterlanek adierazten dute prestazio hori erabakigarria izan dela Euskadin pobrezia prebenitu eta mugatzeko, eta gizarte-kohesio eta -ongizateko adierazle orokorrak hobetzeko ere. Hala eta guztiz ere, azterlan ho-

riek beroiek agerian ipini dituzte DSBEren mugapenetako batzuk, esate baterako, haren onuradunak diren pertsona guztiak pobreziatik ateratzeko zailtasuna, edota badela pertsona-multzo garrantzitsu samarra, premia-egoeran egon arren, prestazio hori ez duena¹³.

- bestetik, ez dela kontrako ondorioz identifikatu gelditasuna saritzeari dagokionez. Egin diren azterlanen arabera, DSBEk ez du onuradunen atzeratzen edo geldotzen. Hain zuzen ere, DSBE jasotzen duten langabeen % 3k ekiten dio hileroen enpleguari, langabeen orokortasunean % 9 denean. Hala ere, laneratasak parekatu egiten dira DSBE duten eta ez duten langabeen konparaketa egiten denean adinari, prestakuntzari, langabeziaren iraunaldiari dagokienez antzekoak diren langabeen artean. Egin diren azterlanek, halaber, esaten dute zehazki gizatalde horretara bideratzen diren berariazko aktibazio-neurriak eraginkorrak izaten direla prestaziotik enplegurako trantsizioa bizkortzeko.

Beraz, lehen azaldu dugun balorazio negatiboari ñabardurak ezarri behar zaizkio ezinbestez: egia da, Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planak –gizarteratze-eremuan euskal politiken definizioak, lehentasunak eta erakundeen arteko antolamenduak ezartzeko elementu legez– ez dituela lortu aurreikusten zituen helburu guztiak. Hala eta guztiz ere, Planaren baitan jasotzen ziren hainbat jarduketa arrakastatsuak eta eraginkorrak izan dira, eta horrek argitzen du zergatik EAEk duen egoera hobea Europako beste herrialde batzuen eta Espainiako beste Autonomia Erkidegoen aldean pobrezia, desberdintasunari edo gizarte-bazterketari dagokienez.

g) Noraino lagundu du Planaren diseinua eta jarraipena egiteko prozesuak hasieran planteatu ziren helburuak lortzen?

Ebaluazio-galderetako azkena bereziki garrantzitsua da Gizarteratze Aktiboko IV. Euskal Plana egiterakoan. Izan ere, hiru ebaluazio- eta/edo berregituraketa-prozesuren ondoren, pentsa liteke GAEPren gutxiegitasunak baduela zerikusirik bai haren kontzeptualizazio eta diseinuarekin, baita agente eskudunek, Planaren iraunaldi osoan, aurkitu dituzten zailtasunekin ere, hura sustatu eta haren buru izaterakoan, nola ikuspuntu teknikitik hala politikotik.

Planaren diseinuari dagokionez, mugak hasierako ebaluazioan bertan azaldu ziren:

- Haren perimetroari edo gizarteratzeko politiken edukari eta hauen hartzaile funtsezkoenei buruzko hausnarketa garbirik eza;
- Helburuen sakabanaketa eta ardatz gabezia;
- Aurreikusitako jarduketaren egiazko edukia behar beste zehaztuta ez izatea;
- Prozesu, emaitza eta inpaktuen oinarritzko adierazleak behar adinakoak ez zehaztea.

¹³ Eskura dauden datuek, edonola ere, agerian jartzen dute DSBEren ondoriozko pobrezia-murrizketa erabatekoa ez bada ere, oso murrizketa nabarmena lortzen dela pobrezia-eraginearen intentsitateari dagokionean. Halaber, datuek adierazten dute DSBE eskatzen ez duten pertsona horien gehiengoa pobrezia-atalasean leudekeenak izaten direla eta, prestazioa lortzera iritsiko balira, oso kopuru txikiak jasoko lituzketela.

Erdibideko bi ebaluazio egin arren eta Plana berregituratzeko egindako esfortzuak esfortzu, aipatzekoak dira baita ere Gizarteratze Aktiborako Euskal Planak lidergoaren eta erakundeen arteko koordinazioaren aldetik izan dituen arazoak. Galdera egin zaion pertsonetako baten hitzetan, «legegintzaldi baten amaieran egin zen plana eta ez zaió benetako erabakimenez heldu hurrengoan: ez jarraipenik, ez dinamizaziorik, ez koordinaziorik». Beste pertsona batek dio: «plana gaizki definituta zegoen, ez da koordinaziorik egin eta horregatik ezin izan da behar bezala gauzatu». Arazoa gizarteratze-politiketako soilik ez den arren, egindako ebaluaziotik atera litekeen ondorio nagusia da hain zuzen horrelako planek bulkada tekniko eta politiko argiagoa jaso behar dutela. Bulkada hori gabe, indarrean den eskumenen testuingurua kontuan hartuta, gizarteratzeko politiken esparruan lantzen diren erakunde arteko planek nekez lortuko dute, kasu honetan gertatu den eran, erdietsi nahi dituzten xede guztiak eskuratzea.

Ondorio horietatik abiatuta, eta Gizarteratzeko IV. Plana egite aldera, ebaluaziotik ondorioztatu diren ikaskizun nagusiak ondorengo hauek dira:

- Gizarteratze aktiboko politiken perimetroa zehaztea. Adostasuna erabatekoa da esaterakoan gizarte-bazterketa, eta inklusioa, dimentsio askotariko fenomenoak direla, eta pertsonen bizimoduaren eremu askori eragiten dietela: diru-sarrerak, enplegua, hezkuntza, etxebizitza, harreman pertsonalak, herrigintzan eta politikagintzan parte hartzea, eta abar. Bidenabar, adostasuna orokorra da ere esaterakoan gizarteratze-politikak hainbat politikaren batura direla, sektorekoak batzuk –osasan-politika, hezkuntzakoak, gizarte-zerbitzuetakoak, laneakoak, etxebizitzakoak, diru-sarrerak bermatzekoak, eta abar.–, transbertsalak beste batzuk (familia-politika, komunitatekoa, berdintasunezkoa,...), eta sektore artekoak beste zenbait (koordinazio soziosanitarioa, sozioedukatiboa, eta abar). Inklusio- eta bazterketa-prozesuek duten izaera multidimentsionalak, eta hainbat sektore-politikatan eragina izan beharrak ez du esan nahi, hala ere, gizarteratze-planetan jaso behar denik arestian zerrendatu ditugun sektore-politiketan datorren edozein neurri, ezta pertsonen gizarteratzearekin zerikusia izan dezaketen bizipen guztiekin eta bakoitzarekin nola edo halako harremana duten jarduketak zehatzak jaso behar direnik ere.

Guztiz bestela, gizarteratze-plan operatibo baten zehaztapenak eskatzen du lehentasunak ezartzeko ahalegin bat, zehazteko zein neurritan –aplikatu beharreko irizpide tekniko edo politikoen arabera– jaso behar diren sektore-politika bakoitzetik eratorritako neurriak. Horrek eskatzen du aurretiazko gogoeta bat erabakitzeke zein diren Plan horietan aurreikusten diren neurriek aintzat hartu behar dituzten egoerak eta hartzailleak izan behar duten pertsonak, egindako beharren diagnostikoaren arabera. Halaber, hausnarketa bat egin beharko da Gizarteratze Aktiboko Planaren eta eremu horietara bideratutako beste planen arteko harremanaz (kasu honetan, enplegu-planak, osasunekoak, etxebizitzakoak, gizarte-zerbitzuetakoak, bizitegi-bazterketaren prebentziokoak...) eta erakundeen eta sailen arteko koordinaziorako dauden egiazko aukerei buruz.

- Neurrien fokalizazioa, lehentasunak adostetik abiatuta. Gizarteratze-politiken definizio kontingente –inguruabarren eta beharren arabera moldatzen joan beharko duena denez– horrekin batera, beharrezkoa dirudi, plan horren eta beste batzuen ondoriozko ikaskizunen arabera, jarduketak fokalizatzea –sektore-eremu horietako bakoitzaren baitan– benetan lehentasunezkoztat jotzen diren esparru haietan. Hori dela eta, beharrezkoa dirudi plan errealistagoak, fokaliza-

tuagoak eta koordinatzen eta ebaluatzen errazagoak egitea, neurri eta jarduketa gehiegi metatzea saihestuz. Egin den ebaluazioak aditzera ematen du beharrezkoa dela alde batera uztea neurri-kopuru handiegia eta oso garrantzi ezberdinekoak jasotzen dituzten planak, beharren arteko egiazko lehentasunak zehaztu eta sustatu behar diren jarduketan inguruan benetako adostasunak lortu ezinaren ondorio izan ohi direlako gehienetan.

Hori dela eta, sakabanatze-arriskuaren aurrean eta edozein plan integral, transbertsal eta sail arteko berezkoak dituen koordinazio-arazoak aintzat hartuz, esan liteke beharrezkoa dela asmo handiko plan baten alde egitea, baina, aldi berean, errealista, fokalizatuagoa eta jarduketa gutxiagokoa izango dena; ikuspegi horretatik, Planaren xedea izan behar luke agente guztiak bilbatzea adostutako lehentasun, irizpide eta printzipio batzuen inguruan, eta ez gizarteratzearen esparruan agenteetako bakoitzak landu ditzakeen neurri guztiz ezberdinak metatzea. Horrek eskatzen du, lehen adierazi denez, Plan transbertsal bat, egiazki koordinaturiko jardurekin, behar besteko hornidura tekniko eta ekonomikoarekin eta, batez ere, behar bezainbesteko lidergo tekniko eta politikoarekin.

- Jarduketan zehaztapena eta jarraipen-adierazleen sistema baliagarria eratzea. Horretarako, IV. GAEPren kasuan, beharrezkoa da Planaren neurri eta jarduketak definitzerakoan zehaztapen-ahalegin sakona egitea, ahal den neurrian proiektu zehatzak jasoz, trakzio-gaitasuna izango dutenak eta berariazko beharrei benetako testuinguruetan erantzuna emateko gai izango direnak. Hala ere, jarraipen-adierazleen sistema bat lantzea eskatzen du, ahalbidetuko duena zein jarduketa egiten ari diren jakitea egiazki, zer baliabide ari diren erabiltzen eta, ahal den neurrian, nolakoak diren emaitzak.
- Enpleguan, etxebizitzan, gizarte-zerbitzuetan eta diru-sarreraren bermean azpimarra ipintzea. Azkenik, egin den ebaluazioak zilegitzen du iradokitzea zein izan daitezkeen IV. Plan horretan lehentasunezko alorrak. Ikuspuntu horretatik, badirudi argi dagoela plana bideratu behar dela enplegarritasun-arazo handienak dituzten gizataldeak laneratzera eta enplegu horien lan-baldintzak hobetzera, diru-sarrerak bermatzeko sistema hobetzera, etxebizitzarako eskubide subjektiboaren garapenera, eta gizarte-zerbitzuen sistema garatzera, abiapuntutzat hartuz aktibazioaren ikuspegi zabal bat, lan-aktibazio hutsean oinarrituko ez dena.

3.2. Diagnostikoaren osagai nagusiak

3.2.1. Sarrera

12/2008 Legearen 81. artikulua agintzen du Gizarteratzeko Euskal Planak oinarritu behar duela gizarteratzeko eta laneratzeko beharrezkoen diagnostikoan eta haien eboluzioaren pronostikoan. Hori dela eta, Gizarteratzeko IV. Euskal Plan hau lantzeko prozesuan diagnosi-txosten bat egin zen, eskura zitezkeen datuak erabiliz eta Euskadiko Gizarteratze-politiketan esku-hartzeko duten agente guztiei egin zaizkien kontsulten bitartez.

Jarraian azaltzen dira burututako diagnostikoaren ildo nagusiak¹⁴, bai beharrian sozialei eta gizarteratze- eta bazterketa-egoerekin zerikusia duten politika publiko nagusien funtzionamenduari buruz eskura ditugun datuei dagokienez, eta bai gizarteratze-alorrean esku hartzen duten agente publiko zein pribatuek Plan hau gauzatzeko testuinguruaren inguruan duten ikuspegiari buruz. Burututako diagnostiko horrek ahalbidetzen du, halaber, lehen gogoeta bat egitea Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren izaerari, ezaugarriei, egiturari eta helburuei buruz, eta azaltzea gizarteratze-politiken alorren geure inguruko herrialdeetan erabiltzen ari diren berrikuntzak, joerak, praktika onak edota kontzeptu-paradigmak.

3.2.2. Beharrian sozialak eta gizarteratze- eta bazterketa-egoerekin zerikusia duten politika publiko nagusien funtzionamendua

Eskematikoki, Gizarteratzeko EAEko IV. Planak aurrean izango duen testuinguru sozioekonomikoak honako ezaugarri nagusi hauek izango ditu.

Lehenik, Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren aplikazioak izango duen **testuinguru makroekonomiko** orokorra, aurreikuspen guztien arabera, **hobea** izango da Gizarteratzeko III. Planak izan duena baino.

¹⁴ Argibide gehiago nahi izanez gero, ikus daiteke Gizarteratzeko IV. Euskal Plan hau lantzerakoan egindako diagnosi-txostena.

1. Taula Aurreikuspen ekonomikoak Euskadirako, 2016ko ekainean. Urte arteko aldaketa-tasa

	2016	2017	2018	2019	2020
BPGd	3,1	2,7	2,3	2,2	2,2
Azken kontsumoa	3,0	2,5	2,2	2,1	2,3
Familien kontsumoa	3,1	2,7	2,3	2,4	2,6
Administrazio Publikoen kontsumoa	2,2	1,7	1,8	1,3	1,2
Kapital-eraketa gordina	3,3	3,0	3,2	2,4	2,3
Barne-eskaria	3,0	2,6	2,4	2,3	2,4
Kanpo-eskariaren ekarpena	0,0	0,0	-0,2	-0,1	-0,2
BPGd nominala	3,4	3,9	4,1	4,1	4,1
BPGd-ren deflaktatzailea	0,3	1,2	1,8	1,8	1,9
Enplegua	1,9	1,9	1,5	1,4	1,3
Langabezia-tasa	13,5	11,2	10,7	10,1	9,1

Iturria: 2016. urteko txostena. Ogasun eta Ekonomia Saila.

Gainera, hainbat urtez jarraian hazten joan ondoren, **pobrezia eta desberdintasunarekin zerikusia duten ia adierazle guztiak murrizten hasi dira EAEn**, baina, aztertu diren adierazleetako bakar batean ere ez dira etorri krisiaren aurretik zuten mailaraino. Edonola ere, euskal biztanleriaren % 20 AROPE tasaren arabera pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dauden familietan bizi da, eta pobrezia erlatiboa edo diru-sarrera baxuak dituztenak biztanleak % 16 dira. Pobrezia larria biztanleriaren %4,9k pairatzen du, gabezia materialean % 6,4 aurkitzen da eta mantentze-pobrezia % 7,1k sufritzen du. Desberdintasuna, GINI indizearen bidez neurtuta, 0,25ean kokatzen da. Zenbateko absolututan, Plan honen xede liratekeen pertsonen kopurua 104.000 –pobrezia larrian dagoen biztanleria, EUROSTATen definizioaren arabera– eta 440.000 –pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskuan dagoen biztanleria, EUROSTATen definizioaren arabera– artekoa izango litza-teke.

2. Taula Pobrezia eta gizarte-bazterketarekin zerikusia duten adierazleen bilakaera Euskadin (biztanleen ehunekotan)

	2008	2012	2014	2016
AROE adierazlea	17,9	19,9	22,7	20,6
Pobrezia erlatiboa EU-ROSTAT	14,8	15,4	18,5	16,4
Pobrezia larria EUROSTAT	3,1	3,5	4,9	4,9
Gabezia materiala	2,7	5,8	5,2	6,4
Laneko intentsitate baxua	5,6	9,9	12,0	10,2
Mantentze-pobrezia PGDI	5,7	7,3	8,2	7,1
Pobrezia erreala PGDI	2,7	5,8	5,2	6,4
GINI indizea	25,2	25,3	27,1	25,8

Iturria: EAEko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta eta GZEI-Gizarte Beharren Inkesta. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Konparazioz, **Euskadik adierazle hobeak ditu Espainiak baino, euroaren eremuak baino eta EB28k baino, alderatzen diren pobrezia- eta gizarte-bazterketako adierazle gehienetan**: AROPE tasan, pobrezian, gabezia materialean eta desberdintasunean; halaz eta guztiz EAEko egoera euroaren eremukoa eta EB28koa baino okerragoa da lan-intentsitate baxuari dagokionez.

3. Taula Pobrezia eta gizarte-bazterketarekin zerikusia duten zenbait adierazleren alderaketa Euskadi, euroaren eremua eta EB28 artean

	Espainia	Euroaren eremua	EB28	EAE
AROE adierazlea	28,6	23,0	23,7	20,6
Pobrezia erlatiboa EUROSTAT	22,1	17,2	17,3	16,4
Pobrezia larria EUROSTAT	11,2	6,3	6,2	4,9
Gabezia materiala	6,4	7,8	6,8	6,4
Laneko intentsitate baxua	15,4	8,0	8,3	10,2
Gini indizea	34,6	30,7	31,0	25,8

Iturria: EAEko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta eta GZEI-Gizarte Beharren Inkesta. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; EU_SILC (EUROSTAT). Europako datuak 2015ekoak dira.

Azken urte hauetan pobrezia-tasak beheratu izanak ez du esan nahi 2008an hasi zen krisi ekonomikoaren ondorioak desagertu direnik. Krisi ekonomikoaren inpaktuarekin zerikusia duen aldaketa nagusia da **nabarmenki handitu dela produkzio normalizatutik estrukturaliki kanporatuta dauden pertsonen kopurua**, eta baita tradizioz biztanleriaren zati mardul baten bizibidearen ezaugarri izan den lan dualizatuko sistematik ere kanpo geratu direnen zenbatekoa. Oinarrizko bi datu aipa daitezke egoera honen testuingurua islatzeko:

- Gizarte Beharren Inkestaren arabera, 2010 eta 2014 artean laneratzeko arazo bereziak zituztenen kopurua igaro zen 40.862, hots, biztanleria aktiboaren % 2,9tik, 120.109ra, hau da, biztanleria aktiboaren % 8,5era.
- PAIren datuen arabera, lan bila bi urte baino gehiago daramatzatenak 2008an langabe zeuden pertsona guztien % 21 izatetik 2017an langabe-tuen % 42,5 izatera iritsi dira. Zenbaki absolututan, iraupen luzeko langabezia pairatzen dutenen kopurua 13.000tik 48.500era igo da 2008 eta 2017 bitartean (hau da, biztanleria aktiboaren % 1,2tik % 4,5era).

Euskadin lan-baldintzak nabarmenki narriatu direla esan ezin bada ere (langabeziak berak duen inpaktuaz harantzago), begien bistakoa da abian daudela zenbait prozesu **lan-baldintzak eta lan-ibilbideak prekarizatuz, enplegu normalizatuak gizarteratzeko tresna funtsezkoa izateko duen gaitasuna ahultzen dutenak**. Horien artean aipagarriak lirateke soldata baxuen ugalketa, aldi baterako lan-ereduen finkapena, eta, batez ere susperraldiaren lehen aldian, lanaldi partzialeko enpleguaren hazkundera. Azpimarratu behar da, hala ere, landunen pobrezia –EUROSTATek erabiltzen dituen irizpideen arabera–, biztanleria landunaren zati nahiko txikian geratzen dela, % 6an, eta krisia hasi ze-

nez geroztik ez dela hazi soldata baxuak dituzten langileen kopurua, nahiz eta, euro konstantetan neurtuta, lan-orduaren batez besteko ordainsaria murriztu egin den.

Bestalde, Euskadin **biztanleria immigrantea hazi izanak** gizarte-arazo garrantzitsua ekarri du gizarteratze sozial zein ekonomikoaren ikuspegitik. Bereziki egiazkoa da hori euskal lurraldearen erakarmena ez datzanean produkzio-sistema arrakastatsua edukitzean baizik enpleguen galeraren eta gizarte-baldintzen narriaduraren aurrean konparazioz hobeki eutsi izanean. Errealitate horren agerpen nagusia da immigrazioa oso handia izan dela enplegua nabarmen erortzen ari zen bitartean, 2012ra arte beherakada hori Espainiakoa baino txikiagoa bazen ere. Dinamika horren emaitza izan da pobrezia-poltsa berriak eta nabarmenak txertatu direla Euskadin. Paradoxikoki bederen, egia da 2008az geroztiko immigrazio berriaren zati bat hobeki egokitu dela errealitate ekonomiko berrian, eta horrek berak areagotu egin duela lehendanik Euskadin bizi ziren gizatalde batzuen arazo soziala, okerragotu egin duelako abiapuntuko egoeraren prekariotasuna, kualifikazio baxua duten eta usu gaizki ordaindutako jarduera ekonomiko batzuetan aritzen ziren zenbait gizataldetan.

4. Taula Biztanle etorkinen gizarteratzeari buruzko adierazleak

	Estatua	Munduaren gainerakoa	Guztira
Langabezia-tasa (2017) nazionalitatearen arabera	9,6	33,7	11,2
Enplegu-tasa (2017) nazionalitatearen arabera	49,6	51,3	59,7
Pobrezia erreala (2016) kide nagusiaren nazionalitatearen arabera	4,1	30,7	5,7
Mantentze-pobrezia (2016) kide nagusiaren nazionalitatearen arabera	5,3	34,3	7,1
Laneratze arazo bereziak (2014) nazionalitatearen arabera	7,2	27,3	8,5
Harreman pertsonaletan eta familia- eta gizarte-harremanetan arazo larriren bat dutenak (2014) nazionalitatearen arabera	2,3	4,6	2,5
Batez besteko familia-errenta, kide nagusiaren jaioterriaren arabera (€ urteko)	40.995*	21.231	40.097
DSBERako irismen-tasa**	–	11,2	2,9

Iturria: PAI (INE), PGDI, GZEI, Familien eta Pertsonen Errentari buruzko Estatistika (EUS-TAT). *Inkestaren datuen desagregazioa dela eta, LH bakoitzean eta Estatuko gainerako lekuetan jaiotako pertsonen batez bestekoa azaltzen dute datuek. **Euskal biztanleriaren % 80ren bizileku diren Euskadiko 40 udalerritako 411 auzunetakoak dira datuak. Aintzat hartzen du guztizko eta atzeritar nazionalitateko titularren kopurua, guztizko biztanleriarekin eta atzeritar nazionalitatekoekin alderatuta, hurrenez hurren.

Testuinguru horretan bereziki garrantzitsua da aipatzea babesik gabeko adin txikiko etorkinen arazoa, ematen baitu horietako askoz gehiago etortzen ari direla Euskal Autonomia Erkidegora azken urte hauetan: Gipuzkoan, esate baterako, babesik gabeko adin txikiko

etorkinei buruz jaso diren babes-jakinazpenak, 70 ziren 2011n, 192 2015ean eta 370 2016an. Bizkaian, babesik gabeko adin txikiko atzerritarren kopurua laukoiztu egin da 2015 eta 2017 artean. Adin txikiko horien etorreraren goraldiaren kontrapuntu gisa, azken urte hauetan gizatalde horren beharretarako erabil zitezkeen plazak murriztu egin dira (422 ziren 2012an, eta 296 2015ean EAE osoan), eta gazte horiek, babes-sistematik igaro ondoren, gizarteratzeko eta emantzipatzeko ibilbide jasangarriak bermatzeko dauden arazo handiekin.

Soslai horiekin batera, aipatu beharrekoak dira halaber eskualdeen edota lurraldeen arteko desberdintasunak, EAEko eskualdeen eta lurralde historikoen artean produkzio-ereduari eta ongizate-mailari dagokionean, hain zuzen ere, haien ondorioz **langabezia-tasa, biztanleko errenta, pobrezia, eta baita morbilitate- eta hilkortasun-tasetan alde handiak kausitzen baitira Euskadiko eskualde, udalerrri eta auzuneen artean**. Egia bada ere desberdintasun horiek gutxitu egin direla krisialdiko urte hauetan –funtsean, krisia hasi aurretik egoera hobereanean zeuden eskualdeen eta lurraldeen bilakaera negatiboagoa izan delako–, begien bistakoa dirudi Gizarteratze Aktiboko IV. Euskal Plan honen neurriek aintzakotzat hartu beharko luketela pobrezia-, bazterketa- edo langabezia-egoeren lurraldetasuna¹⁵.

Gero eta maizago, Euskadi bezalako herrialdeetan adinarekin lotuta dagoen profil bereizgarria du pobrezia. Fenomeno horren emaitza da **haur-pobreziaren hazkundea** eta, beste ikuspuntu batetik, pobrezia belaunaldiz belaunaldi berregiteak eta goranzko mugikortasun sozialak gero eta eragozpen gehiago aurkitzeak sortzen duen kezka. EAEko pobrezia-egoerak belaunaldien ikuspuntutik aztertuz gero agerian geratzen da, mende hasieraz geroztik, adinarekin lotuta dagoela pobrezia eta, bide batez, pobrezia-arriskua gutxitu egiten dela pertsonen adina handitu ahala, eta 15 urtez azpikoen pobrezia-tasa bost aldiz handiagoa dela 65 urte baino gehiago dituztenena baino. Gizarte-babeseko sistema, bestalde, askoz eraginkorragoa da pertsona helduen eta adinekoen pobrezia murrizteko, adin txikikoen edota seme-alabak dituzten familien pobrezia gutxitzeko orduan baino.

Belaunaldien arteko desberdintasunen garrantzia gero eta nabarmenagoa izaten ari denez, pobrezia eta gizarte-bazterketako egoerak argitzerakoan generoarekin zerikusia duen aldagaiaren garrantzia gutxitzen ari dela badirudi ere, ez da ahaztu behar **pobretze-eta baztertze-prozesuetan faktore erabakigarria izaten jarraitzen duela generoak, eta erabil daitezkeen adierazle ia guztietan emakumeen egoera konparazioz okerragoa izaten dela** (muturreko gizarte-bazterketako egoeretan izan ezik). Pobrezia-adierazleak eratzeko moduagatik beragatik (familiako kide guztiak aintzat hartzen dituztelako) emakume- eta gizonezko-biztanleriaren pobrezia-tasak oso antzekoak izaten badira ere, pobrezia-egoeren baitako genero-arraila argi eta garbi ikusten da pobrezia-tasak etxeko erreferentziazko pertsonaren arabera alderatzen direnean: % 11 emakumeak dira eta % 5,4 dira gizonak. Pobrezia-tasak gizonen artean emakumeen artean baino gehixeago hazi badira ere, bien arteko aldea ia batere ez da aldatu 2008tik hona. Bereziki adierazgarria egiten da gainera 2016an pobrezia-egoeran dauden pertsonen % 45 emakumea buru duten familietan bizi direla, 2008an % 28 zirenean.

¹⁵Hori dela datu interesgarri batzuk aipa daitezke DSBE jasotzen duten pertsonen lurralde-banaketa buruz: Lanbideak argitaratu dituen datuen arabera, Euskadiko 40 udalerritako 410 auzunetako datuekin, DSBEren hartzaile diren pertsonen kopurua auzo horietako biztanleria osoaren % 3koa da. Hamabi auzunetan, proportzioa % 9 baino gehiagokoa da; horietako sei, Bilboko udalerrian daude, bat Sestaon eta beste bat Santurtzin. Datu horien arabera, zortzi auzune horietan Euskadiko biztanlerian 1,2 bizi da, eta DSBEren hartzailea den biztanleriaren % 6,5.

5. Taula Pobrezia- eta bazterketa-adierazleak generoaren arabera EAEen

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Langabezia-tasa (2017) sexuaren arabera	11,2	10,0	12,5
Enplegu-tasa (2017) sexuaren arabera	49,7	55,2	44,6
Iraupen luzeko langabezia-tasa (2016), sexuaren arabera	8,9	8,9	8,8
Pertsonen batez besteko errenta (euro urteko; 2014)	19.286	24.414	14.526
Urteko batez besteko irabazia langile bakoitzeko (2015)	27.571	31.088	23.537
Beheko kuartilaren eta goiko kuartilaren arteko soldata-arraila (2015)	2,16	1,91	2,46
Lanaldi partzialeko kontratua dutenen ehunekoa (2017)	17,4	8,1	28,1
Aldi baterako kontratua dutenen ehunekoa (2017)	24,0	20,4	27,6
Lan-txandaketa (kontratudun bakoitzeko kontratukopurua, 2016).	3,26	3,06	3,48
Kontratuen batez besteko iraupena egunetan (2016)	48	52	44
DSBERako irismen-tasa**	2,9	2,69	3,26

Iturria: PAI (INE), PGDI, GZEI, Familien eta Pertsonen Errentari buruzko Estatistika (EUSTAT). *12 hilabete baino gehiago langabezian. . **Euskal biztanleriaren % 80ren bizileku diren Euskadiko 40 udalerritako 411 auzunetakoak dira datuak. Aintzat hartzen du guztizko eta sexu bakoitzeko titularren kopurua, guztizko biztanleriarekin eta sexu bakoitzekoarekin alderatuta, hurrenez hurren.

Nola edo halako desgaitasuna duten pertsonen, mendekotasun-gradu aipagarria dutenean eta ez dutenean, osatzen dute laneratzeko arazo aipagarriak dituen beste gizatalde bat, besteen aldean bakardade- edo pobrezia-sentipenen tasa altuak edukitzea bereizgarritzat duena, aldi berean. Ikuspuntu horretatik, lan-merkatuaren ezaugarri deigarrienetako bat da mota horretako pertsonengan eragina duten langabezia-arazoen inpaktu bereizgarria izaten dutela, baita duten desgaitasunak lan-jarduera normalizatuan aritzeko inolako mendekotasunik sortzen ez duenean ere. Egoera horretatik ondorioztatzen da **gizarte-bazterketako egoera bereziki ugariak daudela desgaitasuna duten pertsonengan edota desgaitasuna duen kideren bat duten familietan.**

Gizarteratze-politiken prebentzio eta ekinbidera zuzentzen diren politika eta bitartekoei dagokienez, honako argibide hauek azpimarra daitezke:

- Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eskaintzen dituen datuen arabera, **azken urte hauetan gutxitu egin da etxebizitza lortzea, aldatzea edo zaharberritzea behar duten familien ehunekoa eta kopurua, eta historikoki baxuenetakoak dira 2015eko zenbatekoak.** Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren datuek adierazten dute 2014an merkatu libreko alokairuan etxebizitzaren prezioak pixka bat igotzeko joera hartzen duela, eta prezio horiek % 6 garestitu egin dira 2013 eta 2016 artean. Behatokiaren datuak bat datoz higiezinetan espezializaturiko atariek eskaintzen dituztenekin; hauek adierazten dute, esate baterako, alokairuaren batez besteko prezioa EAEko hiru hiriburuetan, krisialdian merkatu eta gero, % 11 igo dela 2013 eta 2017 artean. Halaber, EAEko familiek etxebizitza mantentzera bideratzen duten gastua ere nabarmen igo da, kontuan hartzen bada

alokairua ordaintzera bideratzen den gastua –2008tik hona % 20 igo dena–, hala nola oinarrizko hornidura eta elektrizitatea ordaintzera bideratzen dena, % 25 eta % 33 garestitu baitira horiek, hurrenez hurren.

- Gizarte-determinatzaileek zuzeneko inpaktua dute pertsonen osasun-egoeran eta bizi-itzaropenean, eta betekizun erabakigarria izaten dute gizarteratze- eta bazterketa-prozesuetan. Inpaktu hori nabarmenki hazten ari dela aditzera ematen duen daturik ez badago ere, azpimarratzekoak dira estatus sozioekonomikoaren arabera desberdintasun ikusgarriak osasun-egoerarekin zerikusia duten hainbat eta hainbat alorretan, bai pertsona helduengan eta baita haurren artean ere¹⁶. **Osasun-inkestetan agertzen diren arazoetako askoren prebalentzia –mina, antsi-etate-arazoak eta depresioa, jardueraren mugaketa kronikoa, osasunaren autbalioespen negatiboa...–, maila sozioekonomikoan beheratu ahala orduan eta okerragoa bihurtzen da.** Horrek agerian ipintzen du gizarteratzeko euskal planaren helburuak eta neurriak uztartu egin behar direla euskal osasun-planak proposatzen duen ikuspegiarekin, batez ere «EAEko biztanleriaren osasunean dauden desberdintasun sozialak eta generokoak murriztu, gizatalde behartsuenen egoera hobetuz» dioen helburuarekin zerikusia duen guztian.
- Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuen hornidurari dagokionez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Berariazko Organo Estatistikoak egiten duen Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak dienez, **EAEk 2.733 plaza ditu bizitegi- edo ostatu emateko, eta 7.658 plaza ostatu gabekoak.** Lurraldeetako bakoitzaren biztanleriarekin alderatuta, ostatu-hornidura handiena Gipuzkoan dago (1,65 plaza mila biztanleko) eta baxuena Bizkaian (0,92 plaza mila biztanleko). Aldiz, Bizkaiak du hornidurarik handiena ostatu gabeko plazetan eta Gipuzkoan du baxuena.
- Gastuaren ikuspuntutik, EAEk 56 milioi euro inguru gastatu zituen 2015ean gizarte-zerbitzu eta gizarteratze soziolaboraleko jardueretan, kontuan hartu gabe behar beste ahalbide ekonomikorik ez duten pertsonentzako prestazio ekonomikoetara bideratzen den gastua, zenbateko askoz handiagoa (515 milioi euro) duena. Horietatik, 46 milioi Gizarte Zerbitzuen Zorroan sartutako zerbitzuei dagozkie –bizitegi-zerbitzuak, gehienbat–, eta 13 milioi gizarteratze soziolaboraleko zerbitzuei (horiek, adiera hertsian, ez lirateke Gizarte Zerbitzuen eskumen-eremukoak). Ikuspegi konparatibotik, **arreta zuzeneko zerbitzuetan Euskadin egiten den gastua Espainiakoa baino nabarmen handiagoa da, eta Europan egiten denaren paretsukoa. Prestazio ekonomikoei dagokienez, ordea, Euskadiko gastua nabarmentzen da Espainiako baino altuagoa ez ezik Europakoa baino altuagoa delako.**
- Ikuspuntu kualitatiboagotik, aipa ditzakegu halaber **gizarte-zerbitzuetako euskal sistemak gizarte-bazterketa prebenitu eta konponbidean jartzeko aurkitzen dituen zailtasunak** (gizarte-bazterketaren diagnostikoa eta ebaluazioa egiteko

¹⁶Hein horretan, Osasun Sailak argitaratu berri duen txosten batek agerian ipintzen du euskal gazteen osasuna okerragotu egiten dela haien familien maila soziala beheratu ahala, bai nesken artean eta baita mutilen artean ere, nahiz eta gizarte-gradientea nabarmenagoa den gizonezkoen artean. Izan ere gehienera lehen ikasketak burutzea lortu duten gurasoen seme-alaben eta hirugarren mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben arteko osasun-mailan dagoen desberdintasuna 20,4 puntukoa da mutikoen artean, eta 21,2 punturaino igotzen da neskatoen artean. Aldea areagotu egiten da gurasoen jatorrizko herrialdea zein den kontua izaten bada. Azterlanak dienez, guraso etorkinak dituztenen artean osasun-egoera «askoz ere eskasagoa» da guraso autoktonoak dituztenekin alderatuz. Horregatik, errenta-maila baxuko herrialde batean jaiotako gurasoen seme-alaben % 61,3k ez du «osasun-egoeraren sentipen oso ona»; ehuneko hori % 40,3raino jaisten da guraso autoktonoak dituztenen kasuan (Osasun Saila, 2017).

tresna komunen hedapen eskasa; gizarte-bazterketaren baliozkotzea eta, aldi berean, babesgabetasunarekin edo menpekotasunarekin zerikusia duten zailtasun larriak dituzten pertsonekin lan egin ahal izateko eragozpenak; Zorroaren Dekretuaren arabera lehen mailako eta bigarren mailako arreta-guneek bete behar dituzten funtzioak bereizteko zailtasunak; gizarteratzeko gizarte-zerbitzuak lurraldeka EAeko Gizarte-Zerbitzuen mapan gomendatzen den eran antolatzekeko zailtasunak; gizarte-zerbitzuen, batez ere oinarritzko gizarte-zerbitzuen, eta DBSEren kudeaketaz arduratzen diren enplegu-zerbitzuen arteko koordinaziorako zailtasunak; lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen ahulezia, gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen gidari diren kontzeptu-ildoei orientabide berriak eman beharra, eta abar).

- Diru-sarrerak bermatzeko sistemari dagokionez, aipa daiteke, lehenik, azken hila-bete hauetan **hartzaille titularren kopurua murrizten ari dela** ari dela arian-arian. Modu orokorragoan, garrantzitsua da, halaber, gogoraraztea EBn era horretako prestazioetara biztanle bakoitzeko gastu gehien bideratzen duten lurraldeen artean dagoela Euskadi. Diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak duen eraginkortasunari dagokionez, datu guztiek aditzera ematen dute DBSEren, GLLren eta EPOren inguruan eratuta dagoen sistemak euskal biztanleriari egonkortasun ekonomikoa ematen lagundu duela, egiturazko pobrezia adierazleak biziro murriztuz¹⁷.

Nolanahi ere, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egin duen diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren erreformarako oinarrien txostenaren arabera, **bermatutako errenten euskal ereduak hainbat zailtasuni aurre egin behar die, bere diseinuari eta, batez ere, bere kudeaketari dagokienez** (zenbatekoak egokitu beharra, batez ere tamainarik handiena duten edota adin txikikoak dituzten unitateen kasuan; hartzailea izan litekeen biztanleriaren zati batean, prestazioa jasotzen ez duen pertsona-multzo bat egotea; kudeaketa arazoak, batez ere okerreko ordainketak sortzea eta jasotzea dela eta; bizikidetz-unitateak zehazteko zailtasunak; bizikidetz-unitatearen baliabide ekonomikoak eta prestazioa jaso ahal izatea eskubidea ematen duten ondare-mugak zehaztearekin zerikusia duten zailtasunak, eta abar).

- Azpimarragarria da, bestalde, **Estatuko Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen laguntza-prestazioek duten munta hain eskasa lanik gabe dauden eta Lanbiden izena emanda dauden lan-eskatzailleen artean: pertsona horietako % 78k ez du inolako prestazio ekonomikorik jasotzen. % 17k DSBE jasotzen du eta % 4k baino ez ditu jasotzen Estatuko enplegu-sistemak ematen dituen prestazioak edo diru-laguntzak. Ondorioa bertsua da pobrezia-egoeran dagoen euskal biztanleriaren artean diru-sarreraren iturri ezberdinek duten munta aztertzen bada. Horren ondorioz kontribuzio-izaerako prestazioetan langabetu bakoitzeko egiten den gastua oso murrizta da Euskadin, bai Estatuko batez bestekoarekin eta baita EBko beste herrialdeekin alderatuta ere.**
- Bilakaeraren ikuspegitik hartuta, azpimarragarria da **langabe daudenen arreta zuzeneko zerbitzuetara bideratzen den gastua murriztu egin dela** zertxobait. Horren harira, EUSTATen Gizarte Babesaren Kontuaren arabera, euskal administrazio publikoek eskaintzen dituzten arreta zuzeneko zerbitzuetan langabezia-

¹⁷Eskura ditugun datuek, hain zuzen ere, adierazten dute diru-sarrerak bermatzeko sistema eraginkorra izan dela Euskadin pobrezia larria prebenitzeko eta aukera eman duela ongizate-tasak Europa erdialdeko eta iparraldeko hainbat herrialdeetako paretsuan edo gainetik mantendu ahal izateko. Diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak gai izan da, gainera, pobrezia eta desberdintasunen hazkundera prebenitu eta saihesteko Euskadin, euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta enplegua sortzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe eta beharrean dagoen jendearen erakapen-efekturik gehitu gabe.

funtzioan egindako gastua 46 milioi eurokoa izan zen 2006an, 111 milioikoa izan zen 2011n, eta 94 milioira beheratu zen 2014an. Enplegu-politika aktiboetara bideratutako funtsen murrizketa hori parekatzen da laneratze-enpresak finantzatzeko funtsen murrizketarekin, % 20 gutxitu baitziren haiek 2010 eta 2016 artean, 10,2 milioi izatetik 8,2 miloi izatera pasatuz.

Ikuspuntu kualitatiboago batetik, gizarteratzearen eremuan esku hartzen duten agente publiko zein pribatuaren iritziz, hauek dira Gizarteratzeko IV. Euskal Plana aplikatu beharko den eszenatokia definitzen duten ezaugarri nagusiak:

- **Desberdintasun-, pobrezia- eta gizarte-bazterketako** egoerak **ugaritu** egingo dira.
- Lanaren dualizazioa eta **lan-merkatuaren prekarizazioa** hazi eta gaur egun lan-merkatuak sortzen dituen enplegu askok duten gizarteratze-gaitasuna gutxitu egingo da.
- **Biztanleria zahartu** eta **immigrazio-fluxuak** mantendu egingo dira.
- Bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen **etxebizitza izateko** zailtasunak izango dituzte, eta etxebizitzarekin zerikusia duten gabeziek eragina izango dute bazterketa-prozesuetan.
- Osasunaren determinatzaile sozialak garrantzizkoak izango dira eta **koordinazio soziosanitarioak zailtasunak izango ditu**, batez ere osasun mentaleko arazoak dituzten eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonekin.

Gizarteratze-prozesuetan lagungarri izan daitezkeen testuinguruko faktoreei dagokienez, honako hauek azpimarratu dira:

- **Ekonomiaren susperraldiak** ondorio onuragarriak izango ditu enplegua eta gizarteratze-politiketara bideratzeko baliabideak sortzeko.
- **Araudiaren garapena** nahiko sendoa da EAEn gizarteratze-politiken esparruan.
- **Herritarren artean dagoen adostasuna** nahiko zabala da eta euskal herritarrek sentsibiltate sozial handia dute gizarteratze-politiken inguruan.
- **Gizarteratze-politiken tresna nagusiak**, eta bereziki DSBE, sendo finkatuta daude.
- **Kualifikazio eta lan-jakintza handia metatu da esku-hartze sozialeko Hirugarren Sektorean** gizarteratzearen eremuan.
- **Lankidetzaren eta elkarrizketa-kultura bat** badago gizarteratzearen esparruan esku hartzen duten agente sozial eta politikoen artean.
- **Aurrerapen teknologikoek** erraztu dezakete prestakuntza jasotzea eta lan-merkatuak sarbidea izatea.

Kontrara, bazterketa-egoeretan eta esparru horretako politikan maiz eragin negatiboa izan dezaketela uste izaten den testuinguruko elementuak honako hauek dira:

- **Enpleguaren prekarizazioa** eta «landun pobreen» figura hedatzen joatea, pobrezia-aren aurkako babesa eta gizarteratzea lortu ahal izateko ohiko enpleguak izan duen zentraltasuna zalantzan geratzen delarik. Enpleguak duen gaitasun gizarteratzaile horren nariaduraren aurrean, baten batzuk arreata eskatzen dute baita ere enplegua gizarteratzeko bide bakartzat hartzeak dituen arriskuen inguruan.
- Gizarteratzeko politiken eremuan **aurrekontu-murrizketak** mantendu egingo direla.
- **Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren erreformarekin** lotuta dauden arriskuak, haren eraginpean dauden eskubideen galeraren bat edota kontraprestazioarena bezalako kontzeptuak berraktibatzea erakar dezakeelako.
- **Automatizazioarekin** lotuta dauden arriskuak, batez ere kualifikazio maila baxua duten pertsonen enplegu-eskaeren ingurukoak.
- Motzera bakarrik begiratzea eta esku-hartze sozialeko prozesuetan emaitza azkarregiak bilatzea, eta **prebentzio-izaera duten neurriak abiarazteko interesik ez izatea**. Horren harira, epe luzeagoak behar dituzten aldaketa- edo sendotze-prozesu iraunkorragoak, edo hainbat arrazoirengatik (gizarteratzeko probabilitate gutxiagokoak direlako, zailtasun handiagokoak, eta abar) baliabide gehiago behar dituzten pertsonen laguntzeko prozesuei eusteko zailtasuna.
- Gizarteratze-politiken eta agente guztien arteko koordinaziorako politiken **esku-men-egituraketarekin** zerikusia duten zailtasunak, gizarteratze-politiken zeharkakotasuna eta integritasuna berma dadin.
- **Gizarteratze-politikei buruzko kontsentsu soziala** haustea, aurreiritzien eta estereotipoen ugalketa, eta gizartean solidarioak ez diren zenbait jokabide errotzen joatea, gizartearen atonia eta mobilizazio eskasarekin batera.
- Analfabetismo digitala eta **arrai digitala**, bazterketa sorrarazten baitute, baita gizarteratzeko programa eta prestazioak jaso ahal izateko ere.
- Gizarte-politiken diseinuan **berrikuntzarik eza** eta zurrunduta geratzea.
- Jardunbide profesionalak egituratzeko, esku-hartzeko eredu komun bat lantzeko, **ezagutza kudeatzeko**, esku-hartzeak ebaluatzeko, gizarte-beharrizanak aztertze eta nabaritasunean oinarritutako praktikarako tresnak behar beste garatuta ez edukitzea.

3.2.3. Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren izaera eta helburuen hausnarketa

Gizarteratzeko IV. Planak aurre eman beharko dien beharizan nagusien bilketa egiteaz gain, egindako diagnostikoak aukera eman du Gizarteratzeko IV. Euskal Plan horren izaera, ezaugarri, egitura eta helburuen inguruan hausnarketa bat egiteko.

Planaren izaerari dagokionez Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak ebazten du Gizarteratzeko Euskal Planak «era koordinatuaz eta globalaz jasoko ditu

administrazio eskudunen jarduera orientatzeko esku-hartzeko eta jarduteko jarraibideak, **baztertuta daudenak gizarteratzea lor dadin**». Halaber, esaten du Euskal administrazio publikoek **Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakundeen eta sailen arteko beste plan batzuen arteko koherentzia eta sinergiak bultzatuko dituztela, batez ere gizarte-zerbitzuen, enplegu-, hezkuntza-, etxebizitza-, osasun- zein gizarte- eta arreta soziosanitarioko planekin**. Edukiei dagokienez, Legean azpimarratzen da «gizarteratzea gizarte-babeseko sistemak eta politika publikoek partekatzen duten helburua izanik, helburu hori lortzera zuzendutako neurriak antolatu beharko dira, haien oinarriko eremu guztietan, batez ere hezkuntza-, gizarte-, osasun- eta etxebizitzaren politika publikoko zerbitzuetan».

Horregatik egin behar da **izaeraz dimentsio anitzekoa, integrala eta erakunde artekoa** izango den plan bat, bere barnean hartuko dituen 18/2008 Legeak euskal gizarteratze-sistemaren baitan oinarrikoak irizten dituen esparruekin –diru-sarrerak bermatzearekin eta laneratzearekin– zerikusia duten neurriak eta jardunak, baina baita Legeak aipatzen dituen eta gizarteratzean eta gizarte-bazterketan eragina duten beste eremu horiek ere.

Burutu den ebaluazio- eta diagnosi-prozesuak, hala eta guztiz ere, agerian ipintzen ditu **era horretako planen dimentsio-aniztasunak eta sail-artekotasunak berezkoak dituzten zailtasunak** eta arriskuak: alde batetik, helburuen eta jarduketaren **sakabanaketaren eta fokalizazio-gabeziaren** arriskua; bestetik, **Planaren garapenean lidergoa zuzentzeko eta erakunde- eta sail-artekoa den edozein planek behar duen bultzada politikoa emateko zailtasuna**. Funtsezko arazoak dira biak ala biak, aintzat hartzen baditugu bai orokorrean eta baita banakako esku-hartzeetan ere sortzen diren **sektore arteko koordinazio-arazoak**, eta kontuan izaten badugu **gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden arazo nagusiak sistema ezberdinen arteko elkarguneetan gertatzen direla**.

Ikuspegi horretatik, ebaluazio- eta diagnosi-prozesu horretan egindako hausnarketatik ateratako ondorio nagusietako bat da **Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren baitan ahalik eta lehentasun handiena eman behar zaiela sektore arteko koordinazioarekin, eza-gutzaren kudeaketarekin zerikusia duten neurriei, hau da, laburbilduz, gizarteratzeko politiken erakunde arteko artikulazioari**.

Aurretiaz burutu den gogoeta oinarritzat hartuz, esan liteke argi dagoela **Gizarteratzeko IV. Plana hiru ardatz edo plano berezitan egituratu behar dela**:

- **Diru-sarrerak bermatzeko eta laneratze politikekin berriaz erlazionatutako neurriak**, 18/2008 Legearen arabera, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren erdigunea eratzen dutenak, hain zuzen ere.
- **Gizarte-zerbitzuen, osasunaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren eremuetan edo beste batzuetan garatu beharreko neurri sektorialak**, sektore horien plangintzan jada sarturik zeuden jarduketak ahal den neurri handienez gehituz, edota Plan honetan ezarritako helburuak eta lehentasunak plangintza horietan txertatuz.
- Gizarteratze-politiken **erakunde-arteko artikulazioarekin lotura duten neurriak**, arreta berezia jarririk **planaren bultzada politikoari eta segimenduari, sektore**

arteko koordinazioa hobetzeari eta esku-hartzeko eredu komun eta partekatu bat sortzea ahalbidetuko duten tresna tekniko eta profesionalen garapenari.

Burutu den ebaluazio- eta diagnosi-prozesutik ondorioztatutako ikaskizunek aditzera ematen dute, halaber, beharrezkoa dela, izaten duen egitura duela Planak, haren helburuak eta jarduketak **behar adina fokalizatuta** egotea eta **lehentasun adostuen** ondoriozkoak izatea. Beraz, praktikan, Planaren baitan jaso behar dira soil-soilik zehaztasun nahikoa duten eta, aldi berean, garrantzia eta lehentasuna duten jarduketak eta helburuak.

Azkenik, aipatu beharrekoak dira, orobat, gure ingurumeneko beste herrialde batzuetan praktikan jartzen ari diren **berrikuntzak, joerak, praktika onak edota kontzeptu-paradigmak**, Gizarteratze Aktiboko IV. Euskal Planaren baitan aintzat hartu behar liratekeenak.

- **Gizarteratze aktibotik aktibatze inklusibora.** Gizarteratzearen dimentsio-aniztasuna. Azken urte hauetan adostasun orokor bat lortu da gizarte-bazterketaren definizioari dagokionez: bizitzako oso eremu ezberdinetako – hezkuntzako, etxebizitzako, osasuneko, enpleguko, eskubide politikoetako, harreman pertsonaletako, diru-sarreretako...– desabantailen metaketa bezala ulertzen dugu orain. Horren ondorioz, bazterketari begira egiten diren politiken diseinuan gaur egun erabiltzen diren ikusmoldeek gizarteratzearen dimentsio anitzeko ikuspegiaren aldeko joera berresten dutela esan liteke. Hala ere, hainbat jarduketak, gizarteratzea laneratze hutsarekin parekatzen duten heinean, ez dute kontuan hartzen gizarte-bazterketako prozesuek duten kausa-aniztasuna. Horren harira, begien bistakoa bada ere gizarteratzearen osagai funtsezkoetako bat dela lan ordaindua edukitzea, ez da ahaztu behar enplegua ez dela, berez edota bera bakarrik, nahikoa gizarteratzea bermatzeko; hain zuzen ere, pentsa liteke zenbait gizarteratze-prozesuk ez dutela nahitaezkoa laneratzea, eta badirela beste bizitza-esparru batzuk lehentasun gehiagoz landu beharrekoak izan daitezkeenak.
- **Pertsonalizatzea, laguntzea, ahalduntzea eta kontrolatzea.** Halaber, oso adostasun zabala dago ontzat eman eta azpimarratzeko gizarteratzeko edota laneratzeko zerbitzuak eta programak norbanakoaren arabera egokitu behar direla, hau da, ahal den neurri handienez, pertsona erabiltzaile bakoitzaren beharrezan, aukera, desio eta itxaropenetara doitu behar direla. Norbanakoari egokitzeko apustu hori dago aktibazioaren paradigmaren oinarrian, eta gizarte-politikan oro har gauzatzen ari den aldaketa orokorrago batekin lotzen da, haietan gero eta garrantzi handiagoa ematen baitaio erabiltzaileen autodeterminazioari eta kontrol-gaitasunari, jasotzen dituen zerbitzu eta prestazioen kudeaketan.
- **Gizarte-inbertsioaren paradigma eta prebentzioaren garrantzia.** Ikuspegi horren ezaugarri nagusia da arreta-gunea aldatu egiten dela konponketa helburutzat duten politikatik prestaketa helburu duten politikatara (*preparing rather than repairing*). Inbertsio sozialaren ikuspegiaren oinarrian daude giza kapitalaren garapena helburutzat duten politikak (haurtzarora sendotzea, desberdintasunaren prebentzioa) eta kapital hori efizientziaz aprobetxatzea, bai eta gizarteratze handiagoa lortzea ere, askotan lan-merkatutik kanpo egon ohi diren taldeak laneratuz, funtsean. Nolanahi ere, ikuspegi horren oinarritzko bereizgarria da gizarte-politikak produkzio-elementutzat jo behar direla, garapen ekonomikorako eta enpleguaren hazkunderako funtsezkoak diren aldetik; ikuspegi horrek erabateko aldaketa dakar gizarte-politikak karga ekonomikotzat eta hazkunderako eragozpenetzat hartzen zituen ereduarekiko.

- **Borondatezko jardueraren (ber)aurkikuntza eta komunitateko dimentsioa.** Biztanleriaren zahartzeak, krisi ekonomikoak, ongizateko Estatu jasaten ari den presioak eta borondatezko lana egiten duten pertsonen profilak izandako aldaketak (denboraren erabilgarritasunari, prestakuntzari, boluntariotzako erakundeekiko harremanari dagokienez) itxuraldatu egin dute jarduera solidario edo borondatezkoaren papera. Azken urte hauetan irabazi asmorik gabeko ekimenen eta komunitate-loturen garrantziaren berraurkikuntza bat geratzen ari da gizarte-politikak garatzeko orduan. Ekimen solidarioen berpizkunde horrek bi ezaugarri ditu: alde batetik, komunitate-autoantolaketako formulak indartzen ari dira tokian tokiko eta hurbiltasuneko elkartasuna sustatuz; eta bestetik, borondatezko ekintzan inplikatzeko formula berriak erabiltzen ari dira, eta horien artean banan banako boluntariotza-lana da azpimarragarria.
- **‘Making work pay’ filosofia edo enplegua nola bihurtu errentagarri.** ‘Enplegua errentagarri bihurtzeko’ edo *making work pay* neurrien helburua da diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzea eta aldi berean ordainsari baxua duen lanpostu batean aritzea modu malguagoan uztartzeko aukera ematea, oinarriko bi helbururekin: alde batetik, laneratzeari pizgarria kentzeko arriskua saihestea –diru-sarrerak bermatzeko prestazioen oinarritzat hartzen den irizpide diferentziala dela eta–, prestazio batetik lortutako diru-sarreraren eta soldata baxua duen lanpostu batean arizetik lortzen denaren arteko aldea txikia edo hutsa denean, diru-sarrera altuagoak bermatuz enpleguari ekiten diotenentzat; eta bestetik, soldata baxuak dituzten langileen pobrezia-tasak murriztea. *Making work pay* politiken helburu nagusia da errazagoa izan dadila bateratzea zenbateko baxuko soldata bat diru-sarrerak bermatzeko asistentzia-prestazio bat jasotzearekin, aldi baterako edo epemugarik gabe. Aitzindaria izan da EAE horrelako neurriak aplikatzen, enplegua sustatzeko sistemak erabiliz, eta orain beste autonomia-erkidego batzuek, adibidez Nafarroak, bide berari ekin diote. Bide batez esan behar da ikuspegi hori dagoela Erresuma Batuko, Alemaniako edo Frantziako diru-sarrerak bermatzeko sistemetan egin diren aldaketen oinarrian. Ezbairik gabeko emaitzak daudela esan ezin bada ere, egin diren ebaluazioetako askotan horrelako sistemek emaitza positiboak dituztela ikusten da.
- **Zerbitzu osagarrien garrantzia laneratzearen jasangarritasunerako.** Hainbat azterlanek agerian ipini dute nola laneratze azkarra, kosta ahala kostakoa, bilatzen duten programek emaitza kaskarrak erdiesten dituztela artatzen dituzten pertsonen ongizatearen ikuspuntutik. Bestalde, eskarmentuak adierazten du batzuetan pertsona askoren laneratzea galbideratzen edo zailtzen duten elementuak, zehazki pertsona horien kualifikazioarekin zerikusirik ez duten gorabeherak izaten direla, baizik lanpostu horretan aritzeak dituen baldintza zehatzen ingurukoak hain zuzen ere. Enplegu batean hasteak, eskuarki, eskatu ohi du erantzun bat ematea lanpostu batera heltzean, orokorrean edo berariaz, agertzen diren beharrezan. Hori dela eta, herrialde batzuetan estrategia zabalak landu dituzte pertsona bat ez dadin geratu lanpostu bat hartu gabe norbaiten zaintzan dituen erantzukizunengatik, lantokira joateko garraibiderik ez duelako, edo bere lana egiteko beharko duen tresneria erosteko baliabiderik ez duelako.
- **Enplegua eta prestakuntza, pertsona langabetuen eskubide.** Gazte Bermea programak aurrerapauso bat dira planteatu ahal izateko eskubide subjektibo moduan eta, bide batez, administrazioek duten betebeharrak bat bezala, hartarako baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonentzat laneratzeko laguntzak, prestazio ekonomikoen gaiaz landa. Horren harira, administrazio publikoek pertsona batzuei

–eta ez soilik pertsona gazteei– prestakuntza- edo laneratze-eskaintza bat egiteko obligazioa dutelako ideia enplegu-polituketara eraman litekeen aukera bat da, desenpleguan kronifikatzea saihesteko ondorio onuragarriak izango lituzkeena, enplegu-munduarekin harreman minimo bat bederen mantentzea lortzeko, eta/edo diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzerakoan. Gazte-bermearen sustraian datzan logika beste gizatalde batzuetara ere hedatzeak, hain zuzen, hainbat sektoretatik egiten ari diren lan bermatuaren proposamenen ildoan aurrerapauso parzial bat egitea dakar, eta eragin nabarmena izango luke kronifikatzeko arrisku larriena duten pertsonen laneratze-aukerei begira, bermatuko liekeelako lan-esperientzia aipagarri bat epe luzera produkzio-sistematik kanporatuta geratzen diren pertsonei.

- **Laguntza aurretiaz, bitartean eta ondoren: laneratze jasangarrien bilaketa.** Laneratze-programen multzo handi batek aintzat hartu ohi du izangaia lanpostu batera iritsi aurreko aldia, eta bideratzen ditu bere zerbitzuak orientabidera, bitartekaritzara edo langabe dauden pertsonen prestakuntzara. Egungo lan-merkatuak dituen ezaugarriek eta enplegarritasuna edukitzeko laguntza gehien behar duten pertsonen profilek, haatik, eskatzen dute laneratze-programen laguntzak eta bultzadak laneratzen diren bitartean eta ondoren ere iraun egin behar duela. Laneratzeen jasangarritasuna bermatzeko eskakizun bat da, programa horiek ez daitezzen bihurtu sartu-irten ilara intermitente bat kalitate kaskarreko enpleguetan.

4. Planaren inspirazio-iturri diren printzipioak

Aurreko orrialdeetan deskribatu diren elementuetatik abiatuta –arau- eta kontzeptu-esparrua, Gizarteratze Aktiborako III. Planaren ebaluazioko emaitzak eta gizarteratze- eta bazterte-egoerei buruz existitzen diren beharrezkoen txosten diagnostikoa–, atal honetan zehazten dira Planaren inspirazio-iturri diren printzipioak, bai, plangintzarako tresna gisa, bere izaerari eta ezaugarriei dagokien guztian, eta bai esandako planaren barruan sartzen diren jarduketan orientazioari eta edukiei dagokienez.

4.1. Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren izaera eta ezaugarriak

Gizarteratzeko IV. Planaren elaborazioari begira aintzat hartu diren printzipioak, Planaren beraren izaerari eta ezaugarriei dagokienez, honako hauek dira:

- Legeak berak ezartzen duenari jarraikiz, eta aurkezpenean adierazi den bezala, Gizarteratzeko IV. Euskal Plan hau **Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak prestatu du**, batzordekide guztien adostasuna lortu ostean. Ildo horretan, metodologiari buruzko atalean ere argitu den bezala, Plana aipatutako organo horretan ordezkatuak dauden administrazio guztien arteko **diagnostiko adostu** batetik abiatzen da, ekin beharreko premia eta beharrezkoen **lehenespen partekatu** bat jasotzen du eta **ibilbide komun** bat planteatzen du euskal administrazio guztientzat, bazterketa sozialaren eremuan.
- **Barne-koherentzia.** Barne-koherentzia diogunean programazioaren logikaz ari gara, zeinak helburuen eta jardueren leheneste koherente bat eskatzen baitu, emaitza jakin batzuk lortze aldera. Hor sartzen da, era berean, esku hartu beharreko beharrezkoen, problematika edo egoeren definizio komun batetik abiatzen diren ardatz, helburu eta jarduketa desberdinen arteko koherentzia ere. Zentzu horretan, plana, bere neurri guztietan, **bazterketa soziala kausa ugariko fenomeno bat dela aitortzetik** abiatzen da, ez baita diru-sarrerarik edo enplegurik ez izatera mugatzen. Horregatik, egoera horiei erantzun dimentsio-anitzak eskaintzen saiatzen da.
- **Kanpo-koherentzia.** Kanpo-koherentziarekin programa baten eta denbora eta espazio fisiko edo lurralde berean egikaritzen ari diren beste esku-hartze batzuen arteko elkarrekotasun maila adierazi nahi da. Kasu honetan, ahalegin berezia egin da **Gizarteratzeko Planaren edukiak lerrokatzeko** –beste elementu batzuen artean, planaren izaera dimentsio-anitza, erakunde-arteak eta sail-arteak kontuan hartuta– gizarteratzearekin eta bazterketa sozialarekin erlazioa duten beste eremu batzuetan **Eusko Jaurlaritzaren aldetik inplementazio-prozesuan dauden gainerako plan eta estrategiekin.** Arreta berezia eskaini zaio, zentzu horretan, Gobernu Kontseiluak XI. legegintzaldirako onartutako Gobernu Programari, bai eta Europako erakundeetatik gizarte-babesaren eta kohesioaren alorrean emandako orientazioei ere. Printzipio horren aplikazioan, Plan honetan jasotako hainbat jarduketa zehatz Eusko Jaurlaritzako sail desberdinetan garatutako beste estrategia edo plan batzuetatik datoz (haietako zenbait erakunde-arteak izaera dutenak), erabaki delako ez duela inolako zentzurik, aipatutako eremu horietan, zeinek bere dagokion Sailean gizarteratze eta bazterketa sozialeko egoerekin erlazioa duten

alorretan aurreikusten dituztenekiko jarduketa gehigarriak liratekeenak planifikatzeak edo programatzeak.

- **Dimentsio-aniztasuna.** 18/2008 Legean ezarritakoarekin, aurreko orrialdeetan egindako gogoetarekin, agenteek adierazitako iritziarekin eta erabili den bazterketa sozialaren kontzeptu berarekin bat etorririk, Planak izaera dimentsio-aniztuna du eta hainbat eremutako jarduketak gehitzen ditu, hala nola enplegua, diru-sarrerak bermatzea, gizarte-zerbitzuak, osasuna, etxebizitza eta hezkuntza, bai eta beste hainbat elementu zeharkako ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, zenbait kolektiboren beharrizan espezifikoak artatzearekin edota gizarteratzeko politiken erakunde-arteko artikulazioarekin zerikusia dutenak.
- **Fokalizazioa eta ebaluatze modua.** Plana dimentsio anitzekoa, sail artekoa eta zeharkakoa izateak ez du esan nahi ahalik eta fokalizazio eta zehaztapen maila handiena bilatzen saiatu ez denik, ezta berorren ebaluazioa ahalbidetzen duten prozesu- eta inpaktu-adierazleak garatu ez direnik ere. Ikuspuntu horretatik, ahalegin handia egin da **plan errealista** bat elaboratzeko, zeina jarduketa zehaztuz zentratuko den, bere gauzatze- eta inpaktu-maila ebaluatu ahal izango delarik, betiere, sartzen diren **jarduketak**, aldi berean, **garrantzitsuak**, **bideragarriak eta egokiak** izan daitezzen eta inplikaturako administrazio guztiak parteka ditzaten.
- **Izaera dinamikoa.** Planaren kudeaketari eta inplementazioari dagokion atalean planteatzen den bezala, honako ideia honetatik abiatzen da: **aurreikusitako jarduketak aldatu eta/edo osa daitezke –eta hala egitea komeni da– gauzatze-prozesuan zehar**, jarduketa berriak erantsita edo hasieran aurreikusitakoak aldatuta.
- Azkenik, Planaren izaeraren eta helburuen ikuspegitik, bere elementu nagusietako bat, hain zuzen, **gizarteratzearen alorreko euskal politikak artikulatzeko eta egituratzeko oinarritzko erreminta gisa egozten zaion papera da.** Halaxe da, bai egindako ebaluazioak bai diagnostikoak agerian uzten dute –enpleguaren, diru-sarrerak bermatzearen, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, etxebizitzaren edo osasunaren alorrean egin beharreko jarduketa sektorialen hobekuntzarekin batera–, Euskadin gizarteratzeko politiken eremuan dagoen beharrizan nagusiak hauek direla: sistemaren barne-artikulazioa, berorretan esku hartzen duten (makro, meso eta mikro mailan) agenteen koordinazioa, esku hartzeko eredu komun baten sorkuntza, gizarteratzeko politikak aztertzea eta ebaluatzea ahalbidetuko duten mekanismoak sortzea, eta politika horien pertzepzioan eta legitimotasun sozialean eragitea. Horrek guztiak eskatzen du, Plan honen esparruan, hainbat mekanismo sortzea **lidergo tekniko eta politiko argiago bat** gauzatu ahal izateko, **Euskadik lurralde inklusiboa** izan behar duen ideia azpimarratzen duen kontaktuzun partekatutik abiatuta.

4.2. Jarduteko printzipioak

Kontzeptuen ikuspuntutik, Plan honetan aurreikusten diren neurriak ondorengo jarduketaririzpide edo printzipio hauetatik abiatzen dira:

- **Aktibazio inklusiboa.** Askotan esan izan da gizarteratzea lanpostu bat edukitzearekin soilik parekatzen denean, gizarteratze aktiboaren ikuspegiak ez duela behar bezainbat kontuan hartzen gizarte-bazterketa, sarritan, kausa desberdin askoren ondorio izaten dela. Agerikoa bada ere enplegu ordaindua edukitzea funtsezko faktorea dela gizarteratua egoteko –berori da, era berean, gizarteratzeko dispositiboetan artatutako pertsona gehienen eskaera nagusia–, zenbait kasu jakinetan komenigarriagoa, lehenesgarriagoa edo errealistagoa gerta daiteke bizimoduko beste dimentsio batzuetan lan egitea. Plan honen abiapuntuan, beraz, gizarteratzea aktibatuko duen eredu bat –edo herritar aktibo batzuen– aplikatzeko premia dago, hain zuzen ere, gizarteratzearen eta bere inplikazioen dimentsio-aniztasuna aitortzeko. Horretarako, beharrezkoa da –nahiz eta, lehentasunez, enplegu normalizatua lortzen zentratuta egon beharko den– sozialki baloratuak dauden beste jarduera batzuetara irekita dagoen gizarteratze-eredu bat eraikitzea. Lanak pertsona askoren giza errealizazio eta bizipoz terminoetan jokatzeko duen paper ukazina gutxietsi gabe, gogoeta honek gizarteratze-programek, enplegu-bilaketan saiatzeaz gainera, bizimoduko beste dimentsio batzuk ere lantzeko premia azpimarratzera garamatza; dimentsio horien artean daude aisialdia, kultur jarduerak, boluntarioria, edota gizarte-interesa izan dezaketen komunitateko beste hainbat jardura.

Gizarte-inbertsioa eta prebentzioa. Gizarte-inbertsioaren paradigma da, gaur egun, Europako erakundearen erantzun ofiziala ongizate-estatuaren zailtasunen aurrean. Ikuspegi horrek garapen ekonomikoa, gizarte-babesa eta desberdintasunen murrizketa uztartzea bilatzen du, batez ere epe luzera begira, emakumea lanmerkatara gehitzearen eta giza kapitalean inbertsioak egitearen bitartez. Bere ezaugarri nagusia konponketara bideratutako politiketatik prestakuntzara orientaturiko beste batzuetara igarotzea da, jo baina familia, hezkuntza eta genero-berdintasuneko politikak –beste batzuen artean– elementu giltzarriak direla garapen sozialerako ez ezik, ekonomikorako ere. Abiapuntu horretatik, ikuspegi horrek haurtzaroen inbertitzea ahalbidetzen duten zerbitzuei jartzen die arreta, nolabaitteko aukera- eta kokapen-berdintasun maila ahalbidetuko duten baldintzak sortzeari, seme-alabak dituzten familiei laguntzearen eta emakumeei ordaindutako enplegua erraztearen bidez.

Plan hau 2016/20ko Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoarekin lerrotzeko da, prebentzio-alderdiak sendotuko dituzten gizarte-zerbitzuen eredu berri baten aldeko apustua egitean. Horrela, gizarte-zerbitzuen gaur egungo eredu gaitzitearen aldeko apustua egiten da, eredu horrek pertsonen interakzio egoeraren hondamen larria gertatu denean jarduteko joera baitu; are gehiago, aipatutako egoera koadro konplexuago baten parte izaten denean, non pertsonen beste premia batzuk ere presente egoten baitira, esate baterako, bizilekuarekin edota elikadurarekin zerikusia dutenak. Gizarte-zerbitzuetan prebentzioa sendotzeak eskatzen du, zalantzarik gabe, etxeke eta komunitateko oinarrizko esku-hartzeak handitzea, zerbitzu horiei lagun egiteko osagaiak ez ezik, gizarte-hezkuntzako eta arlo psiko-sozialeko esku-hartze indartsuagoak ahalbidetuz.

- **Bizi-kalitatea, pertsonalizazioa eta autonomia.** Plan honen esparruan egin den diagnostikoak agerian utzi ditu gizarte-zerbitzuen eremutik bazterketa-egoerei ekiteko orduan oinarritzat hartzen diren kontzeptu-ereduek atxikita dituzten muga edo eragozpen batzuk. Alde batetik, 'aldaketarako motibazioa' duten pertsonengana – hau da, oinarrian birgaitze izaera duen esku-hartze batean inplikatzeko gai direnengana– gehiegi bideratutako esku-hartze eredia da. Horrek esan nahi du, orokorrean, exigentzia maila altuak aplikatzen direla eta izaera finalista eta lineala duten esku-hartzeak garatzen direla, hau da, bazterketa-ibilbideen espiraltasunera gaizki egokitzen direnak eta baldintza- eta merezimendu-irizpideetan oinarrituegiak daudenak. Ikuspegi finalista hori izan ordez (zeina desgaitasuna birgaitzeko eredu medikuarekin lotzen baita), Plan honek aldeztu du –gizarteratzeko baliabideetan artatutako pertsona batzuen kasuan behintzat– daukanari eustera, kalteak murriztera eta bizi-kalitateko gutxieneko maila batzuk bermatzera orientatua egongo den perspektiba aplikatu behar dela, baldintzekin hain lotura estua ez duten planteamenduetatik.

Antzeko zentzuan, Plan honek gizarteratzeko eta/edo lan mundura sartzeko zerbitzuak eta programak norbanakoaren arabera egokitu beharra ikusten du, hau da, ahal den neurri handienez, pertsona erabiltzaile bakoitzaren beharrez, aukera, desio eta itxaropenetara doitu beharra.

- **Eskubideen ikuspegia.** Erreferentziako esparru juridikoa aztertzean adierazita-koarekin bat etorririk, Plan honen abiapuntuan dago, era berean, eskubideen ikuspegi jakin bat, bi elementutan gauzatzen dena: alde batetik, hainbat zerbitzu eta prestaziotarako –osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, diru-sarrerak bermatzearen edo gizarte-zerbitzuen alorrean– eskubide subjektiboa finkatzea, ezarritako sarbide-baldintzak betetzen dituzten pertsonen ukatu ezin zaizkienak; eta, bestetik, pertsonen eskubideekiko errespetua ezinbesteko baldintza izatea kalitateko arreta eskaintzeko. Horrek berarekin dakar gizarteratzeko zerbitzuen erabiltzaileek, aurrez adierazitako eskubide subjektiboez gainera, kalitateko arreta jasotzeko, duintasunerako, pribatutasunerako, intimitaterako, burujabetasun eta autonomiarako, hautatzeko ahalmenetarako, edo pertsonaren poztasun eta errealizaziorako eskubideak ere praktikan jartzeko aukera izan behar luketela.
- **Zerbitzuen eta prestazioen konbinazio egokia.** Plan hau elaboratzeko egindako diagnostikoak nabarmen uzten du zenbateraino dagoen –gastuari dagokionez– bazterketaren kontrako euskal eredia prestazio ekonomikoetara argi eta garbi bideratuta. Ildo horretan, Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, EAEk batez bestekoa baino gastu handiagoa bideratzen du, biztanleko, prestazio ekonomikoari dagokienez, baina, txikiagoa, aldiz, zuzeneko arreta-zerbitzuetan. Plan honen iritzian behar-beharrezkoa da argi eta garbi aurrera egitea bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-prozesuak sostengatzeko kapaz diren zentro, programa eta esku-hartze pertsonalizatuaren garapenean; bai eta bazterketa-egoera berrietan amai daitezkeen arrisku- edo ahultasun-egoerak prebenitzeko ere. Horrek eskatzen du, diru-sarrerak bermatzeko prestazioen euskal sistema mantentzeaz eta hobetzeaz gainera, zuzeneko arretako zerbitzuen prestazioan aurrera egitea, batez ere, gizarte-zerbitzuen eremuan, enplegu-politika aktiboetan eta hezkuntzan.
- **Komunitateko arreta.** Planaren oinarritzko helburuetako bat gizarteratzeko politiken komunitateko dimentsioa indartzea eta sendotzea da, egiaztatu baita bazter-

keta-egoeren zergatiak eta kausak –norbanakoak izan zitzakeen eragileetatik harago– batez ere egiturazkoak izaten direla eta, komunitatearen esparruan adierazten direnez, esparru horretan egin behar zaiela aurre. Horren ondorioz beharrezkoa da koordinazio-mekanismoak sortzea maila horretan garatzen diren komunitateko dinamiken sailean lan egiten duten zerbitzuen artean eta, era berean, auto-antolaketa komunitarioko formulei bultzada ematea tokiko eta hurbiltasuneko elkartasuna sustatuz.

- **Herritarren, eraginpeko pertsonen eta Hirugarren Sektoreko erakundeen parte-hartzea.** Plana diseinatzeko eta gauzatzeko orduan, gizarteratzeko politike-tan inplikaturako agente guztien parte-hartzea bultzatu nahi da, lankidetzan publiko-pribatua ezaugarri duen esparru batean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legeak (maiatzaren 12ko 6/2016) dioenaren arabera. Horrek eskatzen du, berori osatzen duten jarduketan diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan, erakunde publikoen multzoak ez ezik, Hirugarren Sektoreko erakundeek, arloko enpresek eta bazterketa sozialeko egoeren eraginpean dauden pertsonak, guztiek hartu beharko dutela parte.

5. Ardatzak, jarduketa-eremuak, helburu estrategikoak eta jomugak

5.1. Ardatzak eta jarduketa-eremuak

Egindako gogoetaren arabera, **Gizarteratzeko IV. Euskal Plana** hiru ardatz edo planotan artikulatzen da:

- **Diru-sarrerak bermatzeko eta laneratzeko politikekin berriaz erlazionatutako neurriak**, 18/2008 Legearen arabera, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren erdigunea eratzen dutenak, hain zuzen ere.
- **Gizarte-zerbitzuen, osasunaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren eremuetan edo beste batzuetan garatu beharreko neurri sektorialak**, sektore horien plangintzan jada sarturik zeuden jarduketak oinarritzat hartuta, eta plangintza horietara Plan honetan ezarritako helburuak eta lehentasunak gehiturik.
- Gizarteratze-politiken **erakunde-arteko artikulazioarekin lotura duten neurriak**, arreta berezia jarririk **planaren bultzada politikoari eta segimenduari, sektore arteko koordinazioa hobetzeari eta esku-hartzeko eredu komun eta partekatu bat** sortzea ahalbidetuko duten tresna tekniko eta profesionalen garapenari.

5.2. Helburu estrategikoak eta jomugak

Honako hauek dira eremu tematiko horietako bakoitzean ezarritako helburu estrategikoak:

- **Enplegua.** Enplegu prekarioa eragiten duten prozesuak prebenitzea eta haiei aurre egitea, gazteen eta/edo enplegua lortzeko zailtasun handienak dituztenen laneeratzea bultzatzea eta Euskal Enplegu Sistema hobetzea
- **Diru-sarreraren bermea.** Diru-sarrerak bermatzeko euskal eredia babestea eta hobetzea, bere legitimotasun soziala eta datozen urteetarako jasangarritasun ekonomikoa bermatuz.
- **Gizarte-zerbitzuak.** Gizarte-zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea, hala, euskal herritar guztiek zerbitzu horiez gozatzeko duten eskubide subjektiboa eraginkorra izan dadin, gizarte-zerbitzuen sistema Plan honetan adierazitako printzipioetara kontzeptualki egokitzen laguntzea eta gizarteratzeko programa berriak bultzatzea herritarren aktibotasunean eta parte-hartzean azentua jarririk.
- **Etxebizitza.** Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen etxebizitza egoki baterako sarbidea erraztea etxebizitza izateko duten eskubide subjektiboa garatzearen, prebentzioaren eta bizitegi gabeko egoerei ekitearen bitartez.
- **Hezkuntza.** Ahultasun sozioekonomiko handieneko egoeran dauden pertsonak, haien adina edozein dela ere, kalitateko hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuetara heltzen direla bermatzea, aukera-berdintasuna sustatzeko eta helduen mundura arrakastaz igaro daitezen.

- **Osasuna.** Ahultasun sozialeko egoeran dagoen populazioren artean ohitura osasungarriak sustatzea, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen osasun-zerbitzuetarako sarbidea hobetzea eta osasun mailako desberdintasun sozialak murriztea.
- **Gobernamendua, koordinazioa eta sistemaren artikulazioa.** Sektore arteko koordinazioa hobetzea, esku-hartzeko eredu komun bat garatzea, berrikuntza eta jakintzaren kudeaketa bultzatzea eta gizarteratzeko euskal sistemaren barne-artikulazioan aurrera egitea.

Helburu estrategiko horietako bakoitzerako ezarritako jomugak honako hauek dira:

a) Enplegua

1. **Enpleguaren kalitatea hobetzea**
Enpleguko pobrezia-aren problematika prebenitzea eta berorri ekitea eta laneko prekarietateari lotutako faktoreen eragina murriztea
2. **Gazteen eta enplegarritasunerako laguntza handiena behar duten pertsonen laneratzea bultzatzea**
Beharrezkoak diren lan-aktibaziorako dispositiboak garatzea enplegarritasuna sostengatzeko premia handiengan dauden pertsonen enplegu iraungarriak eta kalitatekoak lortzeko aukerak eskaintzeko xedearekin, hala enpresa arruntetan nola ekonomia sozialaren esparruan, berorien gizarteratzea eta bizi-kalitatea hobetu dezaten.
3. **Lanbide / Euskal Enplegu Zerbitzuaren erreforma eta modernizatzea**
Enplegu Zerbitzu Publikoa beharrezko tresnaz hornitzea, zerbitzu horiek kudeatzen dituzten erakundeekin lankidetzan, orientazio-, prestakuntza- eta laneratze-funtzioak indartzea ahalbidetzeko, lehentasuna emanik zailtasun handienak dituzten kolektiboek enplegua bilatzen laguntzeari eta laneratzekeko ibilbideak norbana-koaren arabera diseinatzeari
4. **Ekonomia sozialaren, auto-enpleguaren, mikro-ekintzaitzaren eta ekintzaitza sozialaren aldeko apustua**
Ekonomia sozialaren eta auto-enpleguaren esparruan, laneratzekeko aukera jasangarriak sortzea, enpresa arruntetan enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzat epe luzera bideragarriak diren ekintzaitza-formulak sustatzearen bitartez
5. **Gizarte-erantzukizuna sustatzea administrazio publikoan**
Enplegarritasuna sostengatzeko premia handiengan dauden pertsonentzat laneratzekeko aukerak sortzea, horretarako bi bide erabilita: kontratazio publiko jasangarri eta arduratsuan oinarritutako politiken eta enplegu publikoaren bitartez
6. **Emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handitzea, emakumeek kalitateko lanpostuetan parte hartzearen bitartez**
Emakumeen burujabetasun ekonomikoa bultzatzea, haiek kalitateko enpleguak lortzea sustatuz

b) Diru-sarreraren bermea**1. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) finkatzea**

DSBE sistema eguneratzea eta zuzentzea. Horretarako beharrezkoa izango da hautemandako disfunczioak zuzentzea, prestazioaren diseinua gaurko testuinguru sozioekonomikora moldatzea, Euskadiko ongizate-eredu orokorraren barruan sistema normalizatzea, eta diru-sarrerak bermatzeko gure sistemari ebaluazioan eta ezagutzan oinarritutako berrikuntzak aplikatzea, Europa mailan politika sozialen abangoardian mantentzea posible izan dadin.

2. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) bermatzea

Larrialdietarako laguntzen gaur egungo erregulazioa aldatzea, laguntza-sistema beharizan berrietara hobeto egokitzea errazteko

3. Estatuaren eskumenekoak diren enplegu-politika pasiboak berriz diseinatzea sustatzea

Autonomia Erkidego osorako diru-sarrerak bermatzeko politika bakar, integral eta eraginkor bat diseinatzea.

4. Seme-alabak dituzten familiei prestazio ekonomikoak emateko sistema hobetzea eta arrazionalizatzea

Diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren ikuspegi familiarraren eta haurtzarorrekiko lagunkoiaren aplikazioan sakontzea, bereziki areagotuz haurren pobrezia eta bazterketa belaunaldi batetik bestera transmititzea borrokatzeko duen ahalmena

c) Gizarte-zerbitzuak**1. Gizarte-zerbitzuen Maparen eta Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren garapenean aurrera egitea, gizarteratzeko zentroei eta zerbitzuei dagokien guztian**

Gizarte-bazterketaren eremuko arreta-sarearen garapenean aurrera egitea eta proiektu esperimentalen hedapena sustatzea.

2. Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen eremuko arau-garapena amaitzea

Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuekin lotura duten zerbitzu, zentro eta programen funtzionamenduari erlazioa duten alderdi guztiak arautzea, esku-hartzeko eredu komun bat edukitzeko eta zerbitzu desberdinen eginkizunak, ezaugarriak eta edukiak argitzeko xedearekin.

d) Osasuna**1. Prebentzioa eta ohitura osasungarriak har edo manten daitezela sustatzea**

Osasunaren sustapena eta bizimodu zein ingurune osasungarriak bultzatzea, sektoreen arteko elkarlanaren bidez, hala tokiko nola komunitateko esparruetan.

2. Bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen osasun-zerbitzuetarako sarbidea bermatzea

Osasun-maila apalagoak dituzten pertsona taldeei zuzendutako berariazko jarduketak garatzea osasun-arretako desberdintasunak murrizteko, arreta berezia eskainirik adinekoei, desgaitasunen bat dutenei, etorkinei, gaixotasun mentalak dituztenei edo preso daudenei

3. Osasun mailako desberdintasunak murriztea eta Euskadiko osasun-sisteman ekitatea indartzea

EAEko biztanlerian osasunean dauden desberdintasun sozialak eta generodesberdintasunak murriztea, talderik kaltetuenen egoera hobetuz

4. **Genero-indarkeria prebenitzea eta berorri ekitea osasunaren eremutik**
Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta tratamendua sustatzea osasun-zerbitzuetan, inplikaturako sektore guztien artean erabakiak era bateratuan hartzea sustatuz
5. **Osasun-arloko desberdintasunen monitorizazioan aurrera egitea**
Osasun-desberdintasunen gaineko ikerketa eta monitorizazioa sustatu eta gartztea.
6. **Ahal den neurri handienean murriztea, betiere ekitatearen ikuspegitik, substantzia mendekotasun-sortzaileen kontsumoa eta jokabide-adikzioak eta, ondorioz, baita pertsonen osasunean eta haien familien, komunitatearen eta, oro har, biztanleriaren gainean eragiten dituzten efektuak ere**
Osasunaren sustapena eta substantzien eskaria txikiagotzen eta mendekotasunik gabeko bizimodua eramaten laguntzen duten trebetasunak eskuratzea bultzatzea; baita mendekotasunetatik eratorritako arriskuak eta kalteak minimizatzea ere, Euskadiko osasun-sarearen eta gizarte-zerbitzuen bitartez.

e) Hezkuntza

1. **Hautzaroko arreta-zerbitzu irisgarri eta kalitatekoetara sarbidea bermatzea, bereziki errenta urrirenako familiei eta/edo hiriko eremu behartsuenetakoei**
Kalitateko hautzaroko arreta-zerbitzuen eskaintza areagotzea eremu behartsuenetan eta/edo ahultasun handieneko pertsonen kasuan
2. **Eskola inklusibo, ekitatibo eta kalitateko baten eraikuntzan aurrera egitea**
Gizarte-desabantaila egoeran dauden ikasleei hezkuntza-erantzun egokia eta kalitatekoa eskaintzea, eskola-ingurune arruntean nahitaezko hezkuntzako helburuak lor ditzaten; horretarako, haien beharrian eta ezaugarrietara egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak egin beharko dira ikastetxean eta eskola-ingurunean, gizarte konplexu batean txertatzen jakingo duten pertsona trebatuak garatzeko.
3. **Ahultasun handieneko egoeran dauden gazteak Lanbide Heziketara heltzea erraztea eta hortik enplegura igarotzea bultzatzea**
DBH bertan behera uzten duten hezkuntza-premia bereziko ikasleei eta sostengu-premia handieneko gainerako kolektiboek –desgaitasun intelektuala duten pertsonen, bereziki– lanbide-heziketari lotutako prestakuntza-aukerak eskaintzea eta lan-mundura arrakastaz igarotzen direla erraztea
4. **Bizitza osoko prestakuntza-jarduerak bultzatzea**
Euskadiko herritar guztientzat –berdintasun-baldintzetan– sarbide unibertsala bermatzea, bizitza osoko ikaskuntzara eta gizartean integratzeko eta bere garapen pertsonalerako beharrezkoak dituen oinarriko gaitasunak bereganatzeko.

f) Etxebizitza

1. **Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen etxebizitza duin, irisgarri eta egoki baterako sarbidea bermatzea edo, kasua hala bada, prestazio ekonomiko bat aitortzea zeinaren bitartez etxebizitza baterako sarbidea bermatuko zaion alokairu-erregimenean**
Etxebizitzaren Legean aitortuta dagoen etxebizitza izateko eskubide subjektiboa garatzea

2. Bizitegi-bazterketa egoerak prebenitzea eta bizitegi-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri etxebizitza independente baterako sarbidea erraztea

Bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzeko eta gutxitzeko Euskal Estrategia garatzea

3. Energia-pobretasunari aurre egitea

Energia-pobretasuneko egoerak prebenitzea eta murriztea ahalbidetuko duten neurriekin osatutako sorta integral bat garatzea, prestazio ekonomiko espezifikoekin, sentsibilizazio- eta aholkularitza-programen eta etxebizitzetako energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketaren bitartez

g) Erakundeen arteko koordinazioa eta artikulazioa

1. Berariazko jarduketa-planak garatzea desabantailan dauden eskualde eta udalerrietan eta sareko lana sustatzea lurralde-mailan

Euskadin gertatzen diren lurraldeen araberrako desberdintasunak murriztea, pobrezia- eta langabezia-aren arloan

2. Sistema arteko koordinazio-erremintak garatzea auzo, udalerrri edo bailara mailan eta esku-hartze prozesuen komunitateko dimentsioa sustatzea

Lurralde bakoitzeko ezaugarri bereizgarriak kontuan hartzeaz gainera, agente desberdinak integratzen dituzten eta arreta komunitarioa ahalbidetuko duten esku-hartze prozesuak posible egitea.

3. Banakako esku-hartze prozesuetan agenteen koordinazioa sustatzea

Pertsona edo familia berberarengan sistema desberdinetatik esku hartzen duten agenteen esku-hartze koordinatuaren alde egitea, balorazio-prozesuak hobetuz eta laguntza soziala eta kasuen kudeaketa indartuz

4. Gizarteratzearen eremuan esku-hartze esparru komun bat sortzea praktika profesionala artikulatu dezan honako printzipio hauen inguruan: pertsonen zentratutako arreta, norbanakoaren araberrakoa, aktibazio inklusiboa eta bizikaltatea

Gizarteratze-egoeran dauden pertsonetik arreta-eredua berrorientatzea eta pertsona ukituen parte-hartzea sustatzea

5. Jakintzaren kudeaketa bultzatzea eta gizarteratzeko euskal sistemaren legitimitasun soziala bermatzea

Gizarteratzeko politiken eremuan, ikerketa, prestakuntza eta ebaluazioa –era koordinatuan– sustatzea eta behatze- eta prospektiba-lana hobetzea gizarteratze alorrean

7. Arreta Soziosanitarioko eredu eraginkor, koordinatu eta jasangarri bat garatzea, pertsonen zentratua, bere bizi-proiektuaren protagonista den heinean

Koordinazio soziosanitarioa bultzatzea eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta soziosanitarioa hobetzea

6. Gizartearen aniztasunarekin koherentea den sistema baten eraikuntza bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea

Emakumeen ahalbidetzea sostengatzea maila guztietan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aitortzea eraldaketa sozial eta ekonomikorako beharrezko baliogisa eta emakumeen kontrako indarkeriak eragindako kalteak hautematea, artatzea eta konpontzea.

- 7. Hirugarren Sektore sozialaren garapena bultzatzea Euskadin**
Erantzukizun publikoko zerbitzuak eskaintzeko eredu mistoa bultzatzea eta arretarako eredu komunitarioa sustatzea Hirugarren Sektoreko erakundeetan
- 8. Gizarteratzeko Euskal Plana tresna baliagarri bihurtzea gizarteratzeko euskal sistema artikulatzeko, agente guztien parte-hartzearen bitartez**
Lidergoa bultzatzea Planaren aplikazioan eta gizarteratzeko euskal sistemaren artikulazioan.

6. Eginbeharrak eta jarraipen-adierazleak

6.1. Sarrera

Gizarteratzeko IV. Euskal Plan honen esparruan gauzatuko diren ekintzak jaso dira kapitulu honetan, eta honako hauen inguruan antolatuko dira:

- Hiru jarduera-ardatz;
- Zazpi helburu estrategiko;
- 34 jomuga;
- 146 jarduketa.

Eremu tematiko horietako bakoitzerako helburu estrategiko bat ezarri da, aurrera egiteko zer norabidera jo nahi den deskribatzen duena. Era berean, enuntziatu bat adierazi da jomuga bakoitzerako, gauzatzeari nahiz eraginari dagokienez helburu horren bitartez zer inpaktu erdietsi nahi den argitzeko.

Jarduketa bakoitzerako, bestalde, zehazten da euskal administrazioaren zein mailak duen hura garatzeko eta/edo hari jarraipena egiteko ardura, dela bakarka, dela beste administrazio batzuekin lankidetzan.

Garrantzitsua da adieraztea ezen, jarduketa gehienak dagoeneko indarrean edo aribidean dauden beste plan batzuetatik datozen heinean, jarduketan enuntziatuak ez duela beti zehaztasun-maila berbera. Nolanahi ere den, aurrez esan bezala, ahaleginak egin dira helburu estrategiko eta jomuga guztietan txertatzeko jarduketa aski zehatz eta ebaluagarriak, helburu orokorrak planteatzetik haratago. Hala ere, adierazi behar da zenbait jarduketak neurri zehatz eta espezifikoetara egiten dietela erreferentzia eta, aldiz, jatorriko idazketaren arabera, helburu edo orientazio orokorrei buruzkoak direla beste batzuk.

Jarduketan gauzatze-maila ebaluatzeko, bi motatako adierazleak sartu dira:

- Lehenik eta behin, eraginari buruzko adierazleak aukeratzearen alde egin da; hau da, euskal biztanleriaren edo biztanle kolektibo jakin batzuen egoera neurtzeari buruzkoak dira, jorrotutako lan-alorre dagokienez.
- Dena dela, prozesuari edo emaitzari buruzko adierazleak ere sartu dira, eta jarduketa batzuk zenbateraino jo daitezkeen gauzatutzat neurtzen dute –jarduketa horiekin lotutako eragin adierazlerik ezean–.

6.2. 1. ardatza: Enplegua eta diru-sarreraren bermea

a) Enplegua

Enpleguaren eremuan, honako helburu estrategiko hau planteatzen da: **Enplegu prekarioa eragiten duten prozesuak prebenitzea eta haiei aurre egitea, gazteen eta/edo enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten laneratzea bultzatzea eta Euskal Enplegu Sistema hobetzea.** Horretarako, 6 jomuga eta 26 jarduketa zehatz proposatu dira.

ENPLEGUA	
1. jomuga. Enpleguaren kalitatea hobetzea. Enpleguko pobrezia-aren problematika prebenitzea eta berorri ekitea eta laneko prekarietateari lotutako faktoreen eragina murriztea	
JARDUKETA	ARDURADUNA
1. Enplegurako pizgarrien gaur egungo sistema indartzea eta finkatzea, DSBEren esparruan, a) gaur egun DSBE laneko errenten osagarri gisa jasotzeko ezarrita dauden denbora-mugak ezabatuz eta epemugarik gabe jaso dadila ahalbidetuz, baldin eta hura eskuratzeko baldintzak betetzen badira; b) gehieneko muga ezarriz soldataren osagarri gisa jaso daitekeen prestaziorako; c) aldaketak eginez enplegurako pizgarriak kalkulatzeko erabiltzen den formularen, halako moduz non babes handiagoa eskainiko zaien lanaldi luzeagoak egiten dituztenei, eta ez diren sustatuko oso iraunaldi laburreko enpleguak	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza Lanbide
2. Lantokietako lan-baldintzen gaineko zaintza handitzea: egiaztatzea enpresek beren betebeharrak betetzen dituztela desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeari dagokionez; segurtasun-ikuskapenak egitea istripu kopuru bereziki handiak izan ditzaketen sektoreetan; enpresek laneko arriskuen prebentzioaren arloan dituzten betebeharrak betetzen dituzten egiaztatzea eta kontrolatzea, lantokietako segurtasunean eta osasunean genero-ikuspegia txerta dadila sustatuz; eta lantokia partekatzen duten enpresek (bereziki, azpikontratazioko kasuetan) laneko arriskuen arloan dituzten koordinazio-neurriak egiaztatzea	Lan eta Justizia Saila Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza
3. Laneko ikuskaritza-zerbitzuak indartzea, Laneko Arriskuen Prebentzioko ikuskariordeen eskala sendotuz	
4. Ikuskaritzako lanean berariazko bultzada ematea genero-ikuspegiari, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearekin sinatutako indarreko hitzarmena garatuz	

ENPLEGUA	
2. jomuga. Gazteen eta enplegarritasunerako laguntza handiena behar duten pertsonen laneratzea bultzatzea	
Beharrezko antolamendu guztiak garatzea, gazteen, DSBEren hartzaileen eta, oro har, enplegarritasunerako laguntza behar handienak dituzten pertsonen laneratzea aktiba dadila sustatzeko, dela enpresa arruntetan, dela gizarte-ekonomiaren esparruan	
JARDUKETA	ARDURADUNA
5. Lehenengo laneko esperientziara sarbidea sustatzeko tresnak indartzea, esaterako, Lehen Aukera programa, langabezian dauden eta aurrez lanean eskarmenturik ez edo eskarmentu eskasa izan duten gazteen kontratazioa babesten duena, haien titulazioarekin lotutako enplegutara sarbidea izaten eta, horrenbestez, laneko esperientzia eskuratuz euren enplegarritasuna hobetzen laguntzeko	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza Lanbide
6. Iraupen luzeko langabeei laneratzen laguntzeko jarduketa integralak egin daitezela sustatzea; besteak beste, pertsona horiei lan-merkatuan sartzeko bidean banan-banako informazioa, orientazioa, aholkularitza, jarraipena eta laguntza emateko zerbitzuak	
7. Laneratze laguntza osagarriak ematera zuzendutako proiektu pilotuak garatzea, arreta berezia jarriz laneratze hainbat arlotan dauden premiei: lana eta familia bateratzea, haurren zaintza, garraioa eta laneratzeak dakartzan gainerako gastu ekonomikoak	
8. Lanbide-prestakuntzako eta laneratze ekintza konbinatuen esperientzia pilotuak diseinatzea, 45 urtetik gorako langabeen, iraupen luzeko langabeen eta/edo bazterketa egoeran dauden langabeen enplegarritasuna hobetzera bideratuak	
9. Errelebo-kontratueta aurreikusitako hobariak handitzea errelebistak DSBEren hartzaile eta/edo iraupen luzeko langabe direnean	
10. DSBE erregulatzen duen araudian txertatzea Lanbide okupazioaren edo lanaren arloko hautabide zehatzak eskaintzeko konpromisoa izango duela, prestazioa modu jarraituan jasotzen epe jakin bat gainditu baino lehen	
11. Enplegu-zentro berezietan eta laneratze-enpresei babes ematea, enplegua mantendu eta sortzeko pizgarriak emanez eta enpresekin lankidetzak ezartzeko modua emango duten ekoizpen-jarduera berrien identifikazioa sustatuz, desgaitasuna duten pertsonen nahiz bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenei ohiko enpleguan laneratzea errazteko	
12. Desgaitasuna duten pertsonak enpresetan laneratze pizgarriak ematea, haien baldintza fisiko, psikiko edo intelektualekin bat datozen lanpostuen ezarpena sustatuko duten laguntza-programen bitartez (enplegu-enklabeak, enpresen kontratazioa laguntzeko programak, eta abar), edo, enpresetan haiei beren zereginak betetzea errazteko asmoz, haien esku profesional espezializatuak jarriko dituzten enplegu-jarduketa lagunduen bitartez	
13. Enplegurako prestakuntza-ekintza espezializatuak garatzea, desgaitasuna duten pertsonen zuzenduak berariaz, enplegurako prestakuntza-ekintzen esparru orokorraren barruan.	
14. Beste babes figura batzuk –adibidez, enplegu-enklabeak– sustatzea desgaitasuna duten pertsonen enplegu lagundutik merkatu arruntera igartzeko bide emateko, eta antzeko moldeak garatzeko proiektu pilotuak babestea bazterketa-arriskuan dauden beste talde batzuei enplegu-aukerak emateko	
15. Zerbitzu espezializatuak garatzea desgaitasuna duten pertsonen laneratze orientazioa eta laguntza emateko, lanbide-orientazioko ereduaren esparru orokorraren barruan, baina kolektibo horren behar berezietara egokituak	

ENPLEGUA	
3. jomuga. Lanbide erreformatzea eta modernizatzea Enplegu Zerbitzu Publikoa beharrezko tresnaz hornitzea, orientazio-, prestakuntza- eta laneratze-funtzioak indartzea ahalbidetzeko, lehenetsia emanik zailtasun handienak dituzten kolektiboek enplegua bilatzen laguntzeari eta laneratzekeo ibilbideak norbanakoaren arabera diseinatzeari	
JARDUKETA	ARDURADUNA
16. Lanbideren enplegu-eskatzailentzako zerbitzuen zorroa zehaztea, ziurtatzeko, zerbitzu horiek kudeatzen dituzten erakundeekin elkarlanean, orientabide pertsonalizatua ematen dela, ibilbide pertsonalizatuaren ezarpenaren bidez enplegarritasuna hobetuz	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza Lanbide
17. Orientatzeko eta laneratzekeo arreta-eredu berezia ezartzea, zerbitzu horiek kudeatzen dituzten erakundeekin elkarlanean, enplegua eskuratzeko laguntza behar handienak dituztenentzat eta/edo lanetik eta gizartetik kanpo geratzeko arrisku handiena dutenentzat	
18. Arreta eredu berri bat diseinatzea, zerbitzu horiek kudeatzen dituzten erakundeekin elkarlanean, Lanbideren bulego-sarearen gaur egungo egoeraren analisia eginez; hala, bulego «tipo»aren ereduia zehaztu ahal izango da, bai alderdi fisikoa bai birtuala uztartzen dituen arreta- eta bideratze-prozesua barne. Orobat, apurka-apurka eredu berria sare osoan ezartzeko plangintza egitea	
19. Hobetzea, zerbitzu horiek kudeatzen dituzten erakundeekin elkarlanean, laneratzekeo orientazioaren espezializazioan eta laguntza pertsonalizatuan oinarritutako esku-hartze ereduia, talde eta banako bakoitzaren premien eta errealtateen arabera («enplegu-eskatzailentzako zerbitzuen zorroa») Ereduak arreta integral espezializatua eta lehenetsia aurreikusten du desgaitasuna duten pertsonentzat, enplegua eskuratzeko zailtasun handienak dituztenentzat eta/edo lanetik eta gizartetik kanpo geratzeko arriskua dutenentzat	

ENPLEGUA	
24. jomuga. Eskola inklusibo, ekitatibo eta kalitateko baten eraikuntza aurrera egitea	<ul style="list-style-type: none"> – Zientzietan lortutako errendimenduaren aldakuntza-ehunekoa, ikasleen maila sozioekonomikoaren arabera azalduta (PISA) – Zientzietan lortutako puntu-diferentzia, ESCS indizean unitate bat gehitzearekin lotuta (PISA) – Ikasle erresilienteen ehunekoa (PISA), sexuaren arabera – Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzako lehen edo bigarren zikloan ikasturtea gutxienez behin errepikatu duten ikasleen ehunekoa, ikasleen maila sozioekonomikoaren eta sexuaren arabera
25. jomuga. Ahultasun handieneko egoeran dauden gazteei Lanbide Heziketako sarbidea erraztea eta hortik enplegura igarotzea bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Oinarrizko lanbide-heziketan matrikulatutako ikasleen kopurua, sexuaren arabera – Lanbide-heziketa dualeko gizonetako eta emakumezko ikasleen kopurua – Heziketako eredu dualean ikasten ari diren gazteen urteko ehunekoa – Lanbide-heziketako eredu dualean dauden erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloen kopurua – Enplegurako prestakuntza-ekintzen bidez prestatutako gazte kopurua – Enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten langabeen kopurua – Prestakuntza eta enplegurako ekintza berritzaile integraletan parte hartu duten langabeen kopurua
26. jomuga. Bizitza osoko prestakuntza-jarduerak bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Azaroaren 27ko 248/2012 Dekretuak (bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituena) aurreikusitako laguntzen deialdira bideratutako aurrekontu-zuzkidura. – Helduen Hezkuntza Iraunkorrean matrikulatutako ikasleen kopurua, sexuaren arabera

6.4. 3. ardatza: Artikulazioa eta koordinazioa

Artikulazioaren eta koordinazioaren eremuan helburu estrategiko hau planteatzen da: **Sektorearteko koordinazioa hobetzea, esku hartzeko eredu komuna garatzea, berrikuntza eta jakintzaren kudeaketa bultzatzea eta gizarteratzeko euskal sistemaren barne-artikulazioan aurrera egitea.** Horretarako, 9 jomuga eta 41 jarduketa zehatz proposatu dira.

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
27. jomuga. Berriazko jarduketa-planak garatzea desabantailan dauden eskualde eta udalerrietan eta sareko lana sustatzea lurralde-mailan	
Euskadiko lurraldeen artean pobreziaren eta langabeziaren arloan dauden desberdintasunak murriztea eta eragileen arteko koordinazioaren hobekuntza ahalbidetzea	
JARDUKETA	ARDURADUNA
107. Tokiko eta eskualdeko garapen-planak bultzatzea, ukitutako aldundi eta udalekin elkarlanean, ekonomiaren eta gizartearen dinamizazioa susta dadin indize sozioekonomiko larrienak dituzten udalerrietan, EAEkoaren batez bestekoa baino langabezia tasa nabarmen handiagoak dituztenetan, krisiak bereziki eragindakoetan edo, enpresak itxi edo lekualdatu dituztelako, bat-bateko enplegu galera handiak izan dituztenetan	Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Aldundiak Udalak
108. Tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean eta hiriak berroneratzearen esparruan, Ekintza Plan integral baten bidez. Jarduera/enplegua sortzera, guztion onera eta jasangarritasunera bideratutako ekimenei emango zaie lehentasuna, auzo edo distritu eskalan egiten diren jarduera ekonomikoak babestuz, eta aldi berean hirien birgaitze eta berroneratzea sustatuz	
109. Hiri eta auzoetan esku hartzeko programa berria sustatzea, beharrezko erakundearteko lankidetzarekin. Horrela, batetik, hiri-birgaitze, -berritze eta -berroneratzeari lotutako esku-hartzeak planifikatu ahal izango dira («Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen aldeko udalerriak» programa) eta, bestetik, Euskadi lurralde orekatu eta jasangarri batean antolatu ahal izango da, gune degradatuak murriztuta	
110. Langabezia-tasa handiko eremuetan enplegua sortuko duten inbertsio-proiektuak sustatzea: adibidez, Indartu programa, Nerbio ibaiaren Ezkerraldean (Bizkaia) eta Oartzualdean (Gipuzkoa) enplegua sortzen duten inbertsio produktiboak egiten dituzten enpresentzat (5 eta 20 enplegu bitarte). Lehentasuna emango zaie produktua eraldatzeko prozesuarekin, gaitasunak handitzearekin edo jarduera berriak garatzearekin zuzeneko zerikusia duten inbertsioei	
111. Pizgarriak ematea, dela zuzenean tokiko erakundeek, dela erakunde sozialekin elkarlanean, enplegua sustatuko duten tokiko ekintzak garatzeko, tokiko esparruan laneko merkaturak sustatuko eta kolektibo ahulenen kontratazioa bultzatuko duten jarduera baliagarriak edo interesgarriak abian jartzeko, arreta berezia eskainirik langabezia handiena duten eskualde eta udalerriei	

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
28. jomuga. Sistema arteko koordinazio-erremintak garatzea auzo, udalerri edo eskualdeen mailan eta esku-hartze prozesuen komunitateko dimentsioa bultzatzea Lurralde bakoitzeko ezaugarri bereizgarriak kontuan hartzeaz gainera, agente guztiak barne hartuko dituzten eta esku hartzeko prozesuen alderdi erlazional eta komunitarioa indartzeko modua emango duten esku-hartze prozesuak ahalbidetzea	
JARDUKETA	ARDURADUNA
112. Auzo, udalerri edo eskualdeko mailan pobrezia-aren eta gizarteratzearen esparruan koordinatzeko lurralde-mahaiak era daitezela sustatzea, enplegu, osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzu publikoen jarduketak eta hirugarren sektorearen parte-hartzea koordinatzeko modua eman dezaten.	Udalak Foru-aldundiak Lanbide Hezkuntza Saila Osasun Saila
113. Gizarte-zerbitzuen eremuan, Zorroaren Dekretuan aurreikusitako partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzuaren garapena bultzatzea	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Udalak
114. Inguruneko hezkuntza-planak egin daitezela sustatzea, lurraldean hezkuntza-desabantailako egoeran dauden adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea antolatzeko	Hezkuntza Saila Aldundiak Udalak
115. Lurralde-mailan dauden gizarteratze-baliabide eta -agenteak identifikatzea, hura garatzea ahalbidetzen dutenak	Udalak

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
29. jomuga. Banakako esku-hartze prozesuetan agenteen koordinazioa sustatzea	
Pertsona edo familia berberengan sistema desberdinetatik esku hartzen duten agenteen esku-hartze koordinatuaren alde egitea, balorazio-prozesuak hobetuz eta laguntza soziala eta kasuen kudeaketa indartuz	
JARDUKETA	ARDURADUNA
116. DSBE erregulatzen duen araudian zenbait xedapen sartzeari, egituraz aukera emango dutenak enplegu-zerbitzuetan DSBEren hartzaile bakoitzari kasuko erreferente bat esleitzeko Alde batera utzi gabe gizarte-zerbitzuetan ere kasuko erreferente bat esleitu ahal zaiela norbanako horien premiak direla-eta haien ere esku hartu behar dutenean, gizarte-zerbitzuen berezko jarduketak egin ditzan, dela lehen mailako arretan, dela bigarren mailakoan	Udalak Foru-aldundiak Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza Lanbide
117. Lanbidek eta/edo DSBEren hartzaileak gizarteratzeko prozesuen erakunde arduradunek gizarteratze-hitzarmenak egin ditzatela sustatzea	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza Lanbide
118. Administrazio publikoen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen artean protokoloak edo akordioak sinatzea, azken horiek erreferentziako figuraren eta kasua koordinatzeko eginkizunetan parte har dezaten, betiere barne harturik erakundeko profesional bat erreferente izango litzatekeen kasua, trukatu beharreko informazioa, horretarako irizpide nahiz prozedurak, eta administrazio publikoek egin beharreko jarraipena	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza Lanbide Aldundiak Udalak
119. Dekretu hauetan araututako tresna komunak berrikustea, zer erabilera duten eta zer alderdi hobetu eta egokitu daitezkeen aztertzeko: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa, eta 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte bazterketa Balioesteko Tresna onartzen duena	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
120. Lankidetzak eta koordinazioko protokoloak egitea (arreta bateratua eta deribazioa) Gizarte Zerbitzuen arloko lehen mailako eta bigarren mailako arretaren artean, eta sistemarteko protokoloak ere egitea (gizarte-zerbitzuetako, justiziako, enpleguko, etxebizitzako, eta abarretako sistemen artekoak)	Aldundiak Udalak

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
30. jomuga. Gizarteratzearen eremuan esku-hartze esparru komun bat sortzea praktika profesionala artikulatu dezan honako printzipio hauen inguruan: pertsonan zentratu-riko arreta, norbanakoaren araberakoa, aktibazio inklusiboa eta bizi-kalitatea	
Gizarteratze-egoeran dauden pertsonetikiko arreta-eredua berrorientatzea eta pertsona ukituen parte-hartzea sustatzea	
JARDUKETA	ARDURADUNA
121. Gizarte-bazterketari erantzuteko eredia diseinatzea gizarte-zerbitzuen arloan, esku hartzeko zerbitzu eta prozeduren ezaugarriak orientatzen ditzan	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Aldundiak Udalak
122. Esku hartzeko gidaliburuak eta jardunbide egokien eskuliburuak egitea, baita gizarteratzearen eremuan diharduten agenteen esku-hartzearen kalitatea bermatu ahal izateko beste tresna batzuk ere	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
123. Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen eta/edo haien ordezkari diren erakundeen zuzeneko parte-hartzea sustatzea, gizarteratzeko programen diseinuan, zentroen kudeaketan eta gizarte-politiken aplikazioan	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Aldundiak Udalak
KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
31. jomuga. Arreta Soziosanitarioko eredu eraginkor, koordinatu eta jasangarri bat garatzea, pertsonan zentratua, bere bizi-proiektuaren protagonista den heinean	
Koordinazio soziosanitarioa bultzatzea eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta soziosanitarioa hobetzea	
JARDUKETA	ARDURADUNA
124. Koordinazio soziosanitariorako gobernamentu-eredu operatiboa zehaztea	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila
125. Euskadin arreta soziosanitarioa garatzeko dekretua adostea, lantzea eta onestea	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
126. Baliabide soziosanitarioetarako finantzaketa-esparru bat adostea eta definitzea.	Osasun Saila
127. Historia soziosanitarioa ezartzea gizarte-zerbitzuetako eta osasuneko sisteman	Osasun Sailburuordetza
128. Laguntza-ibilbide espezifikoak zehaztea gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat	Aldundiak Udalak

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
30. jomuga. Gizarteratzearen eremuan esku-hartze esparru komun bat sortzea praktika profesionala artikulatu dezan honako printzipio hauen inguruan: pertsonan zentratu-riko arreta, norbanakoaren araberakoa, aktibazio inklusiboa eta bizi-kalitatea	
Gizarteratze-egoeran dauden pertsonen arreta-eredua berrorientatzea eta pertsona ukituen parte-hartzea sustatzea	
129.	Koordinazio-kanalak ezartzea, arreta eman dezaten osasun-zerbitzuetarako sarbiderik gabeko ohiz kanpoko egoeretan, koordinazio soziosanitarioko organoen esparruan
130.	Hirugarren sektoreko erakundeek parte hartzea koordinazio soziosanitarioko organoetan, Erakunde Sanitario Integratuetako (ESI) Batzorde Soziosanitarioetan parte hartuz

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA		
32. jomuga. Berrikuntza eta jakintzaren kudeaketa bultzatzea eta gizarteratzeko euskal sistemaren legitimotasun soziala bermatzea		
Gizarteratzeko politiken eremuan, ikerkuntza, berrikuntza, prestakuntza eta ebaluazioa sustatzea –era koordinatuan–, eta behaketa- eta azterketa-lana hobetzea gizarteratzearen arloan		
JARDUKETA	ARDURADUNA	
131.	Gizarteratzeko politiken arloan gaur egun egiten diren berrikuntza-, ikerkuntza- eta ebaluazio-jarduerak antolatzeko eta egonkortzeko modua emango duen programa edo plataforma bat bultzatzea, baita esku-hartze esperimentalen eta arlo honetako berrikuntzaren garapena ahalbidetzeko ere	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Berrikuntza Zuzendaritza
132.	DSBErekin lotutako ikerketen eta/edo ebaluazioen berariazko programa diseinatzea, Lanbidek dituen datuei etekin handiagoa ateratzeko eta DSBEren barne-dinamiken ezagutza hobetzeko (sarrera eta irteerako fluxuak, erabilera-ereduak, erabiltzaileen profilak, etab.). Hartara, eskura daitekeen informazio estatistikoa osatu ahal izango da	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza Lanbide
133.	Gizarte-politiken eta gizarteratzeko esku-hartzearen arloko graduondoko ikasketak bultzatzea, baita askotariko sistemetako profesionalak (enplegua, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak) prestatzeko eta birziklatzeko programak ere, pertsonan zentratutako arretaren edo gizarteratzeko aktibazioaren gisako alderdietan.	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza EAEko unibertsitateak
134.	Gizarteratze-politiken legitimotasun sozialaren mesederako diren diskurtso eta mezu inklusiboak jendarteratzeko ekimenak indartzea	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
33. jomuga. Lidergoa bultzatzea Planaren aplikazioan eta gizarteratzeko euskal sistemaren artikulazioan Gizarteratzeko Euskal Plana tresna baliagarri bihurtzea gizarteratzeko euskal sistema artikulatzeko, agente guztien parte-hartzearen bitartez	
JARDUKETA	ARDURADUNA
135. Gaur egungo erakundearteko eta sailarteko gizarteratze-kontseiluak bateratzea proposatu da, kontseilu bakar bat era dezaten eta, besteak beste, Gizarteratzeko Euskal Plana sustatzeko eta haren jarraipen politikoa egiteko eginkizuna izango du batzorde horrek.	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza
136. Lantalde Tekniko-Zuzendaria ezartzea, Plana sustatzeaz eta haren jarraipen politikoa egiteaz arduradakin	
137. Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren urteko txostena egitea, gizarteratzearen arloan indarrean den araudiak ezarritakoari jarraikiz	
138. Aginte-koadro integrala zehaztea, gizarteratzearen eremuarekin eta planaren esparruan garatutako politika publikoekin zerikusia duten gizarte-premien jarraipena eta ebaluazioa egin dezan.	

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
34. jomuga. Gizartearen aniztasunarekin koherentea den sistema baten eraikuntza bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna berma dadin Emakumeen ahalduntzea bultzatzea maila guztietan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aitortzea eraldaketa sozial eta ekonomikorako beharrezko balio gisa eta emakumeen kontrako indarkeriak eragindako kalteak hautematea, artatzea eta konpontzea	
JARDUKETA	ARDURADUNA
139. Gizarteratzearen eremuan diharduten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea	Lehendakaritza Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila; Osasun Saila Segurtasun Saila Lan eta Justizia Saila Foru-aldundiak Udalak
140. Erakundeek eskainitako erantzunak eta baliabideak (zerbitzu sozialak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, kultura, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza) pobreziako eta/edo bazterketako arriskuan edo egoeran dauden emakumeen beharretara hobeto egokitzea.	
141. Emakumeek erabaki-guneetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea, gizarteratzearen eremuan diharduten erakundeen barruan	
142. Edozein indarkeria-motaren aurrean zerbitzuak eta baliabideak ahalik eta goizen erabiltzen dituzten emakume biktimen kopurua areagotzea, arreta berezia jarrita zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenei.	
143. Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta hornikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea, batik bat landa-eremuko udalerrietan.	
144. EAEn dauden berriazko baliabide eta zerbitzuek gizakien salerosketaren biktima diren artatutako emakume eta haurren kopurua handitzea.	
145. Emakumeenganako indarkeria pairatu duten pertsonen diru-beharrak aseko direla bermatzea.	

KOORDINAZIOA ETA ARTIKULAZIOA	
35. jomuga. Hirugarren Sektore sozialaren garapena bultzatzea Euskadin Erantzukizun publikoko zerbitzuak eskaintzeko eredu mistoa bultzatzea eta arretarako eredu komunitarioa sustatzea Hirugarren Sektoreko erakundeetan	
JARDUKETA	ARDURADUNA
146. Esku-hartze sozialaren eremuan eredu mistoa abian jartzeari (lankidetzak publiko soziala) jarraipena egitea, bultzada ematea eta hura ebaluatzea	Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila
147. Itun sozialaren araubidea eta hirugarren sektorearekiko lankidetzak formalizatzeko hitzarmenak bultzatzea	Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza
148. Euskadiko Hirugarren Sektore sozialeko erakundeetan arreta-eredu komunitarioa sendotu eta bultzatzea	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

KOORDINAZIOAREN ETA ARTIKULAZOAREN ARLOKO GAUZATZE-MAILAREN ADIERAZLEAK	
27. jomuga. Berriazko jarduketa-planak garatzea desabantailan dauden eskualde eta udalerrietan eta sareko lana sustatzea lurralde-mailan	<ul style="list-style-type: none"> – Errentaren sakabanatze-tasa EAeko eskualdeetan – Pobrezia-egoeren sakabanatze-tasa EAeko eskualdeetan – Eremu behartsuetan enplegua sortzeko inbertsio-proiektuen bidez lagundutako enpresa kopurua, sortutako enplegu kopurua eta mantendutako enplegu kopurua
28. jomuga. Sistema arteko koordinazio-erremintak garatzea auzo, udalerrri edo eskualdeen mailan eta esku-hartze prozesuen komunitateko dimentsioa bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Pobreziaren eta gizarteratzearen eremuan koordinatzeko ezarritako lurralde-mahaien kopurua – Ezarritako inguruneko hezkuntza-planen kopurua
29. jomuga. Banakako esku-hartze prozesuetan agenteen koordinazioa sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Gizarte Zerbitzuen eremuko esku hartze sozialerako erreferentea esleituta duten DSBE-hartzaileen kopurua – Hirugarren sektoreko erakundeei lotutako erreferente profesionala esleituta duten DSBE-hartzaileen kopurua
30. jomuga. Gizarteratzearen eremuan esku-hartze esparru komun bat sortzea praktika profesionala artikulatu dezan honako printzipio hauen inguruan: pertsonan zentratutako arreta, norbanakoaren arabera, aktibazio inklusiboa eta bizi-kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> – Egin diren esku hartzeko gidaliburuak, jardunbide egokien eskuliburuak eta beste tresnen kopurua
31. jomuga. Arreta Soziosanitarioko eredu eraginkor, koordinatu eta jasangarri bat garatzea, pertsonan zentratua, bere bizi-proiektuaren protagonista den heinean	<ul style="list-style-type: none"> – Zerbitzu soziosanitarioetako gastua guztira, eta gastuaren ehunekoa finantzaketa-iturriaren arabera. – Historia soziosanitarioan sartu diren espedienteen kopurua
32. jomuga. Berrikuntza eta jakintzaren kudeaketa bultzatzea eta gizarteratzeko euskal sistemaren legitimotasun soziala bermatzea	<ul style="list-style-type: none"> – DSBEri buruz egin diren ikerketen eta/edo ebaluazioen kopurua
33. jomuga. Lidergoa bultzatzea Planaren aplikazioan eta gizarteratzeko euskal sistemaren artikulazioan	<ul style="list-style-type: none"> – Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren txosten kopurua
34. jomuga. Gizartearen aniztasunarekin koherentea den sistema baten eraikuntza bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Gizarteratzearen eremuan diharduten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua – Gizarte Zerbitzuen eremuko gizarteratze-baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua
35. jomuga. Hirugarren Sektore sozialaren garapena bultzatzea Euskadin	<ul style="list-style-type: none"> – Hirugarren sektoreko erakundeek kudeatutako zerbitzu eta zentroen kopurua eta itun sozialari jarraikiz dagokien aurrekontu-zuzkidura

7. Baliabide ekonomikoak

Plan honetan jasotako jarduketan zehaztapen maila dela eta, zaila da haren eragin ekonomikoa kuantifikatzea: alde batetik, ezinezkoa da aurrez jakitea zer bilakaera izango duten pobrezia eta bazterketako egoerek, eta, beraz, zer bilakaera izango duen eskariak. Bestalde, Plan hau egiteko erabili diren plan eta estrategien artean –Berdintasunekoa, Osasunekoa, etab.– askok ez dute memoria ekonomikorik eta, hortaz, ez dago aurreikusitako jarduketan kostua zein izango den zehazteko modurik.

Dena dela, azaletik bada ere, planteatu daitezke urtean gutxi-gorabehera zenbateko kopurua mobilizatuko duten Plan honetan integratutako gizarteratze-prestazioek eta -politikek –pobrezia eta bazterketako egoeren hedadura egonkor mantentzen bada, eta kontuan hartuta planetan aurreikusi diren eta aurrekontua esleitura duten jarduketak–. Hala, bada, partida hauek batuz lortutakoari dagokio Planaren zenbatekoa:

- Urtean 400 milioi inguruko gastua DSBerako eta GLLrako, 2012/2015 denboraldiko gastuaren batez bestekoari dagokionez.
- Gutxi-gorabehera urtean 100 milioi euro etxebizitza-prestazioetarako; hau da, urteko 20 milioi inguru handitu da aurrez horretarako egiten zen gastua (2012/2015 denboraldiko batezbestekoa).
- Gutxi gorabehera urtean 200 milioiko gastua alokairua babesteko beste politika publiko batzuetan, Etxebizitza Sailak 2018. urterako partida horretan onartutako aurrekontuari jarraikiz.
- Urtean 75 milioi inguruko gastua; hau da, 2017/2020 aldiko Enplegu Planean laneratzeko pizgarrietarako esleitu dena (301 milioi lau urteko aldi baterako).
- Urtean 45 milioi euro inguruko gastua gizarteratzeko gizarte-zerbitzuetan, Zorroaren Dekretuaren esparruan (2012tik 2015era bitarte batez besteko gastua 42 milioi eurokoa izan zen).

Adierazitako datuetatik abiatuta, pentsa daitezke 815 milioi euro inguru izango direla urtean –hezkuntza eta osasuneko gastuak zenbatu gabe–; alegia, 4.000 milioi euro inguruko gastu metatua Planaren indarraldi osoan.

8. Planaren inpaktua eta egutegia

Plangintzaren ikuspuntutik, Plan hau egiteko prozesua gidatu duten oinarrizko irizpi-deak deskribatzean adierazi den moduan, izaera dinamikoa eman nahi zaio Planaren kudeaketari, indarraldian zehar planaren beraren edukiak aldatuz beharrezko ikusten den heinean. Adierazi da, orobat, plan ebaluagarria egin behar dela, eta dagoeneko adierazi da gauzatze-mailari buruzko adierazle sorta bat helburu bakoitzerako.

Alderdi horiek abiaburuan, hiru ikuspegitan zehazten da Planari aurreikusten zaion eragina:

- alde batetik, Plana gauzatuko den lehenengo bi urteetarako ezarritako konpromiso nagusiak. Zentzu horretan, Planaren esparruan egin beharko diren **hamabost jarduketa zehatzenak eta adierazgarrienak** izango dira, eta Planaren ondorioz epe ertainera ateratako konpromiso nagusizat uler daitezke.
- Bigarrenik, **inpaktuari dagokionez ezarritako bost helburu kuantitatiboak**; hau da, euskal biztanleen egoerari buruzkoak dira, eta zerikusia dute gizarteratze- eta baztertze-prozesuekin lotutako faktoreekin. Planaren indarraldia amaitutakoan, azken ebaluazioa egiteko garaian, kontuan hartu beharko dira horiek.
- Hirugarrenik, aurreko kapituluan Planaren gai-eremu bakoitzerako ezarri diren **gauzatze-mailaren adierazleen** zerrenda.

Gainera, egutegiaren ikuspegitik, lehenengo ekitaldian gauzatuko diren eta Urteko Jarduketa Plana eratzen duten neurri eta jarduketak ezarriko dira. Plan horiek aldian behin eguneratuko dira Planak benetan izango duen lau urteko iraunaldian zehar.

8.1. 2018/2019 aldirako konpromiso nagusiak

1. Gaur egun DSBEren esparruan antolatuta dagoen enplegu-pizgarrien sistema indartzea eta finkatzea, eraginkortasun handiagoz eta egiturazko alderditik aurre egin ahal izateko enpleguko pobrezia-egoerei.
2. DSBE erregulatzen duen araudian txertatzea Lanbidek okupazioaren edo lanaren arloko hautabide zehatzak eskaintzeko konpromisoa izango duela, prestazioa modu jarraituan jasotzen epe jakin bat gainditu baino lehen, esku-bide bikoitzaren printzipioa gauzatzeko.
3. Lehen lan-esperientziarako sarbidea sustatzeko tresnak indartzea, esaterako, Lehen Aukera programa, langabezia egoeran dauden gazteen kontratazioa babesten duena.
4. Iraupen luzeko langabeei laneratzen laguntzeko jarduketa integralak garatzea; besteak beste, banan-banako informazioa, orientazioa, aholkularitza, jarraipena eta laguntza emateko zerbitzuak.
5. Arreta eta orientazioa emateko eta laneratzeko eredia ezartzea Lanbiden, enplegura sartzeko zailtasun bereziak dituzten eta/edo lanean nahiz gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzat.

6. Klausula sozialak txertatzea kontratazio publikoko prozesuetan, apirilaren 7ko 3/2016 Legeak (zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa) eta kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak sartzeari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera
7. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen esparruan, hobekuntzak sartzeko DSBEren eta GLLren diseinuan eta kudeaketan, baita Legean gizarteratze-prozesuak antolatzeke zehazten diren gainerako tresnei dagokienez ere.
8. Seme-alabak dituzten Euskadiko familientzako prestazio ekonomikoen eredia hobetzea eta zabaltzea, lagungarria izan dadin haurren pobrezia prebenitzeko eta belaunaldi batetik hurrengora desberdintasuna murrizteko, inbertsio soziala dela azpimarraturik.
9. EAEko gizarte-zerbitzuen eskualde eta sektore guztietan garatzea Gizarte Zerbitzuen Mapan bazterketaren eremuan aurreikusitako zentro eta zuzkidura guztiak.
10. Gizarte Zerbitzuen Zorroaren Dekretuan gizarte-bazterketarako aurreikusten diren zerbitzu eta zentroak erregulatzeko araudia garatzea.
11. Itun sozialaren araubidea eta hirugarren sektorearekiko lankidetzaren formalizatzeko hitzarmenak bultzatzea gizarteratzeko zerbitzuen prestazioaren eremuan.
12. Erakundearteko lantalde berri bat sortzea, 2019. urtean Zorroaren Dekreturako aurreikusita dagoen nahitaezko eguneraketari begira, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuen eta zentroen definizioan sartuko diren aldaketak azter ditzan.
13. Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aktibazio komunitariora bideratutako ekimen esperimentalak garatzea gutxienez EAEko zortzi eskualdetan, ahal dela, pobrezia-egoeren ondorioz gehien kaltetutakoean.
14. Kultura eta kirolaren bidez gizarteratzeko programa pilotuak diseinatu, abian jarri eta esperimintatzea.
15. Gizarte-bazterketako edo marjinalitateko arrisku handia duten arloetan komunitateko jarduerak diseinatu, abian jarri eta esperimintatzea, nahasmendu mentalen eta mendekotasunen baldintzatzaileen gainean jarduteko.
16. Berriazko laguntza-ibilbide soziosanitarioak zehaztea gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat.
17. Onartzea etxebizitza legez okupatzeko edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubide subjektiboa arautzen duen dekretua, eta Etxebizitza Sailak bere gain hartzea, apurka-apurka, etxebizitzaren arloko prestazioen kudeaketa.

18. Etxebizitza Sailaren eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen artean hitzarmenak sina daitezela bultzatzea, zertarako eta sustapen publikoko etxebizitzak lagatzeko, bizitegi- eta/edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako bizileku edo esku-hartze sozialeko programetara bidera daitezzen eta, horrenbestez, etxebizitzako gizarte-programak ezarri eta gizarteratzeko etxebizitzaren sarea era dadin.
19. Bidelaguna, Hamaika Esku, Hezkuntzako Sendotze Programa Espezifiko eta Hezkuntza Programa Osagarriak (Osatuz / Bideratuz) indartzea, baita eskolako absentismoa eta eskolatu gabekoen tasa hutsera ekartzeko lurralde-programak ere.
20. Oinarrizko lanbide-heziketako eta erdi-mailako heziketa-zikloko eredu bat diseinatzea, erantzuna emango diona Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua atera ez duten 15-17 urte arteko ikasleen eta/edo hezkuntza-premia beziak dituzten ikasleen beharrei.
21. Auzo, udalerrri edo eskualdeko mailan pobrezia eta gizarteratzearen esparruan koordinatzeko lurralde-mahaiak era daitezela sustatzea, enplegu, osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzu publikoen jarduketak eta hirugarren sektorearen parte-hartzea koordinatzeko modua eman dezaten.
22. DSBE erregulatzen duen araudian zenbait xedapen sartzea, egituraz aukera emango duten enplegu-zerbitzuetan DSBEren hartzaile bakoitzari kasuko erreferente bat esleitzeko, alde batera utzi gabe gizarte-zerbitzuetan ere kasuko erreferente bat esleitu ahal zaiela norbanako horien premiak direla-eta haiek ere esku hartu behar dutenean, gizarte-zerbitzuen berezko jarduketak egin ditzan, dela lehen mailako arretan, dela bigarren mailakoan.
23. Gizarteratzeko politiken arloan gaur egun egiten diren berrikuntza, ikerkuntza eta ebaluazio jarduerak antolatzeko eta egonkortzeko modua emango duen plataforma bat bultzatzea, baita esku-hartze esperimentalen eta arlo honetako berrikuntzaren garapena ahalbidetzeko ere.
24. DSBEekin lotutako ikerketen eta/edo ebaluazioen berriazko programa diseinatzea, Lanbidek dituen datuei etekin handiagoa ateratzeko eta DSBEren barne-dinamiken ezagutza hobetzeko (sarrera eta irteerako fluxuak, erabilera-ereduak, erabiltzaileen profilak, etab.). Hartara, eskura daitekeen informazio estatistikoa osatu ahal izango da.
25. Gizarteratzeko Euskal Planaren Zuzendaritza Batzordea sortzea (erakundear-tekoa eta sailartekoa izango da), baita Batzorde Tekniko-Zuzendari bat ere, Planari bultzada politikoa emateaz eta haren jarraipen tekniko egiteaz ardura daitezzen.

8.2. Helburu kuantitatiboak

Neurri hauek eta Planean jasotako gainerako jarduketek helburu kuantitatibo hauek lortzen lagundu beharko dute:

1. Mantentze-pobreziaren tasa % 20 murriztea EAEko eskualde guztietan, eta % 5,6 baino txikiagoa izan dadila EAE osoko pobrezia-tasa.
2. EAEko gizonen eta emakumeen okupazio-tasa % 75era eta % 66ra handitzea, hurrenez hurren.
3. Lan-intentsitate baxuko tasa % 8 baino txikiagoa izatea.
4. Eskola uzten dutenen tasa % 7 baino txikiagoa izatea.
5. Desberdintasunak murriztea sexu bakoitzak gizarte-mailaren arabera haute-mandako osasun txarrean (% 10 gizonak, % 20 emakumeak).
6. Etxebizitza eskuratu beharrean dagoen biztanleen ehuneko % 5 baino txikiagoa izatea.

Taula honetan jaso da zein den gaur egungo egoera (behar adina informazio dagoen azken urtea harturik kontuan) adierazle bakoitzari dagokionez, eta zer egoera espero den Plana gauzatzeko aldiaren amaieran.

6Taula. Planaren eraginaren adierazleak. Hasierako adierazleak eta esperotako adierazleak

	Hasierako adierazleak	Esperotako adierazlea
Mantentze-pobrezia	% 7,1	< % 5,6
Gizonen okupazio-tasa	% 70,5	>% 75
Emakumeen okupazio-tasa	% 62,4	> % 66
Lan-intentsitate baxuko tasa	% 10,2	< % 8
Eskola-uztearen tasa	% 7,3	< % 7
Hautemandako osasun txarra gizonen artean (DAE*)	2,40	< 2,37
Hautemandako osasun txarra emakumeen artean (DAE)	2,55	< 2,49
Etxebizitza eskuratu beharrean dauden familiak	% 7,4	<% 5

*Desberdintasun-adierazle erlatiboa. ITURRIAK: PGEI 2016, Biztanleria jardueraren arabera 2017, EAEko Etxebizitza Beharren Inkesta 2015, EAEOI 2013.

8.3. Betetze-mailaren adierazleak

a) Enplegua

- DSBEren gastua eta hartzaile kopurua enplegurako pizgarrien modalitatean, titularraren sexuaren eta nazionalitatearen arabera
- DSBE gisa batez beste jasotako zenbatekoa enplegurako pizgarrien modalitatean, titularraren sexuaren eta nazionalitatearen arabera
- Orduko soldata prezio konstanteetan
- Laneko pobrezia-tasa
- Beheko eta goiko kuartilaren arteko soldata-arraila
- Laneko errotazio-indizea (batez besteko kontratu kopurua kontratatutako langile bakoitzeko) eta kontratuen batez besteko iraupena egunetan
- Behin-behinekotasunaren tasa, sexuaren arabera
- Lanaldi partzialeko enplegatuen tasa, sexuaren arabera
- Egindako lan-ikuskapenen kopurua
- Lehen Aukera programaren bidez kontratatutako gazteen kopurua
- Gazteen langabezia tasa, sexuaren arabera
- Lehen Aukera programaren onuradun izandako enpresen kopurua
- Laneratzeko laguntza-jarduketa integraletan izandako parte-hartzaileen kopurua
- Bazterketa-egoeran izan eta laguntza-jarduketetan parte hartu duten pertsonetatik zenbat sartu diren lan-merkatuan laguntza-prozesuen ondoren (%)
- DSBE jaso ondoren lanpostuan sartu den errelebista kopurua errelebo-kontratuetan
- Enplegu-zentro berezien eta laneratze-enpresen jardueretan izandako parte-hartzaile kopurua
- Desgaitasuna izanik edo bazterketa-arriskuan egonik, merkatu arruntean kontrata-tuak izan diren pertsonen kopurua
- Arreta eredu berria ezarrita duten Lanbideren bulegoen kopurua
- Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak parte-hartzaileen kopurua
- Gazteek sortutako enpresen kopurua
- Gazteen ekintzailtzak sortutako enplegu kopurua
- Ekintzailtza-proiektuetarako babesak jaso duten langabeen kopurua
- Langabeei ekintzailtza-proiektuetarako babesak emanez sortutako enpresa kopu-rua
- Langabeak, ahultasun sozioekonomikoko egoeran dauden pertsonak eta/edo DSBEren hartzaileak kontratatze-klausula sozialak dituzten euskal administrazio pu-blikoetako kontratuen kopurua
- Nolabaiteko klausula sozialak dituzten kontratuen esparruan laneratsen diren lan-gabeen eta/edo DSBEren hartzaileen kopurua
- Emakumeen jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasa, hezkuntza-mailaren arabera
- Emakumeen okupazio-tasa osasungintzaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan
- Jarduera ekintzaileen tasa, sexuaren arabera
- Tokiko enplegu-planen bidez kontratatutako emakumeen kopurua
- Tokiko enplegu-planen bidez kontratatutako emakumeen ehunekoa, plan horien bidez guztira kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez
- Diskriminazio positiboko neurriak dituzten kontrataziorako pizgarrien programen bidez kontratatutako emakumeen kopurua
- Diskriminazio positiboko neurriak dituzten ekintzailtza babesteko programen bidez sortu diren eta emakumeak buruan dituzten enpresa berrien kopurua

b) Diru-sarrerren bermea

- DSBEren gastua eta hartzaile kopurua, titularraren sexuaren eta nazionalitatearen arabera eta etxean adingabeak izatearen arabera
- DSBE izatearen ondorioz murriztutako pobreziaren ehunekoa, batuta, titularraren sexuaren eta nazionalitatearen arabera eta etxean adingabeak izatearen arabera
- Egiaz DSBEren kontzeptuan batez beste jasotako zenbatekoa, titularraren sexuaren, desgaitasunaren, nazionalitatearen eta etxean adingabeak izatearen arabera
- Abenduaren 31n erregistratuta dauden urteko bidegabeko kobrantza eta ordainketen zenbatekoa
- DSBEren kontzeptuan irregularki jasotako kopuruen ehunekoa, DSBEra bideratutako gastu osoari dagokionez
- GLL gastua eta hartzaile kopurua, titularraren sexuaren eta nazionalitatearen arabera
- GLLren udal- eta autonomia-finantziarioa, GLLrako guztizko gastu publikoari dagokionez, lurralde historikoaren arabera
- Estatuaren eremuko prestazioak edo langabezia-sorospenak DSBEren bidez osatzen dituzten hartzaileen kopurua eta bizikidetzaren unitate horietara bideratutako zenbatekoa
- Ardurapeko seme-alaba bakoitzaren jaiotzagatik ematen diren prestazioen gastua eta prestazioen onuradun diren familien kopurua
- Ondorengoengatikoen onuradun diren zergadunen kopurua eta gastu fiskala
- Seme-alabak dituzten DSBEren onuradunen kopurua, eta euren ardurapean seme-alabak dituzten familiek batez beste jasotako zenbatekoa

c) Gizarte-zerbitzuak

- Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastua zuzeneko arreta-zerbitzuetan, lurralde historikoaren arabera
- Zorroaren Dekretuan gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat aurreikusitako zentro bakoitzari dagozkion toki kopurua eta estaldura-tasak, lurralde historikoaren arabera
- Programa eta proiektu esperimentaletan artatutako pertsonen kopurua eta egingutako proiektu desberdinen kopurua
- Kultura eta kirolaren bidez gizarteratzeko programa pilotuetan izandako parte-hartzaileen kopurua
- Gizarte-bazterketaren alorreko zentroak eta gizarte-zerbitzuak arautzeko promulgatutako dekretu kopurua

d) Osasuna

- Osasun mental onaren prebalentzia gizarte-mailaren eta generoaren arabera (MHI-5)
- Haurdunaldia borondatez eten dutenen tasa, adinaren eta nazionalitatearen arabera
- Alkoholaren eta tabakoaren eguneroko kontsumoari buruzko tasa, sexuaren eta maila sozioekonomikoaren arabera

- Gehiegizko pisua eta obesitatea duten pertsonen tasa, sexuaren eta maila sozioekonomikoaren arabera
- Desberdintasun sozialak ideia suiziden prebalentzian, sexuaren arabera
- Antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoa, sexuaren eta nazionalitatearen arabera
- GIB infekzio berrien kopurua
- GIB infekzioen diagnostiko berantiarren tasa
- Genero-indarkeriaren bidez biktimizatutako emakumeen tasa
- Desberdintasun sozialak bizi-itxaropenean 30 urterekin
- Desberdintasunak sexu bakoitzak hautemandako osasun txarrean, gizarte-mailaren arabera
- Gizarte-estratifikazioko aldagaiak sartzeari osasunaren arloko informazio-sistematan
- Zerbitzu soziosanitarioetako gastua guztira, eta gastuaren ehunekoa finantzaketa-iturriaren arabera.
- Historia soziosanitarioan sartu diren espedienteen kopurua
- Parte-hartzaileen kopurua areagotzea substantzien kontsumoei eta adikzioa sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideei lotutako arriskuak arintzeko proiektuetan, eta arrisku-egoeran edo ahultasun-egoeran dauden kolektibo eta pertsonengan alor hauetan: a) eskola, b) familia, c) aisialdia eta jaia eta d) komunitatea. Guztira, eta sexuaren arabera bereizita.
- Adikzio-arazoak dituzten eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen kopurua, arreta integrala sustatzen duten baliabideetan arreta jasotzen duena

e) **Etxebizitza**

- Hartzaile kopurua eta etxebizitzaren prestaziora bideratutako gastua etxebizitzaren eskubide subjektiboaren esparruan
- Sustapen publikoko alokairuen esleipendun kopurua, etxebizitzaren eskubide subjektiboaren esparruan
- Partekatutako etxebizitzaren programen erabiltzaile kopurua
- Zenbat hitzarmen sinatu diren Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta udalen artean pixkanaka zuzkidurako bizitokiaren udalez gaindikoa sarea osatzeko, halakoen beharrean dauden gizarte-sektoreentzat, eta bizitoki horien erabiltzaile kopurua
- Zenbat lankidetzaren hitzarmen sinatu diren Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta hirugarren sektoreko erakundearen artean, bizitegi- eta/edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako bizileku edo esku-hartze sozialeko programetan erabil daitezkeen, eta bizitoki horien erabiltzaile kopurua
- Sustapen publikoko etxebizitzaren ezohiko zuzeneko esleipenerako ebatzitako espedienteen kopurua
- Energia-pobretasuneko egoerek ukitutako biztanleen ehunekoa
- GLLren esparruan energia-premiak estaltzera bideratutako gastua

f) **Hezkuntza**

- Haurreskolak Partzuergoko toki kopurua
- Haurreskolak Partzuergoan matrikulatuta egon eta matrikulan nolabaiteko salbuespenen edo hobarien onuradun diren ikasleen kopurua
- Zientzietan lortutako errendimenduaren aldakuntza-ehunekoa, ikasleen maila sozioekonomikoaren arabera azalduta (PISA)
- Zientzietan lortutako puntu-diferentzia, ESCS indizean unitate bat gehitzearekin lotuta (PISA)

- Ikasle erresilienteen ehunekoa (PISA), sexuaren arabera
- Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzako lehen edo bigarren zikloan ikasturtea gutxienez behin errepikatu duten ikasleen ehunekoa, ikasleen maila sozioekonomikoaren eta sexuaren arabera
- Oinarrizko lanbide-heziketan matrikulatutako ikasleen kopurua, sexuaren arabera
- Lanbide-heziketa dualeko gizonetzko eta emakumezko ikasleen kopurua
- Heziketako eredu dualean ikasten ari diren gazteen urteko ehunekoa
- Lanbide-heziketako eredu dualean dauden erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloen kopurua
- Enplegurako prestakuntza-ekintzen bidez prestatutako gazte kopurua
- Enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten langabeen kopurua
- Prestakuntza eta enplegurako ekintza berritzaile integraletan parte hartu duten langabeen kopurua
- Azaroaren 27ko 248/2012 Dekretuak (bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituena) aurreikusitako laguntzen deialdira bideratutako aurrekontu-zuzkidura.
- Helduen Hezkuntza Iraunkorrean matrikulatutako ikasleen kopurua, sexuaren arabera

g) **Sistemaren koordinazioa eta artikulazioa**

- Errentaren sakabanatze-tasa EAeko eskualdeetan
- Pobrezia-egoeren sakabanatze-tasa EAeko eskualdeetan
- Eremu behartsuetan enplegua sortzeko inbertsio-proiektuen bidez lagundutako enpresen kopurua, sortutako enpleguen kopurua eta mantendutako enplegu kopurua
- Pobreziaren eta gizarteratzearen eremuan koordinatzeko ezarritako lurralde-mahaien kopurua
- Ezarritako inguruneko hezkuntza-planen kopurua
- Gizarte Zerbitzuen eremuko esku hartze sozialerako erreferentea esleituta duten DSBE-hartzaileen kopurua
- Hirugarren sektoreko erakundeei lotutako erreferente profesionala esleituta duten DSBE-hartzaileen kopurua
- Egin diren esku hartzeko gidaliburuak, jardunbide egokien eskuliburuak eta beste tresnen kopurua
- DSBEri buruz egin diren ikerketen eta/edo ebaluazioen kopurua
- Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren txosten kopurua
- Gizarteratzearen eremuan diharduten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua
- Gizarte Zerbitzuen eremuko gizarteratze-baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua
- Hirugarren sektoreko erakundeek kudeatutako zerbitzu eta zentroen kopurua eta itun sozialari jarraikiz dagokien aurrekontu-zuzkidura

9. Gobernamendua: Gizarteratzeko IV. Euskal Plana kudeatzeko egiturak

Gobernamendu-egitura eta jarduketa hauek ezarriko dira Gizarteratzeko IV. Euskal Plana kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko, 6. kapituluan adierazitakoarekin bat etorriz:

- Urteko Jarduketa Plana egin, eta aldiaren behin eguneratuko da Planak benetan izango duen lau urteko iraunaldian zehar.
- Gaur egungo erakundearteko eta sailarteko gizarteratze-kontseiluak bateratzea proposatu da. Kontseilu bakar bat eratuko dute eta, besteak beste, Gizarteratzeko Euskal Plana sustatu eta haren jarraipen politikoa egiteko funtzioa izango du.
- Lantalde Tekniko-Zuzendaria ezartzea, Plana sustatzeaz eta haren jarraipen politikoa egiteaz ardura dadin. Gizarteratzeko Erakundearteko Batzordeak proposatuko ditu lantaldeko kideak. Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren buruak ere parte hartuko du lantalde horretan.
- Lantaldeak prestatuko du Urteko Jarduketa Plana, eta aldiaren behin jarduketak garatzeari eta gauzatze-mailaren adierazleei buruzko informazioa eskatuko die planaren aurreikusitako jarduketaz arduratzen diren erakundeei.
- Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren urteko txostena egitea, Planaren gauzatze-mailaren jarraipena egiteko espezifikoki, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen 98.6 artikuluan ezarritakoaren arabera. Txosten horretan berriaz jasoko da hala genero-ikuspegitik nola haurtzaroaren eta nerabezeroaren ikuspegitik hartutako politiken eraginari buruzko azterketa.
- Aginte-koadro integrala zehaztea, gizarteratzearen eremuarekin eta planaren esparruan garatutako politika publikoekin zerikusia duten gizarte-premien jarraipena eta ebaluazioa egin dezan.
- Amaierako ebaluazioa egitea Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren indarraldia amaitzean (2021).